

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

4208 11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko.

ZIOEN AZALPENA

I

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiatzat jo zuen COVID-19ak ekarri duen osasun publikoko larrialdia. Birusa azkar hedatu da, bai gure herrialdean, bai nazioartean, eta, hori ikusita, azkar erantzun behar izan da eta neurri gogorrak hartu behar izan dira, presaka, inoiz ez bezalako krisialdi horren eragina arintzeko.

Osasun-krisi horrek eragin zuzena dauka ekonomian eta gizartean, ekoizpen-kateetan eta herritarren eguneroko bizimoduan, bai eta finantza-merkatuetan ere (azken asteotan aldakortasuna handia izan da merkatuetan).

Pandemia gelditzeko osasun-neurriek, ekonomia globalean eragina izateaz gainera, jarduera ekonomikoa eta gizarte-bizitza aldi batez murriztea ekarri dute ekoizpen-sarean eta gizartean, mugikortasuna mugatuta eta sektore askotan jarduera etenda. Horrek guztiak diru-galerak eragin dizkie familiei, autonomoei eta enpresei.

Egungo larrialdiak azkenean edukiko dituen ondorioak, neurri handi batean, erabiltzen diren baliabide nazionalen eta Europar Batasunaren baliabideen araberakoak izango dira, eta aurrekontu-politiken, diru-politiken, finantza-politiken eta egiturazko politiken arteko koordinazioaren araberakoak.

Ezohiko egoera honetan, politika ekonomikoa lanpostuak babestera, pertsona ahulenei laguntzera eta ekoizpen-sarea mantentzera bideratu behar da. Behin mugitzeko murrizketak eta gaixotasuna euste-neurriak kenduz gero, normaltasunera azkar itzultzea sustatu behar da.

Osasun publikoaren larrialdi honi erantzun nahian, Espainiako Gobernua presako neurriak hartzen ari da; neurriok Batasunaren eta nazioarteko jarduketei gehitzen zaizkie. Hain zuzen ere, azken asteotan ekonomiaren eta gizartearen arloetako neurri asko onartu dira honako hiru fronte hauetan esku hartzeko: lehenbizi, epidemiaren aurka borrokatzea, osasun-zerbitzuen eta ikerlarien ahaleginak oinarritzat hartuz; bigarrenik, herritar guztiei laguntzea, hau da, bai langileei, bai familiei, bai autonomoei, arreta berezia emanez ahulenei; azkenik, jarduera ekonomikoa bultzatzea likideziaren eta malgutasunaren aldeko neurrien bidez, enpresak jasaten ari diren kostuak arintzea xede hartuta. Neurri horiek guztiak sektorerik kaltetuenetan gutxieneko jarduera ekonomikoari eusteko dira. Hots, lortu nahi da egungo egoerak ekonomiara ekarri duen moteltzeak eragin estrukturalik ez edukitzea eta ekonomiaren eta gizartearen susperraldia ez eragozteko aparteko larrialdi hau amaitutakoan.

Neurri horiek errege lege-dekretu hauetan ezartzen dira: 6/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 10ekoa, ekonomiaren arloko eta osasun publikoaren babesteko presako neurri batzuk ezartzen dituen; 7/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituen; 8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena; 9/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 27koa, Lan-arloan COVID-19aren ondorioak arintzeko neurri osagarriak ezartzen dituen.

Zer gertatzen ari zen kontuan hartuz eta kutsapenak nazioan eta nazioartean zein azkar gehitzen ziren oharturik, 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako alarma-egoera apirilaren 12ko 00:00 arte luzatzea onartu zuen Diputatuen Kongresuak martxoaren 25ean, Ministro Kontseiluak erabakia hartu ondoren (martxoaren 14ko 463/2020 Dekretuak

COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko du; horrek, besteak beste, zirkulazio-askatasuna murriztu du alarma-egoeran, zeinak ondorio asko ekarri ditu langileentzat, enpresentzat eta herritarrentzat).

Ondoren 10/2020 Errege Lege Dekretua onartu zen, martxoaren 29koa, zeinaz berreskuratzeko baimen ordaindu bat arautzen baita besteren kontura diharduten eta funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten langileentzat, COVID-19aren kontrako borrokan biztanleriaren mugikortasuna murrizteko asmoz. Berreskuratzeko baimen ordaindu hori nahitaez hartu beharko dute, martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean (biak barne), besteren konturako lan-kontratudun jakin batzuek; eranskinean funtsezkotzat jotzen ez diren jardueretako bat egiten duten sektore publiko zein pribatuko besteren konturako lan-kontratudunek, hain zuzen ere. Nolanahi ere, adierazitako aldi horretan kontratua etenda daukaten langileei ez zaie aplikatuko, eta etxetik lanean jarraitu ahal dutenei ere ez.

Jarduketa horiek guztiak bat datoz gure inguruko herrialdeetan ezartzen ari diren neurriekin eta Europar Batasunaren erakundeek eta nazioarteko erakundeek ematen dituzten gomendioekin. Azken asteotan, osasun-krisia Europan eta nazioartean nolako bilakaera izaten ari den kontuan hartuta, hainbat herrialde asmo handiko neurri ekonomikoak eta sozialak hartzen hasi dira, osasun-sistemak sendotzeko, ekonomiari likidezia emateko, lanpostuei eusteko eta familiak eta herritar ahulenak babesteko.

Europar Batasunaren esparruan, bai eta nazioartean ere (G-20koen, NDFren, ELGAren eta beste erakunde batzuen bitartez), nazioarteko komunitatea herrialdeen jarduketak koordinatzen saiatzen ari da: herrialde bakoitzak ezartzen dituen neurriak eta jardunbide egokiak besteei azaltzen dizkie, eta egiten ari diren ahaleginak babesteko jarduketak abiarazten ditu, batera jarduteko planak proposatuz. Europan, Batasuneko estatuek ekonomia suspertzeko asmoarekin zergen arloan hartu dituzten neurrien munta ia eurogunearen BPGd-aren % 2 da. Gainera, langileen eta enpresen alde egiteko asmoarekin likidezia emateko abiarazi dituzten eskemen munta baterako BPGd-aren % 13 da. Beste alde batetik, EBZk ezohiko neurriak hartu ditu Europako ekonomiaren alde (esaterako, Pandemiaren Larrialdiko Erosketen Programa, PLEP, 750 mila milioi euro), Europako Batzordeak erabaki du Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunaren babes-klausula aktibatzea eta Europako Inbertsio Bankuak asmo handiko ekintza gehiago proposatu ditu Europako enpresentzako bermeen hornidura handitzeko.

Beste neurri multzo bat aurkezten da, ekoizpen-sarea eta gizartea babesten eta haiei sostengua ematen jarraitzeko, krisiak ahalik eta eragin txikiena izateko eta osasun publikoko larrialdia moteltzen hasten denean jarduera ekonomikoari suspertzen laguntzeko, eta aurretik hartutako neurriak osatzen, sendotzen eta zabaltzen ditu. Ekonomiaren eta gizartearen arloetako neurri sorta hori herritar guztien beharrei erantzuteko modukoa da.

Horrenbestez, presako neurrien errege lege-dekretu honek aurretik azaldu diren ezohiko inguruabar ekonomiko eta sozialen iraunkortasunari eta areagotzeari erantzuten die; bat egiten du Europar Batasunak hartutako neurriekin, eta Gobernuak azken asteetan hartu dituen neurriak osatzen ditu.

Errege lege-dekretu honen lehen helburua, hain zuzen ere, gizarte-arloko neurri batzuk ezartzea da, langile, kontsumitzaile, familia eta herritar-talde kalteberei laguntzeko, batez ere gehien behar dutenei, eta bigarren helburua, berriz, era bateko eta besteko zenbait neurri abian jartzea, jarduera ekonomikoaren susperraldian eragin zuzena edukiko dutenak, eta enpresen eta langile autonomoen aldeko saioak egitea. Gainera, neurri batzuk ezartzen dira Administrazioaren jarduna gaur egungo beharrianetara moldatzeko: sektore publikoko entitateen urteko kontuei dagozkien neurriak ezartzen dira, eta baliabide likidoen eta dohaintzei buruzkoak, eta lurralde-erakundeek ematen duten finantzaketari buruzkoak ere bai.

Osasun-krisiaren bilakaera nolakoa den aintzat hartuta, ezinbestekoa da 8/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez hartutako neurrien indarraldia luzatzea, gaixotasunaren hedapenak ekonomian eta gizartean daukan eragina arintzeko, lehentasun modura mantenduta kalterik handiena jasan duten familiak, autonomoak eta enpresak babestea. Horretarako, 8/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako hamargarrena aplikatuz, errege lege-dekretu honen azken xedapenetako hamabigarrenean berariaz

arautzen da ezarritako neurri guztien indarraldia hilabete luzatuko dela alarma-egoera amaitu ondoren, eta neurrietako batzuk sendotzen edo garatzen dira, eraginkortasun handiagoa eduki dezaten.

Horrenbestez, errege lege-dekretu honek hiru kapitulu, 54 artikulua, 22 xedapen gehigarri, bost xedapen iragankor, hamahiru azken xedapen eta lau eranskin ditu.

II

Langile, kontsumitzaile, familia eta herritar-talde kalteberei laguntzea

1. kapituluaren hainbat neurri ezartzen dira langile, kontsumitzaile, familia eta herritar-talde kalteberei laguntzeko.

Gobernuaren helburu estrategikoetako bat da, gaur egungo egoera berezian batik bat, langile, kontsumitzaile, familia eta herritar-talde kalteberei beren finantza-egoera arintzen, gutxieneko diru-sarrerak edukitzen eta gastu finkoak murrizten laguntzea. Hain zuzen ere, guztiz garrantzitsua da neurri egokiak ezartzea COVID-19ak sortu duen osasun-krisiaren ondorioz inor bazterkerian gelditu ez dadin.

1. atala. Familia eta herritar-talde kalteberei laguntzeko neurriak

I. atalean arautzen diren neurrien xedea familia eta herritar-talderik kalteberei laguntzea da. Izan ere, jarduera ekonomikoa ia erabat etenda dagoela, horien guztien diru-sarrerak asko gutxitu dira eta, beraz, erabat murriztu zaie etxeko gastuei aurre egiteko gaitasuna.

Lehenbizi, herritar kalteberei alokairua ordaintzen laguntzeko neurriak ezartzen dira. Espainian, etxebizitza-errentamenduen % 85etan jabea pertsona fisikoa da, hau da, jabe txikia da. Espainiako alokairuko etxebizitzaren merkatuaren ezaugarri berezi hori dela eta, guztiz beharrezkoa da hartzen diren neurriek bideak erraztea alderdiak ados jartzeko eta errenta ordaintzeko. Horregatik, arlo horretan proposamenak egiten dira herritar-talde kalteberei —krisialdiaren ondorioz etxebizitzaren alokairua ordaintzeko gaitasuna oso murriztuta daukaten herritarrei— behar duten babesa emateko; aldi berean, nolahi ere, alderdien arteko oreka bermatu nahi da, errentariaren egoera txarrak ez diezaion kalte egin errentatzaileen egoerari, batez ere alokairuaren errentaren ondoriozko diru-sarrerak ezinbestekoak dituzten errentatzaileen egoerari.

Horrenbestez, errege lege-dekretu honen bidez ezartzen diren neurriak hiru helburu daukate:

Lehenengoa, COVID-19aren osasun-krisiak sortutako gorabeheren poderioz ohiko etxebizitzaren errentariak jasaten duten kalteberatasunari erantzutea, arreta berezia emanez lehen ere errenta ordaintzeko ahalegin handiak egin behar izan dituztenei, baina alde batera utzi gabe lehen estatusunean ez egon arren orain aparteko egoera hau dela-eta aldi batez hala gertatzen direnak. Bigarrena, orekari eustea, errentariaren egoera konpondu beharrez jabe txikiaren egoera kolokan jarri gabe. Eta, hirugarrena, lortu nahi diren helburuak lortzeko eta kalteberatasunari erantzuna emateko behar diren baliabide guztiak erabiltzea.

Helburuak finkatuta, errege lege-dekretu honetan neurri hauek ezartzen dira, besteak beste: bertan behera uztea egoera larrian dauden eta nora joanik ez duten maizterrak etxetik botatzeko prozedurak, eta ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuak modu berezian luzatzea. Halaber, kalteberatasun ekonomikoko egoeran egonik errentan hartuta ohiko etxebizitzan bizi diren pertsonen errentamendu-zorrei luzamendua aplikatzeko neurriak ezartzen dira. Horren ildotik, alokairua ordaintzeko laguntzen programa bat eranstean zaio martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuari: «COVID-19ak ohiko etxebizitzaren alokairuetan daukan eragin ekonomikoa eta soziala minimizatzeko laguntzen programa». Gainera, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren arteko akordio baten bidez Estatuaren abal-lerro berezi bat sortzen da, COVID-19aren hedapenaren ondorioz kalteberak diren familiek erabili ahal izango

dutena, eta hura eskatzen duenari ez dio ekarriko inolako gasturik edo interesik ordaindu beharrik.

Bigarrenik, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak ohiko etxebizitza erosteko hipotekaren zorraren ordainketan ezartzen duen luzamendua hiru hilabetera zabaltzen da eta doikuntza teknikoak egiten dira luzamendu hori errazago aplikatu ahal izateko.

Hain zuzen ere, argi uzten da etendako kuotak ez direla likidatu beharko etendura amaitu ondoren, baizik eta horren ondoko ordainketa guztiak etendurak iraun duen beste geroratuko direla. Halaber, kalteberatasunaren muga zehazteko, «oinarrizko gastuak eta hornidurak» zer diren argitzen da: kontzeptu horren barruan, elektrizitatez, gasez, berokuntzako gasolioz edo iturriko urez hornitzeko gastuak eta telekomunikazio finkoaren eta mugikorraren zerbitzuak eragiten dituen gastuak sartzen dira; gainera, kalteberatasuna frogatzeko modua alarma-egoerak ekarritako eragozpenetara moldatzen da, eta, hala, eragozpen horiek direla-eta dokumentu batzuk ezin badira eskuratu, horiek gabe, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da. Orobat, finantza-entitateek orain arte baino informazio gehiago bidali beharko diote Espainiako Bankuari, neurri horren eragina neurtu ahal izateko eta eragiketak gainbegiratzeko eta zehapenak ezartzeko araubidea aplikatu ahal izateko. Horrela, luzamenduaren aplikazioak segurtasun juridiko handiagoa edukiko du.

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak ezartzen duen hipoteka-zorraren luzamendua pertsona fisikoen ohiko etxebizitzetarako zen hasieran, baina oraindik aurrera beste bi taldek ere aplikatu ahal izango dute: batetik, langile autonomoek, enpresariak eta profesionalak, beren jardura ekonomikoari atxikitako ondasun higiezinak dagokienez; bestetik, ondasun higiezin bat errentan utzia duten baina alarma-egoera dela-eta errentarien aldeko neurriak aplikatzearen ondorioz alokairu-errentarik jasotzen ez duten pertsona fisikoak.

Horrez gainera, toki-entitate bakoitzak gastu soziala eragiten duten prestazioetan eta inbertsioetan (finantzen aldetik jasagarriak diren inbertsioetan betiere) superabiletik zer zenbateko erabili ahal izango duen zehazten da, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 3. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz; izan ere, errege lege-dekretu horrek ezartzen du azpisektore horrentzako zenbatekoa 300 milioi eurokoa izango dela. Arau hori aplikatzeko eta Ogasun Ministerioak jarraipena egiteko, ezinbestekoa da toki-entitateek beharrezkoa den informazio guztia ematea (horretarako formularioa eranskin batean dago).

Gainera, egungo egoera zein berezia eta ezohikoa den ikusita, eta manu haren aplikazioaren inguruan sortzen diren beharrianak betetzeko gastuak presaka egin behar direnez gero, toki-korporazioen buruei ahalmena ematen zaie dekretuen bidez onar ditzaten kreditu-aldaketak: aparteko kredituak edo kreditu-gehigarriak.

Gainera, COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz herritarrak beren finantza-betebeharrei aldi batez aurre egin ezinda eta etxebizitzaren hipoteka-finantzaketari aurre egin ezinda finantza-sistematik kanpo gelditu ez daitezen, errege lege-dekretu honek kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonen hipotekarik gabeko kreditu eta maileguetara zabaltzen du luzamendua, are kontsumorako kredituetara ere.

Luzamendu berri hori 8/2020 Errege Lege Dekretuak ezartzen duen hipoteka-zorren luzamenduarekin eta errege lege-dekretu honetako alokairuaren luzamenduarekin bateratzeko, hipotekarik gabeko luzamendurako eskubidea frogatzeko araubidea doitzen da, bi helbururekin. Lehenbizi, ezartzen da ez dadila kontuan har hipoteka-zorraren edo alokairuaren luzamendua hipoteka-karga edo errentamenduaren karga diru-sarreraren % 35era iristen den kalkulatzean. Hartzekodun eta errentatzaile guztiek tratamendu zuzena jasotzea bermatu nahi da horrela. Bigarrenik, honako hauen kasuak arautu nahi dira: hipoteka-zorrik edo errentamendu-errentarik ordaindu behar ez duten baina mailegu bati edo batzuei aurre egiteko diru-sarreraren % 35 baino gehiago eman behar duten pertsonak.

Neurriaren helburua hau da: denetarikoa maileguetara zabaltzea 8/2020 Errege Lege Dekretuak hipotekarik gabeko kreditu edo maileguen kontratuak etenda behartsuenen egoera arintzeko ezartzen duena.

Laugarrenik, familien likidezia-beharrianak arindu nahi dira, eta, horretarako, gehitu egiten dira pentsio-planetan kontsolidatutako eskubideak erabil daitezkeen kontingentziak; gainera, ezartzen da pentsio-planetan metatutako aurrezkiak erabili ahal izango direla, salbuespen gisa erabili ere, COVID-19aren ondorioz abian jarritako aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batengatik langabezian geldituz gero eta norberaren konturako langileek edo langile autonomoek COVID-19aren ondorioz jardura utziz gero.

Bosgarrenik, elektrizitatearen gizarte-bonua jaso dezaketen kopurua gehitzen da: oraindik aurrera, salbuespen gisa eta aldi batez, bonu horri heldu ahal izango diote pertsona fisikoek beren ohiko etxebizitzako horniduran, baldin eta kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioa aplikatzeko eskubidea badute, IPREM erreferentziazat hartutako muga jakin batzuk gainditzen ez badituzte eta erreferentziako enpresa merkaturatzaileari frogatzen badiote langile autonomo modura izan duten jardun profesionala bertan behera utzi dutela edo fakturazioa ehuneko 75 murriztu zaiela batez beste aurreko sei hilabetearen fakturazioaren aldean.

Konfinamendu-neurriak eta mugikortasuna murriztu duten neurriek berekin ekarri dute familietako kide gehienak etxe barruan egon behar izatea aldi luze batez. Gainera, normalean etxetik kanpo egin ohi diren lan-jardura asko etxean egin behar izan dira. Horregatik, energia-hornidurak (elektrizitatea, gas naturala, petrolioaren eratorria) eta uraren hornidura ohi baino are funtsezkoagoak dira.

Horrenbestez, seigarrenik, hainbat neurri ezartzen dira alarma-egoera indarrean dagoen artean etxeetan energia-hornidurak eta uraren hornidura jasotzen direla bermatzeko. Horretarako, alarma-egoera indarrean dagoen artean ohiko etxebizitzetan ezin eten izango dira hornidura horiek, horniduraren, pertsonen eta instalazioen segurtasunagatik izan ezean, nahiz eta kontsumitzaileak sinatutako hornidura-kontratuan aukera hori ezarrita egon.

Gainera, alarma-egoera indarrean dagoen aldia ez da kontuan hartuko aurretik hornidura eteteko abiarazitako prozeduren epealdien zenbaketan.

Zazpigarrenik, etxeko langileak kontuan hartzen dira, egungo egoeran oso kalteberak baitira; izan ere, ez dute langabezia-prestazioa jasotzeko eskubiderik. Hain zuzen ere, aldi baterako aparteko sorospena sortzen da, eta honako kasu hauetan jaso ahal izango dute: COVID-19aren ondorioz jarduerarik egon ezean, lan egindako orduak murriztuz gero edo kontratua amaituz gero. Sorospenaren zenbatekoa aurretik jasotzen izan den lansariaren eta jardueraren murrizketaren arabera izango da. Enplegatzaileari murrizketaren frogagiria eskatuko zaio. Sorospen hori bateragarria izango da beste jardura batzuetan aritzearekin. Gehieneko zenbatekoa lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) izango da, aparteko ordainsaririk gabe.

COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiak beharrian berriak ekarri ditu enplegu-eskasiak eraginik, eta, gainera, lehendik ere lanik gabe egon diren pertsonen egoera kaskartu du. Bai Estatuaren langabezia-sorospenen sistemak, bai autonomia-erkidegoetako laguntza-sistemak erantzuna eman diete egoera horietako batzuei; hala ere, beharrezkoa da estaldura-esparrua zabaltzea egungo osasun-krisiaren ondoriozko lanpostu-eskasiak sortutako beharrian-egoera berriak barruan hartzeko.

Badaude pertsona batzuk egungo egoera txar honek gogor astindu dituenak eta gerta litezkeenak inolako estaldurarik gabe, ez Gizarte Segurantzarenik, ez ezein administrazio publikorenik: alarma-egoera deklaratu ondoren aldi baterako lan-kontratua amaitu zaien pertsonak. Nahiz eta 9/2020 Errege Lege Dekretuak zenbait neurri ezarri kontratuak etenez gero aldi baterako kontratuen zenbaketa ere eteteko, horrek ez du guztiz eragozten alarma-egoera deklaratu ondoren aldi baterako lan-kontratuak amaitzea honako hauen kasuan: 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan arautzen diren kontratu-eten edo lanaldi-murrizketa aplikatzearen ondorioz langabeentzako estaldura-sistemaren babesean egon ez diren pertsonak.

Pertsona horiek nola gelditzen diren ikusita, aparteko neurriekin heldu behar zaio haien egoerari, gaitz izango baitute lana lortzen osasun-krisiak irauten duen aldian. Lana amaitu eta ondorioz aldi baterako lan-kontratua azkentzen zaien langileek aparteko inguruabarrak direla-eta jaso ahal izango duten sorospenak ez dauka errenta-gabeziaren baldintzarik; horren arrazoia da ahal den heinean maila berean ezarri nahi direla pertsona horiek eta nahiz eta gabeziaren baldintza ez bete aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean sartu diren eta langabezia-prestazioa jaso ahal izan duten pertsonak. Baldintza bat bakarrik bete behar da: amaitutako lan-kontratuaren iraunaldia bi hilekoa izan behar da gutxienez. Aldi baterako lan-kontratuaren iraunaldiaren arabera lanbide-itxaropenak identifikatu daitezke eta, beraz, noizean behingo kontratu-harremanak baztertu daitezke.

2. atala. Langile autonomoei laguntzeko neurriak

Ezohiko osasun-larrialdiaren ondorioz enpresek eta langile autonomoek beren jarduna eten behar izan dute edo murrizketa handia jasan dute. Horregatik, finantza-tentsio handiari egin behar diote aurre, eta horretan laguntzeko zenbait neurri gehigarri ezartzen dira, aurretik onartutako errege lege-dekretuetan pertsona horientzat ezartzen direnez gainera.

Atal honetan ahalmena ematen zaio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari aparteko kasuetan luzamendua onartzeko Gizarte Segurantzaren kotizazioen ordainketan, salbuespen gisa. Kasu horiek eta bete beharreko baldintzak ministro-aginduen bidez finkatuko dira. Enpresei dagokienez, sortzapen-aldia 2020ko apiriletik ekainera arte izango da; langile autonomoen kasuan, ostera, 2020ko maiatzetik uztaile arte izango da. Horren ildotik, Gizarte Segurantzari zor dizkioten zenbatekoen ordainketak geroratzuta ez dauzkaten enpresek eta autonomoek eskatu ahal izango dute hari zor dizkioten zenbatekoak —2020ko apiriletik ekainera bitartean ordaindu beharrekoak— geroratzeko, interes-tasa erabat murriztuta (% 0,5).

Halaber, enpresek eta autonomoek Gizarte Segurantzarekiko kudeaketak ahalik eta errazen egin ditzaten, enpresek eta gestoriek datuak bidaltzeko sistema elektronikoa (RED) erabili ahal izango dute zorren ordainketak geroratzeko, kotizazioen ordainketak luzatzeko eta Gizarte Segurantzari bidegabe ordaindutakoak itzultzeko eskaerak eta gainerako izapideak baliabide elektronikoen bitartez egiteko.

Beste alde batetik, ezartzen da ezen jarduera eten ondoren 8/2020 Errege Lege Dekretuak jarduera uzteagatik arautzen duen prestazioa jasotzen duten langile autonomoek epez kanpo ordaindu ahal izango dituztela martxoan lan egindako egunetako Gizarte Segurantzako kotizazioak, inolako errekarurik gabe, behar den epealdiaren barruan ez badituzte ordaintzen.

Azkenik, aintzat hartzen dira ekoizpen-sektore batzuen ezaugarri bereziak —ekoizpena izaki bizidun batzuen bizi-zikloen poderioz urtaroka antolatzen diren sektoreenak, hain zuzen ere—, eta, horien arabera, Gobernuak aparteko eta presako neurriak hartzen ditu aurreko kanpainako guztirako zenbatekoa izateko abiaburuko erreferentzia, eta ez aurreko seihilekoko zenbatekoa, 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan arautzen den aparteko prestazioa jasotzeko eskubidea ematen duen fakturazio-beherakada zehaztean, ekoizpen batzuetan fakturazioa kanpaina-hil jakin batzuetan gertatzen baita.

Gainera, 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan arautzen den eta jarduera uzteagatik ematen den aparteko prestazioa jasotzen dutenek jarduera eteten badute, artikulua horretako prestazioak estaltzen ez dituen baina 2020ko martxoan lan egin den egunetako kotizazioei ez zaie aplikatuko errekarurik arauzko epealdiaren barruan ez ordaintzeagatik.

Azkenik, fakturazio-beherakada frogatzeko moduak arautzen dira. Jarduera-bolumena frogatzen duen libururik arteztu behar ez duten langile autonomoek fakturazioa gutxienez % 75 murriztu zaiela frogatu beharko dute zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabiliz.

3. atala. Kontsumitzaileak babesteko neurriak

Egunoa bezalako egoera berezietan, ezinbestekoa da kontsumitzaileek eta erabiltzaileek eskura edukitzea beren eskubideak eta babesa bermatzen dituzten baliabideak.

Horretarako, zenbait neurri hartzen dira ondasunak salerosteko eta zerbitzuak emateko kontratu hauei aplikatzeko, segidako traktukoak izan zein bestelakoak izan: alarma-egoeraren deklarazioan hartutako neurrien aplikazioaren ondorioz gauzatu ezin diren kontratuak. Kasu horietan, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek kontratua suntsitu ahal izango dute hamalau eguneko epealdiaren barruan.

Segidako traktuko kontratuetan, ez da kobratuko kuota berririk harik eta zerbitzua atzera berriz ohi bezala eman ahal izan arte; nolana ere, kontratua ez da suntsituko.

Beste alde batetik, zerbitzu batean zenbait hornitzaile aritzen badira (bidaia konbinatuetan, esaterako), kontsumitzaileak edo erabiltzaileak bi aukera edukiko ditu: dirua itzultzeko eskatu edo antolatzaileak edo txikizkako merkatariak emango dion bonua erabili. Bonua alarma-egoera amaitzen denetik urtebete pasatu baino lehen erabili beharko du. Aldi horretan erabili ezean, kontsumitzaileak dirua itzultzeko eskatu ahal izango du.

Azkenik, COVID-19 gaixotasunak ekarri duen ezohiko egoera honetan nahitaezkoa da, halaber, muga batzuk ezartzea joko antolatze eskumenen esparruan.

Hain zuzen ere, alarma-egoeraren deklarazioak herritarren mugikortasunean eta haientzako aisialdi-eskaintzan dituen ondorioak aintzat harturik, estatu osoan ari diren joko-enpresen merkataritza-komunikazioak mugatzen dira, are loteria-jokoak merkaturatzeko izendatuta dauden entitateenak ere, ausazko jokoen lineako kontsumoa ez gehitzeko (kasino-jokoak, bingoa eta pokerra, batik bat), zeinak kontsumo konpulsiboko jokabideak eta are jokabide patologikoak ere ekar baititzake, eta batez ere adingabeak, gazteak eta joko-nahasmenduren bat duten pertsonak babesteko esposizio handiko une honetan.

II. KAPITULUA

COVID-19ak sortutako zailtasun iragankorren aurrean jarduera ekonomikoari eusteko neurriak

1. atala. Industrializazioaren aldeko neurriak

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez (BOE, 2020ko martxoaren 14koa), COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zen, eta, han ezarritako aparteko neurrien ondorioz, jarduera ekonomiko asko bertan behera utzi behar izan dira edo erabat murriztu dira. Horregatik, helburu nagusitzat honako hau duten neurri batzuk ezarri behar dira: jarduera ekonomikoari eustea COVID-19aren ondorioz Espainian jasaten ari garen zailtasun iragankorren aurrean.

Lehenbizi, errege lege-dekretu honetan, industrializazioa bultzatzeko politikaren esparruko neurri batzuk ezartzen dira, enpresek beren proiektuak garatzeko behar duten likidezia edukitzea errazten jarraitzeko.

Hori dela eta, ezartzen da Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusiak emandako maileguak bi urte eta erdian birfinantzatu ahal izango direla (aldi hori luzatu ahal izango da, Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez). Gaur egun abian diren proiektuen exekuzioa ebaluatzeko irizpideak malgutzen dira, proiektuaren helburuak beteko direla bermatuta, jakina.

Halaber, CERSaren hornidura teknikoen funtsean 60 milioi euro sartzea onartzen da; asmoa da diru kopuru horren bitartez aparteko estaldura ematea jardueran COVID-19aren eragina nabaritu duten ETEen finantzaketarako eragiketa-kredituen arriskutik babesteko. Horrela, CERSak 1.000 bat milioi euroren arriskua hartu ahal izango du bere gain, eta horri esker 2.000 milioi euro mobilizatu ahal izango dira hogeit bat mila ETE eta autonomoren onurarako.

Horrez gainera, enpresa askori nazioarteratzen laguntzeko ICEXen sostenguearekin antolatutako ekitaldi asko bertan behera gelditu dira. Kasu horietako askotan galerak norberaren kontura izango dira; beraz, ICEXek antolatu eta ezinbestean bertan behera utzi behar izan diren ekitaldiengatik enpresek ordaindutako kopuruak itzuli behar izan dira. Gainera, bertan behera utzi behar izan diren nazioarteko ekitaldiei dagokienez, ICEXek laguntza gehigarriak emango dizkie enpresei, berreskuratu ezin diren gastuen arabera.

Azkenik, turismoaren arloko enpresei laguntzen jarraitu behar dugu. COVID-19ak ekarri duen krisiaren ondorioz erabat gelditu da turismoaren sektorea: pertsonen zirkulazio askea mugatu da, turismo-lekuetara bidaiatzea mugatu da (estatu barruan zein atzerrikit), eta turismo-establezimenduak itxi dira (ostatuak, jatetxeak eta balio-kateko beste enpresa batzuk), besteak beste.

Turismo-enpresen likidezia eta, ondorioz, bideragarritasuna bermatu nahirik, urtebetez eteten da Turismoko Idazkaritza Nagusiak Emprendetur I+G+b programaren, Emprendetur Gazte Ekintzaileak programaren eta Emprendetur Nazioarteratzea programaren esparruan emandako maileguen interesen eta amortizazioen ordainketa, inolako zehapenik gabe.

COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiak eragindako abagune ekonomikoak are gehiago eragotz dezake konkurtsoan dauden enpresen bideragarritasuna, eta horrek hitzarmen bat sinatu edo bete ezin izatea ekar dezake, eta, ondorioz, enpresa likidatu behar izatea, edo zaildu egin dezake bideragarria izan litekeen ekoizpen-unitate bat besterentzea. Horregatik, bada, ezinbestekoa da enpresa horiek ABEEE bati heldu ahal izatea COVID-19aren ondoriozko egoera batek kalte egiten dienean. Horrenbestez, 8/2020 Errege Lege Dekretuan ABEEEtarako arautzen diren onurak baliatuz enpresa horiek bideragarri izateari ez uztea lor liteke; hona onura horiek: COVID-19aren ondoriozko egoerak kalte eginez gero, halako espediente bati heldu ahal izatea; izapideak azkarrago egitea, ia-ia berehala, espedientea ezinbestekoa izanez gero; langabezia-prestazioa berrezartzea; eta, espedientea ezinbestean eginez gero, salbuespena lortzea (partziala edo osoa, kasuan kasukoa langileen kopuruaren arabera).

Ordainetan, neurri horien onurei konkurtsoan egonik bideragarriak diren enpresek bakarrik heldu ahal izatea ziurtatu nahi denez gero, berariaz adierazten da seigarren xedapen gehigarria aplikatu daitekeela, lanpostuak babesteari buruzkoa; beraz, neurriko aplikatuko badira, konpromisoa hartu beharko da jarduerari berriz ekiten zaionetik zenbatu beharreko sei hileko aldi lanpostu guztiei eusteko.

III

2. atala. *Malgutasuna ETEen eta autonomoen horniduretan*

Alarma-egoerak berekin ekarri dituen mugikortasuna eta jardura ekonomikoa murrizteko neurrien ondorioz, enpresa-, merkataritza- eta industria-establezimendu asko itxi behar izan da aldi baterako.

Horregatik, ezinbestekoa da kontsumitzaileen esku jartzea elektrizitatearen hornidura malgutzeko mekanismoak, aldi baterako, alarma-egoera indarrean dagoen artean, hornidura-kontratu horiek kontsumo-joera berrietara moldatu ahal izateko.

Horrenbestez, langile autonomoak eta enpresek aldi baterako eten ahal izango dituzte beren hornidura-kontratuak edo beren kontratuen modalitateak aldatu ahal izango dituzte inolako zigorrik jaso gabe; horrez gainera, sareetara sartzeko bidesariak aldatu ahal izango dituzte eta kontratatutako potentzia gora zein behera doitu ahal izango dute inolako kosturik gabe. Alarma-egoera amaitu ondoren berriz ere kontratua aldatu ahal izango dute kosturik eta zigorrik gabe.

Alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz erabat murriztu da jardura ekonomikoa, eta horrek eragin du gas naturalaren hornidura-puntu askoren titularrek kontratatuta daukaten eguneko emaria gaur egun behar dutena baino askoz handiagoa izatea.

Horregatik, ekoizpen-jardura eta, beraz, gas naturalaren beharrezko murriztu diren hornidura-puntuen titularren kostu finkoak ahalik gehien gutxitzea lortu nahi da, eta, horretarako, ezinbestekoa da ahalik azkarren ezartzea mekanismo bat hornidura-puntuan

kontratututako ahalmena benetako beharizanetara egokitzeko, sarera sartzeko bidesari-tartea aldatzeko edo hornidura-kontratua aldi batez eteteko inolako kosturik gabe.

Alarma-egoerak berekin ekarri dituen mugikortasuna eta jarduera ekonomikoa murrizteko neurrien ondorioz enpresen fakturazioa gutxituko da, eta horrek likidezia-larrialdiak ekarriko ditu, jardunaren kostu finkoei ohi bezala aurre egin behar diete eta.

Langile autonomoen eta ETEen finantzaketa-ahalmena enpresa handiena baino txikiagoa da. Horregatik, egokia da haien kostu energetikoak murrizteko neurriak ezartzea, aldi batez jasan beharko duten finantza-zama arintzeko.

Horregatik, mekanismo bat ezartzen da elektrizitatearen, gas naturalaren eta petrolioaren produktu eratorri batzuen hornidurarako kontratua sinatua dutenek aldi batez ez ordaindu behar izateko fakturarik elektrizitatea edo gasa merkaturatzen duen enpresari edo manufakturatutako gasak eta kanalizatutako petrolio-gas likidotua (PGL) banatzen dituen enpresari. Orobat, ez da bidezkoa enpresa merkaturatzaileek bidegabeko diruzaintza-zamarik jasatea, eta, horregatik, fakturen ordainketa etenda dagoen aldian enpresa horiek salbuetsita egongo dira konexio-bidesariak eta kontsumo horien gaineko zeharkako zergen likidazioa ordaindu behar izatetik.

Gainera, neurri horrek elektrizitatea eta gasa merkaturatzen dituzten enpresei, manufakturatutako gasak eta kanalizatutako PGL banatzen dituzten enpresei eta elektrizitatea eta gas naturala banatzen dituzten enpresei ezartzen dien finantza-zama arindu nahian, enpresa horiei guztiei aukera ematen zaie martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 29. artikuluan ezartzen duen abal-lerroa erabiltzeko, edo helburu horretarako berariaz gaitzen den beste edozein abal-lerro erabiltzeko. Abalaren zenbatekoa neurriaren ondorioz agenteak diru-sarreretan izan duen beherakadaren bestekoa izango da.

Beste alde batetik, urtarilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretuak (haren bidez gasolinen, gasolioen, fuel-olioen eta petrolio-gas likidotuen zehaztapenak ezartzen dira eta bioerregai batzuen erabilera eta itsasoan erabiltzen diren erregaiei sufre kopurua arautzen dira) automozioiko gasolinen zehaztapenak ezartzen ditu, eta horietako batzuk (lurrun-presioa eta 70°C-ko lurrunketa, esaterako) ez dira berak izaten neguko denboraldian eta udakoan (udakoa maiatzaren 1ean hasiko da). Nolanahi ere, bai Europar Batasuneko arautegian bai aurrean aipatutako errege dekretuan ezartzen denez, ezohiko gertakariak direla eta, baimena eman liteke erregaiei ezaugarri batzuen gehieneko mugak gainditzeko.

Alarma-egoera deklaratu ondoren, gasolinen eskaria inoiz ez bezala jaisten ari da, eta, horren ondorioz, biltegi-tangak uste baino motelago ordeztzen ari dira. Horren guztiaren eraginez negurako zehaztapenen arabera izakinak ez dira kontsumituko 2020ko maiatzaren 1erako, hau da, udako zehaztapenak betetzen dituzten gasolinak merkaturatzen hasten direnerako. Erronka logistiko hori ikusita, aparteko aldia ezartzen da, 2020ko maiatzaren 1etik ekainaren 30era arte: aldi horretan, lurrun-presioa eta destilakina udako gutxieneko balioaren eta neguko gehieneko balioaren artean dauzkaten gasolinak merkaturatu ahal izango dira.

Ikus-entzunezko zerbitzuek berebiziko garrantzia duten bi egiteko dauzkate, COVID-19aren ondoriozko osasun-krisian are garrantzitsuago bihurtu direnak. Batetik, herritarrek informazioa jasotzeko eta Espainiako gizartearen iritziak adierazteko oinarritzko bideak dira. Eta, bestetik, eta aurrekoaz gainera, aisialdiko zerbitzuak eta entretenimendu-zerbitzuak ematen dizkie Espainiako herritarrei, eta hori inoiz baino garrantzitsuagoa da etxean bakartuta bizi garen aldi honetan.

Ikus-entzunezko zerbitzuak ematen dituzten enpresei, eta doan ematen dituztenei batez ere, COVID-19ak ekarri duen osasun-krisi honetan zerbait bitxia gertatzen zaie: alde batetik, konfinamendu-neurrien eraginez ikusle gehiago dauzkate, baina, beste batetik, krisia hasi zenetik beherakada handia izan dute diru-sarreretan, jarduera eten edo moteldu zaien enpresek publizitate-kanpainak bertan behera utzi dituztelako batik bat. Zerbitzu hori funtsezkoa da gizarte demokratiko ororentzat, eta are gehiago Espainiako herritarrentzat egungo krisialdi honetan. Horregatik, bada, enpresa horiek jardunean segitzen dutela bermatu behar da, eta, horretarako, errege lege-dekretu honetan aparte eta aldi baterako neurri hau ezartzen da: aldi baterako konpentsazioa estatu osoan tokiko lurreko telebista

digitalaren zerbitzua nahitaez emateak eragiten dituen gastu batzuentzat. Konpentsazio horren helburua da zerbitzu hori ematen duten enpresek likidezia handiagoa edukitzea eta horri esker funtsezko zerbitzu hori behar bezala eman ahal izatea.

Sektore Elektriakoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legeak zortzigarren xedapen iragankorrean ezartzen duenarekin bat etorriz, lege hori indarrean ipini aurretik sare elektrikoetara sartzeko eta haiekin konektatzeko baimenak iraungi egingo dira, baldin eta 2020ko martxoaren 31rako ez bada lortzen baimenarekin lotutako sorkuntza-instalazioa ustatzeko baimena. Mugaegun hori aldatu egin du martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan ezarritako etendurak; gainera, errege dekretu horren arabera, alarma-egoera amaitu ondoren berriro ekingo zaio epealdiak zenbatzeari. Hala ere, segurtasun juridikoa ziurtatu behar zaie bai aipatutako baimenak edukita elektrizitatea sortzeko proiektua sustatzen dutenei (kontuan edukita proiektu horiei lotuta daudela energia berriztagarri berriak ezartzeko helburuak betetzeko ezinbestekoak diren inbertsio handiak), bai sare elektrikoetara sartzeko eta haiekin konektatzeko baimenak emateko ardura duten sare elektrikoaren kudeatzaileei, eta, horretarako, ezartzen da baimen horien indarraldia bi hilabete luzatuko dela alarma-egoera amaitzen denetik, eraginpeko subjektuek egoera berrira egokitzeko astia eduki dezaten.

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak seigarren xedapen gehigarrian arautzen duen konpromisoa honela ulertu behar da: enpresak borondatea izatea lanpostuak sei hilabete mantentzeko COVID-19aren ondorioz lanaldiak murrizteko edo kontratuak eteteko aplikatutako neurrien indarraldia amaitzen denetik.

Azken xedapenetako batean azaltzen den bezala, konpromiso hori betetzean eta egiaztatzean, enpresaren edo dagokion sektorearen ezaugarriak eta inguruabarrak eduki beharko dira kontuan, batez ere enpleguaren urtarokotasuna edo aldakortasuna, eta gertaera edo ekitaldi jakin batzuekin edo sektorearen ezaugarri berezi batzuekin (esaterako, arte eszenikoetako, musikako, zinemako eta ikus-entzunezkoetako bereizgarriekin) daukan lotura ere bai. Halaber, aplikatu beharreko lan-arloko arautegia ere kontuan eduki beharko da.

Horrenbestez, konpromisoa ez da urratutzat joko lan-kontratua azkentzen denean bidezkoztat jotako diziplinazko kaleratzeagatik, langilearen dimisioagatik, heriotzagatik, erretiroagatik edo ezintasun iraunkor osoagatik, absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik. Aldi baterako kontratuetan, konpromisoa ez da urratutzat joko kontratua azkentzen denean hitzartutako indarraldia amaitzeagatik, haren xedea (obra edo zerbitzua) betetzeagatik edo kontratuaren xede den jarduera berehala ezin egin izateagatik.

IV

III. kapituluari, sektore publikoaren arloko neurri batzuk ezartzen dira osasun-krisiari eta beraren ondorioei aurre egiteko prozedurak errazteko eta malgutzeko.

Lehenbizi, neurri batzuk biltzen dira Estatuaren sektore publikoko entitateek 2019. urteko kontuak egiteko eta emateko epealdiak eta Estatuaren Kontu Orokorra Kontuen Auzitegira bidaltzeko epealdiak alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz eteteari buruz. Neurri horiek tokiko sektore publikoan aplikatuko dira (toki-entitateen urteko kontuen izapideen epealdiei eragingo diete), eta autonomia-erkidegoetako sektore publikoan ere aplikatu daitezke, osagarri gisa.

Bigarrenik, sektore publikoko baliabide likidoen eta dohaintzen inguruko neurriak aurreikusten dira.

COVID-19ak Espainian eragin duen osasun-krisiak inoiz ez bezalako tentsioa sortu du Estatuako aurrekontu orokorretan; horren ondorioz ustekabeko eta ezinbesteko gastu handiei egin behar izan zaie aurre, eta gastuok ezin dira sartu 2018az gero luzatuta dauden aurrekontuetan.

Beraz, baliagarri dauden finantza-bitarteko guztiak behar dira, are Estatuako sektore publikoko organismo autonomoen eta beste entitate batzuen baliabide likidoak ere.

Hirugarrenik, toki-entitateek emandako finantzaketaren inguruko neurriak ezartzen dira.

Enpresek aspaldion diru-sarreretan izan dituzten galerak eta COVID-19a gelditzeko hartu behar izan diren neurriak kontuan hartuta, gerta liteke autonomia-erkidegoekin eta toki-entitateekin hartutako zorrak kaudimengabezia larria sortzea enpresei, eta, ondorioz, hornitzaileei zorrak ez ordaintzea, langileak multzoka kaleratzea eta zeharkako beste ondorio batzuk ere izatea, ondorio larriak larriagotzea ekar lezaketenak Espainiaren ekonomiarako.

Horregatik, aparteko neurriak hartzen dira osasun-krisiak kalte egindako enpresei eta langile autonomoei autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek emandako maileguak itzultzeko epealdiak geroratzeko.

Laugarrenik, behar-beharrezkoa da ekonomiaren eta finantzen arloetako informazio egokia, sendoa eta ondo eguneratua edukitzea, modu egokian ebaluatu ahal izateko nolako eragina edukiko duten ezartzen diren jarduketek aurrekontuetan; halaber, ondo oinarritutako informazioa beharko da etorkizunerako erabakiak hartzeko. Horrenbestez, ekonomiaren eta finantzen arloetako informazioa emateko betebeharrak sendotzen dira, Ogasun Ministerioak malgutasun handiagoa eta eskumen gehiago eduki ditzan bere edukiak, prozedurak eta bidalketa-epealdiak zehazteko.

Europar Batasuneko Aduana Kodea ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EB) Erregelamenduak 112. artikuluan arautzen duenaren arabera, zordunari erregelamenduan bertan ezartzen direnez beste erraztasun batzuk eman dakizkioke ordaintzeko, are interesak ordaintzeko dispensa ere. Hori kontuan edukita, egokitzen jotzen da neurri hori aduanen esparrura hedatzea, egungo egoera eta egoerak berak kanpo-merkataritzan daukan eragina aintzat hartuz; hori dela eta, zerga-zorren gerorapen mota hori aduanen esparruan aplikatzeko modua arautzen da.

Azkenik, COVID-19ak sortu duen ezohiko egoerak eragozpenak sor ditzake zergen arloko prozeduretan betebeharrak eta izapide jakin batzuk betetzeko autonomia-erkidegoekin eta toki-entitateekin harremanetan jartzen diren zergapekoentzat; hori dela eta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 33. artikuluan ezartzen diren neurrien aplikazio-eremua zabaltzen da, eta errege lege-dekretu horretan aipatzen diren zerga-arloko jarduketak eta prozedurak bezalako batzuk sartzen dira: autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren eta hura garatzeko erregelamenduen aplikazio-eremuaren barruan egiten edo izapidetzen dituztenak. Gainera, toki-entitateei dagokienez, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina aplikatzen zaien prozedurak ere sartzen dira neurrien aplikazio-eremuan (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

Halaber, epeak luzatzea arautzen da, egoera jakin batzuetan eta prozedura jakin batzuetan errekursoak eta erreklamazioak jartzeari dagokionez. Luzamendu horiek Estatuan, autonomia-erkidegoetan eta toki-entitateetan aplikatuko dira. Era berean, berariaz onartzen da zerga-zorrak ordaintzeko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 33. artikuluan ezartzen diren epealdien luzapenak gainerako zor publikoei ere aplikatzen zaizkiela.

Azkenik, zenbait arau aldatzen dira.

Lehenik eta behin, azken xedapenetako lehenean martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 4.3 artikulua aldatzen da; artikulua horretan ezartzen da ontziratutako PGLaren prezio arautuak eta gas naturalaren azken baliabideko tarifa eguneratzeko sistemen indarraldia hiru bihileko eta bi bihileko etengo dela, eta etenduraren babes-klausula eransten da. Martxoan Brent upelaren prezioak nabarmen behera egin du; bada, hori bi prezio arautuak zehazteko funtsezko elementuetakoa denez gero, bi energia-mota horien kontsumitzaileak ahalik eta gehien babestea erabaki da, eta, horretarako, prezio berria gaur egun indarrean dagoena baino txikiagoa bada, bi prezio arautuak eguneratu ahal izango da.

Bigarrenik, azken xedapenetako bigarrenak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du. Pandemiak agerian ipini du beharrezkoa dela toki-entitateen jardun demokratikoa eta eraginkorra bermatzeko neurriak hartu ahal

izatea ezinbestean, talde-arrisku handiagatik edo hondamendi publikoagatik gertatzen diren krisialdi larrietan.

Hirugarrenik, azken xedapenetako zazpigarrenak 9/2017 Legea aldatzen du (azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen; haren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), zerbitzu-kontratuaren iraunaldiari salbuespena ezartzeko inguruabar jakin batzuk gertatzen direnean.

Gainera, oinarritzat hartzen da abenduaren 21eko 25/2018 Errege Lege Dekretua, ikatz-meatzaritzaren trantsizio zuzenerako eta meatze-eskualdeen garapen jasangarriko neurriak ezartzen dituen, neurri haiei esker 2019az gerora luzatu baitzen meatzaritzaren ondorioz narriatutako zonak zaharberritzeko estatu-laguntzen politika, bai eta lehiakorrak ez diren meatzeak desagertzearekin lotutako gizarte-laguntzak ere, eta horren ildotik Estatuaren Hulleras del Norte SA EMS (HUNOSA) enpresa publikoaren araubide juridikoa ezartzen da. Orobat, baliabideak hobetu beharrez, Estatuaren Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala-Diruaren Errege Etxea enpresa-entitate publikoaren araubide ezartzen da, berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko gisa.

Halaber, ezartzen da enplegatu publikoek beren borondatez lagundu ahal izango dutela beren lanpostuari ez dagozkion lanetan eta jardueretan, beren egoera administratiboa, ordainsariak eta lan-baldintzak aldatu gabe, osasunaren arloan, gizarte-osasunaren arloan, enpleguaren arloan, herritar-talde kalteberak babesten eta COVID-19aren ondoriozko egoerari aurre egiteko langile gehiago behar diren gainerako ataza guztietan. Aukera hori lantokian bertan zein etxetik lan egiteko balia daiteke. Gainera, enplegatu publikoek berena ez den beste administrazio batean ere jardun ahal izango dute lanean, beren egoera administratiboa aldatu gabe, ez eta beren administrazioarekiko lotura ere (berak ordainduko ditu lansariak orduan ere).

Azkenik, koronabirusaren pandemiak sortutako egoera dela eta, hemeretzigarren xedapen gehigarrian ezartzen da Gobernuak berariazko plana onartuko duela lan-arloko jurisdikzio-ordenan eta administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenan eta merkataritza-arloko epaitegietan esku hartzeko. Izan ere, pentsatzekoa da jardun judizialaren esparru horietan auziak asko gehituko direla laneratzeen, ondare-erantzukizuneko erreklamazioen, konkurtso-deklarazioen eta kontsumitzaileen erreklamazioen gorakadaren ondorioz.

Beste alde batetik, errege lege-dekretu honen hamabigarren xedapen gehigarrian ezartzen da luzatu egingo direla Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoarekin bat etorritik egindako laguntzaileen kontratuak, doktore diren irakasle laguntzaileenak, irakasle elkartuenak eta irakasle bisitarienak, alarma-egoerak irauten duen beste (eta alarma-egoeraren luzapenak beste, halakorik egonez gero). Aparteko kasuetan, arrazoiak frogatuta, kontratua amaitu aurretik alderdiek beste luzapen bat adostu ahal izango dute, hiru hilabete gehiagokoa gehienez. Batean zein bestean, luzapenean abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan ezartzen den kontratuaren mugaeguna gainditu ahal izango da.

Unibertsitate-irakasleen kidegoetako plazak betetzeko prozesuak bertan behera geratu dira, horretarako lehiaketak ezin izan baitira antolatu eta aurrera eraman, pertsonen zirkulazio librea mugatuta hautaketa-batzordeen bilera publikoak egiterik izan ez dela eta. Eta luzapen horren bidez, hain zuzen ere, prozesuok bertan behera geratzeak kolektibo horri kalte ez egitea lortu nahi da. Egoera honetan, unibertsitate-irakasle horiek galdutan ateratzen dira, gerta bailiteke duten kontratuaren legezko iraunaldia amaitzea beste kontratu bat eskuratzeko aukerarik eduki gabe; izan ere, hori gertatuz gero, ezin izango lirateke aurkeztu beste deialdi batzuetan, eta egoera normalean, aldiz, bai.

Errege lege-dekretu honen hamahirugarren xedapen gehigarrian berariazko arauak ezartzen dira ikerketaren arloko giza baliabideen deialdi publikoen kargura finantzaturik Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Sistemaren finantzaketa-agenteei egiten dituzten iraupen jakineko lan-kontratuak aplikatzeko.

Arau horiek haxe bermatu nahi dute: martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaritzen duen alarma-egoeraren ondorioz eta haren luzapenen ondorioz halako kontratuak gauzatzeko sortu diren zailtasunek ez eragozteko hala kontratatutako ikerlariak

lanean behar bezala aritzea kontratuen iraunaldi osoan; izan ere, arau bidez aukera ematen da kontratu horien iraunaldia luzatzeko, amaitzeko urtebete edo gutxiago falta dela.

Horri esker, Espainian funts publikoen kargura finantzatzen den ikerkuntza-sarea babestuko da, eta, horrela, I+G+b jardunak, zeina osasun-larrialdi honetan ezinbestekoa baita, ez du kalterik jasango alarma-egoeraren deklarazioaren eraginez; gainera, halako kontratua duten ikerlariek lanean jarraituko dute beren proiektuetan, are SARS-CoV-2 eta COVID-19 gaixotasunaren inguruko ikerkuntzarekin lotutako espezialitateetan ere. Horren ildotik, nabarmendu beharrekoa da egungo osasun-larrialdiari aurre egiten laguntzeko asmoarekin Osasun Sistema Nazionalan sartu diren ikerlarien kontratuak luzatu ahal izango direla.

Beste alde batetik, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko giza baliabideen eta bitartekoen arloko neurriak ezartzen dituen martxoaren 15eko SND/232/2020 Agindua laugarren atalean ezartzen da bateragarriak direla erretiro-pentsioa jasotzea eta erretirata dauden osasun-langileak estatutupeko langile izendatzea.

Horren ildotik, hamabosgarren xedapen gehigarriaren bitartez bermatzen da aurreko bateragarritasun hori bat datorrela Gizarte Segurantzaren ordenamendu juridikoak horretaz finkatzen dituen arauekin. Xedapen horrek arautzen du nola gauzatu behar den bateragarritasun hori, norainokoa den gizarte-babesa eta nola egin behar dituzten kotizazioak enpresariak eta langileak bateragarritasun-araubide horretan dauden artean.

V

Osasun-krisiaren bilakaera nolakoa den aintzat hartuta, ezinbestekoa da 8/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez ezarritako neurrien indarraldia luzatzea, gaixotasunaren hedapenak ekonomian eta gizartean daukan eragina arintzeko, orain ere lehentasuntzat edukita zuzenean gehien kaltetutako familiak, autonomoak eta enpresak babestea. Horretarako, 8/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako hamargarrena aplikatuz, III. kapituluaren txertatutako azken xedapenetako hamabigarrenean ezartzen da berariaz luzatzen dela ezarritako neurri guztien indarraldia, haien xedea eta izaera kontuan hartuz.

Kapitulu honetan, halaber, 8/2020 Errege Lege Dekretuan ezartzen diren neurrietako batzuk indartzen dira (kanpoko inbertsioen kontrolari buruzkoak eta komunikazio elektronikoetan kontsumitzaileak babestearen ingurukoak, esaterako), batetik, eta, bestetik, neurri berriak ezartzen dira Espainiako finantza-sistemak merkatuen gorabeheren aurrean daukan sendotasuna areagotzeko.

Kanpoko inbertsioen kontrola indartzen da; gainera, inbertsio horiek izapidetzeko prozedura azkar bat ezartzen da, eta abian diren inbertsioetarako mekanismo iragankor bat ere bai.

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrienak, kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoa aldatu zuen azken xedapenetako laugarrenean, 7 bis artikulua erantsiz araubide hori arautzen duen legeari, uztailaren 4ko 19/2003 Legeari. Izan ere, ezinbestekoa zen ahalik azkarren ezartzea kanpoko inbertsio jakin batzuk egiteko aldeztetik baimena lortzeko mekanismoak, eragotzi behar baitzen atzerriko enpresek Espainiako enpresak eskuratzea COVID-19aren ondoriozko krisialdi globalaren eraginez haien balioa jaitsi zela baliatuz. Horretan oinarritzen zen aldaketa.

Orain, beharrian horrek berak beste aldaketa batzuk eragiten ditu uztailaren 4ko 19/2003 Legean. Batetik, zabaldu egiten da Espainian atzerriko zuzeneko inbertsio jakin batzuk liberalizatzeko araubidearen etendura —aipatutako 7 bis artikuluan ezarria— aplikatzeko esparrua Espainiako sektore estrategiko nagusietan, segurtasun publikoagatik, ordena publikoagatik eta osasun publikoagatik, eta oraindik aurrera etendura hori egoitza Europar Batasunean edo Europako Merkataritza Askearen Elkartean duten inbertsiogileek egiten dituzten inbertsioei ere aplikatuko zaie, baldin eta inbertsiogilea egoitza lurralde-eremu horretatik kanpo daukan entitate baten kontrolpean badago. Horrez gainera, kanpoko inbertsioak egin aurreko baimena eskatzen den kasu batzuetan azkartu egin

behar da izapideen eta ebazpenaren prozedura, eta, horretarako, errege lege-dekretu honen bigarren xedapen iragankorrean prozedura-araubide iragankor bat ezartzen da 19/2003 Legearen 7 bis artikulua berria indarrean jarri denean abian ziren eragiketarako eta milioi bat eta bost milioi euro arteko eragiketarako; milioi bat eurotik beherako eragiketak egiteko, ez da beharko baimenik.

Erabiltzaileen joan-etorriak gutxitzeko asmoarekin, 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 20. artikuluan ezarri zen etenda gelditzen zirela komunikazio elektronikoen zerbitzuak kontratatzeke ezohiko merkataritza-kanpainak baldin eta zenbakia aldatu beharra eragiten bazuten. Horrez gainera, zenbakiak aldatzeko eragiketa guztiak eten ziren, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Nolanahi ere, zenbakia aldatzeko eragiketa guztietan ez da beharrezkoa bezeroen arretarako zentrorra edo erabiltzailearen etxera joatea, eta, horregatik, artikulua hori aldatzen da eta ezartzen da operadoreak edo haien agenteak edo erabiltzailea bertaratzea beharrezkoa denean bakarrik etengo dela zenbakia aldatzeko eragiketa, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Gainera, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa indartzen da, ezartzen baita horiek ordaindu beharreko tarifetan ezin zenbatu izango dela etenduraren eraginez komunikazio elektronikoen zerbitzuen enpresa hornitzailea aldatzeko eskatu ezin duten aldia.

Halaber, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da, zuzenketa txiki batzuk egin behar baitira Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren aurrekontu-aplikazioen zehaztapenean eta argitu behar baita laguntzen onuradun izan daitezkeela zuzenbide publikoko erakundeak eta entitateak, unibertsitateak eta Osasun Sistema Nazionaleko eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemako entitateak.

Beste alde batetik, Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroa (CDTI) sartzen da enpresa-sektorerako bere osoan (ETEak, kapitalizazio ertaineko enpresak eta enpresa handiak) laguntzak eta ekarpenak azkartu ditzaketen subjektuen artean, pandemiaren kontrako borrokan enpresen berrikuntza sustatzeko eta garai honetan Espainiako enpresa-sarearen jardun egokia bermatzeko. Horrela, prototipoen garapena azkar finantzatu ahal izango da, eta larrialdikotzat jotzen diren osasun-produktuak industrializatu ahal izango dira.

Halaber, 9/2017 Legea aldatzen da (azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuak buruzkoa, zeinaz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora) eta kasu jakin batean aplikatuko den salbuespena ezartzen zaio zerbitzu-kontratuen iraunaldiari.

Zehazki, garbiketa- eta segurtasun-kontratuak erabat edo partzialki etetea baimentzen da, baldin eta eraikinak edo instalazioak guztiz edo partzialki itxita geratzen badira eta ondorioz kontratistak ezin baditu zerbitzuak eman.

34. artikulua aplikatzeari dagokionez, kontratu publikotzat honako hauek baino ez dira joko: baldintzen orrien arabera Sektore Publikoko Kontratuen Legea edo kanpoan utzitako sektoreen legea aplikatzen zaien horiek.

Soldata-gastuetan, Gizarte Segurantzako kotizazioei dagozkien gastuak sartzen dira, 34. artikuluan ezartzen dena betetzeko.

Lan-arloan Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legean xedatutakoaren arabera, Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistemaren finantzaketa-iturrietako bat enpresek eta langileek ematen duten lanbide-heziketako kuotatik datozen funtsak dira. Hala, urte bakoitzeko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezartzen da lanbide-heziketako kuota Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema finantzatzeko erabiliko dela eta, beraz, diru-sarrera horiek ezin direla aplikatu beste helburu batzuetarako.

Hala ere, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko onartutako neurriek ekonomian eduki duten eragina kontuan edukita, lotura hori aldatzen da. Horrenbestez, lanbide-heziketarako kotizaziotik datozen diru-sarrerak langabezia-babeseke sistemaren edozein prestazio eta ekintza finantzatzeko aplikatu ahal izango dira; beraz, enplegurako lanbide-heziketa hutsa baino helburu zabalagoak edukiko dituzte.

Gaur egun osasunean, gizartean eta ekonomian dugun krisialdian are garrantzitsuagoa da banku-fundazioen gizarte-ekintza. Horregatik, eta gizarte-ekintza hori bermatzeko asmoarekin, 26/2013 Legea (abenduarien 27koa, aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzkoa) aldatzea proposatzen da, bi urtez luzatzeko kreditu-entitateetan partaidetza nagusia duten banku-fundazioentzat ezarritako desinbertsio-aldia.

35/2003 Legea (azaroaren 4koa, inbertsio kolektiboko entitateei buruzkoa) aldatzen da eta berariaz ezartzen da Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak likidezia indartzeko neurriak eskatu ahal izango dizkiela inbertsio kolektiboko entitateen sozietate kudeatzaileei; izan ere, neurri horien xedea izan behar da aurreabisuak egiteko epealdiak ezartzea inbertsio kolektiboko entitateen sozietate kudeatzaileek muturreko kasuetan modu ordenatuan eta ekitatiboan kudeatu ahal izateko itzulketa-eskaerak, eskaera horiek metatzeak eragin txarra eduki bailezake finantza-sistemaren egonkortasunean eta harekiko konfiantzan. Horrela, bada, makrozuhurtziako beste tresna bat gehitzen da; tresna hori AMCESFiri jakinarazteko betebeharren mende egongo litzateke (betebehar horiek martxoaren 1eko 102/2019 Errege Dekretuak ezartzen ditu, Finantza Egonkortasunerako Kontseilua makrozuhurtziako agintaritza sortzen, haren araubide juridikoa ezartzen eta makrozuhurtziako tresnei buruzko zenbait alderdi garatzen dituenak, 16. artikuluan).

VI

Azkenik, Espainiako udalerri batzuk egoera berezian daude, konfinamendu zorrotzagoa baitute ezarria: herritarrak ezin dira irten udalerritik kanpora, egin daitekeen jarduera ekonomiko bakarra funtsezkotzat jotzen diren zerbitzuena da eta besteren konturako eta norberaren konturako langileak ezin dira joan udalerritik kanpoko lantokietara martxoaren 12az gero. Hori guztia ikusita, ezinbestekoa da neurri batzuk ezartzea argitzeko nola aplikatu behar den aldi baterako ezintasunaren prestazioa 6/2020 Errege Lege Dekretuan ezartzen denarekin bat etorritz.

Neurri ekonomikoak errege lege-dekretuen bidez hartzearen alde egiten du Konstituzio Auzitegiak, baldin eta esplizituki eta arrazoituz justifikatzen badira, bai beharra (halakotzat hartuta abagune ekonomikoak erantzun azkarra eskatzen duela), bai presa (halakotzat ulertuta dena delako neurria araubide arrunt baten bidez izapidetzeko denboran atzeratzeak kalteren bat sor dezakeela). Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baldin eta presako legegintza justifikatzen duen helburua honako hau bada, gure Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz eskatu duen bezala (otsailaren 4ko 6/1983 epaia, 5. oinarria; urtarrilaren 17ko 11/2002 epaia, 4. oinarria; uztailaren 3ko 137/2003 epaia, 3. oinarria, eta uztailaren 7ko 189/2005 epaia, 3. oinarria): Gobernuaren helburuen barruan, egoera jakin bati aurre egitea, zeinak eskatzen baitu, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik, arau bat egitea berehala, legeak Parlamentuan izapidetzeko erabiltzen den ohiko bidean edo presako prozeduran baino epe laburragoan. Eta errege lege-dekretua baliatzea are zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Nazioarteko pandemiaren deklarazioaren ondorioz eta alarma-egoeraren deklarazioaren indarraldia luzatuta gure herrialdea zer egoeratan dagoen ikusita, agerikoa da aparteko eta presako beharrez dagoela zenbait neurri hartzeko. COVID-19a geldiarazteko eta hari aurrea hartzeko egoera honetan, presakoa eta nahitaezkoa da epidemia etetea eta haren hedapena eragozteko osasun publikoa babesteko; horrez gainera, neurri ekonomikoak eta sozialak hartu behar dira epidemiak herritarrengan —batez ere, herritar-talderik kalteberenengan— eta eragile ekonomikoetan —baita sektore publikoan bertan ere— dituen ondorioei aurre egiteko.

Halaber, errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presazko beharrezana judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mende dago, eta horiek Gobernuari dagozkio (Konstituzio Auzitegiaren 61/2018 epaia, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014 epaia, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa), eta erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa), segurtasun juridikoan eta osasun publikoan oinarrituz betiere.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz, errege lege-dekretu hau araubide onaren printzipioetara egokitzen da.

Hala, premiaren eta eraginkortasunaren printzipioei jarraikiz, ekimenaren oinarria interes orokorra da, hau da, COVID-19aren ondoriozko osasun publikoaren krisiak eragin duen ezohiko egoera sozial eta ekonomikoari erantzutea. Eta hau da unea beharrian horiek betetzeko neurri gehigarriak hartzeko, eta errege lege-dekretua da hori lortuko dela bermatzeko tresnarik egokiena.

Arau hau bat dator proportzionaltasunaren printzipioarekin, helburuak (herritarren ongizatea bermatea eta larrialdiak ekonomian edukiko duen eragina ahalik txikiena izatea) lortzeko ezinbestekoa den erregulazioa baino ez baitu ezartzen.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioarekin ere bat dator, Europar Batasuneko Zuzenbidearen eta gainerako ordenamendu juridikoaren ildotik jotzen baitu, politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidariei jarraikiz.

Gardentasunaren printzipioari dagokionez, alde batera uzten dira kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legeak 26.11 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.

Azkenik, efizientzia-printzipioa dela eta, errege lege-dekretu honek ezartzen dituen administrazio-zama guztiak justifikatuta daude eta izan litezkeen txikienak dira, proportzionalak izateaz gainera, egungo egoera kontuan edukita eta ezartzen diren neurrien aplikazioan eraginkortasunaren printzipioa bermatu behar dela aintzat harturik.

Beraz, errege lege-dekretu honetako neurri guztiek betetzen dute, oro har eta banan-banan, beren izaera eta xedea ikusirik, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko errege lege-dekretu bat onartu ahal izateko eskatzen duen aparteko eta presako beharrianaren baldintza.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluen 1., 10., 13., 14. eta 18. puntuetan xedatzen denaren babesean eman da. Horiek eskumen eskusiboa ematen diote Estatuari honako arlo hauek arautzeko: konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzak; aduana eta arantzelen araubidea eta kanpo merkataritza; jarduera ekonomikoaren oinarriak eta koordinazioa; ogasun publikoa eta estatuaren zorra; administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak; administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarritzko legeria.

Beraz, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenaz baliatuta, Gobernuak hirugarren presidenteorde eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak, Justiziako ministroak, Ogasuneko ministroak, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako ministroak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ministroak, Lan eta Gizarte Ekonomiako ministroak, Industria, Merkataritza eta Turismoko ministroak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako ministroak, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak, Kultura eta Kiroleko ministroak, Gizarte Eskubideetako eta Agenda 2030eko ministroak, Zientzia eta Berrikuntzako ministroak, Kontsumoko ministroak, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazioko ministroak eta Unibertsitateetako ministroak proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2020ko martxoaren 31ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Langile, kontsumitzaile, familia eta herritar-talde kalteberei laguntzeko neurriak

1. atala. Familia eta herritar-talde kalteberei laguntzeko neurriak

I

1. artikulua. *Bertan behera uztea beste bizitegi-aukerarik ez duten maizter kalteberei etxea utzarazteko prozedura eta haiek etxetik botatzeko prozedurak.*

1. Alarma-egoera amaituta epemuga eta epe prozesal guztien etendura kendu ondoren, utzarazpen-prozedura (Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak arautzen duena) izapidetu behar bada Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legea aplikatzen zaion etxebizitzaren errentamendu-kontratu bat dela eta, eta errentariak epaitegian frogatzen badu ezin duela aurkitu beste bizilekurik beretzat eta berarekin bizi diren pertsonentzat COVID-19aren hedapenaren ondorioz dagoen egoera sozial edo ekonomikoa dela eta, Justizia Administrazioaren letraduak horren berri emango die gizarte-zerbitzu eskudunei, eta botatzeko egintzaren ezohiko etendura hasiko da. Seinalaturik ez badago, 440.3 artikuluan aipatzen den hamar eguneko epealdia amaitu ez delako edo ikustaldia egin ez delako, epealdi hori edo ikustaldia eten egingo da gizarte-zerbitzu eskudunek erabakitzen dituzten neurriak ezarri arte; etendura horrek gehienez sei hilabete iraungo du errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den etendura gauzatzeko, errentariak frogatu beharko du errege lege-dekretu honen 5. artikuluan aipatzen diren kalteberatasun ekonomikoko egoeretako batean dagoela; idazkiarekin batera, 6. artikuluan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu. Justizia Administrazioaren letraduak, uste badu alegatutako kalteberatasun ekonomikoa badagoela, etendura aginduko du; etendura atzeraeraginez aplikatuko da, hura gertatu den egunetik, eta behar beste baizik ez du iraungo, gizarte-zerbitzuen txostena aintzat hartuta. Etendura ezartzen duen dekretuan berariaz adieraziko da ezarritako aldia igarotakoan berriz ere 440.3 artikuluan aipatzen den egun kopuruaren zenbaketari ekingo zaiola edo ikustaldirako data ezarriko dela.

3. Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak 150.4 artikuluan ezartzen dituen ondorioetarako, pentsatuko da errentariaren adostasuna dagoela, utzarazpena eteteko eskaera aurkezte hutsagatik.

4. Baldin eta artikulua honen 1. apartatuan aipatzen den aparteko etenduraren aplikazioak eragiten dien errentatzaileek epaitegian frogatzen badute egoera sozial edo ekonomiko kaltebera dutela COVID-19aren hedapenaren ondorioz, apartatu horretan aipatzen diren idazkia eta agiriak aurkeztuz, Justizia Administrazioaren letraduak horren berri eman beharko die gizarte-zerbitzu eskudunei, kontuan eduki dezaten aparteko etenduraren iraunaldia ezartzeko eta hartzen diren gizarte-babeseko neurriak zehazteko.

5. Larrialdiak kalteberatasun ekonomikoko egoera sortu duela alegatzen duen idazkia aurkezte hutsa nahiko izango da ondorioztatzeko errentatzailea ados dagoela aurreko apartatuan arautzen den komunikazioa egitearekin.

2. artikulua. *Ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuen aparteko luzapena.*

Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legea aplikatzen zaien ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuetan, baldin eta errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik eta COVID-19aren ondoriozko osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera amaitu ondoko bi hilabeteak igaro arteko aldiari amaitzen bada aurreko lege horren 9.1 artikuluan ezartzen den nahitaezko luzapena edo lege horren beraren 10.1 artikuluan ezartzen den isilbidezko luzapena, errentamendu-kontratuaren iraunaldiari aparteko luzapena aplikatu ahal izango zaio, errentariak eskatu ondoren, sei hilabetekoa gehienez,

eta aldi horretan indarrean dagoen kontratuan ezarritakoa eta bertan finkatutako baldintzak aplikatuko dira, ordura arte bezala. Aparteko luzapenaren eskaera errentatzaileak onartu beharko du, alderdiek elkar hartuta besterik adostu ezean.

3. artikulua. *Errentamendu-zorren luzamendua.*

Artikulu honetatik 9.era, zenbait neurri ezartzen dira COVID-19aren ondorioz kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden eta ohiko etxebizitzan errentan bizi diren pertsonen errentamendu-zorrei luzamendua aplikatzea sustatzeko.

4. artikulua. *Errentamendu-zorren luzamendua modu automatikoan aplikatzea edukitzaile handien eta etxebizitzaren arloko enpresa edo erakunde publikoen kasuan.*

1. Baldin eta Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen babesean sinatutako ohiko etxebizitzaren kontratu baten errentaria kalteberatasun ekonomikoko egoeran badago, hurrengo artikuluan zehazten den bezala, eta errentatzailea etxebizitzaren arloko enpresa edo erakunde publikoa edo edukitzaile handia bada (hau da, hamar hiri-ondasun higiezin baino gehiagoren titularrak, garajeak eta trastelekuak zenbatu gabe, edo 1.500 m²-tik gora eraikita dauden higiezin baten titularrak den pertsona fisikoa edo juridikoa), errentariak errentatzaileari eskatu ahal izango dio errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hilabete pasatu baino lehen errentaren ordainketa aldi batez eta aparteko neurri gisa geroratzeko; nolana ere, hori eskatzeko, ezinbestekoa izango da bi alderdiek lehendik adostuta ez edukitzea ordainketa geroratzeko edo ordaindu beharreko kopuru osoa edo zati bat barkatzea.

2. Akordiorik lortzen ez bada, errentatzaileak bere erabakia berariaz jakinaraziko dio errentariari zazpi laneguneko epealdian; honako aukera hauetako bat hautatu beharko du:

a) Errentamendu-errentaren % 50eko murrizketa Gobernuak deklaraturako alarma-egoerak irauten duen bitartean, bai eta hurrengo lau hiletan ere, gehienez, aldi horretan ez bada konpontzen COVID-19aren ondoriozko kalteberatasuna.

b) Errentamendu-errentaren ordainketaren luzamendua; hori modu automatikoan aplikatuko da Gobernuak deklaraturako alarma-egoerak irauten duen aldiaren, bai eta hurrengo lau hiletan ere, gehienez eta hilez hil luzatuta, baldin eta aldi horretan ez bada konpontzen COVID-19aren ondoriozko kalteberatasuna. Errenta hori errentamenduaren hurrengo hilekotik aurrera atzeratuko da, kuotak gutxienez hiru urtez zatikatuz. Hiru urteko aldi hori aipatutako kalteberatasuna gainditzen den unetik aurrera zenbatuko da, edo lehen aipatutako lau hilabeteko aldia amaitzen denetik aurrera, eta nahitaez errentamendu-kontratuaren indarraldiaren edo haren luzapenen indarraldien barruan. Errentariak ez du jasoko inolako zigorririk, eta atzeratzen diren zenbatekoak interesik gabe itzuliko zaizkio errentatzaileari.

3. Aurreko bi apartatuetan xedatzen dena Hipoteka-zordunen babesa indartzeko premiazko neurrien azaroaren 15eko 27/2012 Errege Lege Dekretuaren ondoriozko Etxebizitzaren Gizarte Funtseko errentamendu guztiei aplikatuko zaie.

4. Errentariak 9. artikuluan arautzen den finantzaketa-laguntza iragankorren programari heldu ahal izango dio. Hala eginez gero, amaituko dira artikulu honetan arautzen den errentamendu-errentaren ordainketaren luzamendua eta aurrez ezarritako kuoten zatikapena, finantzaketa hori errenta ordaindu beharra daukan pertsonaren eskura dagoen lehen hilean.

5. artikulua. *Kalteberatasun ekonomikoaren definizioa, ohiko etxebizitzaren errentamendu-errentarekin lotutako luzamenduak edo laguntzak lortzeko.*

1. COVID-19aren ondoriozko osasun-larrialdiak eragindako kalteberatasun ekonomikoa gertatuz gero, ohiko etxebizitzaren errentamendu-errentaren ordainketaren luzamendua edo horretarako laguntzak lortzeko, honako bi baldintza hauek bete beharko dira:

a) Alokairu-errenta ordaindu behar duen pertsona langabezian egotea edo aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean (ABEEE), edo lanaldia murriztuta edukitzea zaintzak direla-eta —enpresaburua izanez gero— edo diru-sarrerak nabarmen galtzea dakarren beste zerbaiten erruz, eta, horren ondorioz, luzamendua eskatu aurreko hilean familia-unitateko kideen guztirako diru-sarrerak ez heltzea honako kopuru honetara:

i. Oro har, hileko ondorio askotarako errenta adierazle publikoa (aurrerantzean, IPREM) halako hiru bider gehiago.

ii. Muga hori IPREM halako 0,1 handituko da familia-unitatearen kargura dagoen seme edo alaba bakoitzeko. Familia-unitatea guraso bakarrekoa bada, seme edo alaba bakoitzeko IPREM halako 0,15 izango da gehikuntza.

iii. Muga hori IPREM halako 0,1 handituko da familia-unitatean dagoen 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko.

iv. Familia-unitateko kideren batek gutxienez ehuneko 33ko desgaitasuna onartuta badauka edo mendekotasun-egoeran edo gaixo badago, eta horren ondorioz lan egiteko ezintasun iraunkorra egiaztatuta badauka, i) azpiapartatuan jasotako muga IPREM halako lau izango da, hargatik eragotzi gabe seme-alaba bakoitzarengatik pilatutako gehikuntzak.

v. Errentamendu-errenta ordaindu behar duenak garun-paralisia, gaixotasun mentala edo desgaitasun intelektuala badu —gutxienez ehuneko 33ko desgaitasun-gradu onartuarekin—, desgaitasun fisikoa edo sentensoriala badu —gutxienez ehuneko 65eko desgaitasun-gradu onartuarekin—, edo gaixotasun larria badu, zeinaren ondorioz egiaztatuta baitago gaixoa edo haren zaintzailea ezinduta dagoela lan egiteko, i) azpiapartatuan jasotako muga IPREM halako bost izango da.

b) Errentamendu-errentaren eta oinarritzko gastuen eta horniduren batura familia-unitateko kide guztien diru-sarrera garbien ehuneko 35 izatea gutxienez. Ondorio horietarako, «oinarritzko gastuak eta hornidurak» hauek izango dira: errentariaren ohiko etxebizitzako elektrizitatearen, gasaren, berokuntzarako gasolioaren, ur korrontearen eta telekomunikazio-zerbitzu finkoen eta mugikorren horniduren kostuak eta errentariak ohiko etxebizitzagatik jabeen erkidegoari egin beharreko ekarpenak.

2. Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, hauek dira familia-unitateko kideak: errentamendu-errenta zor duen pertsona; haren ezkontidea —legez bananduta ez badago— edo izatezko bikotekide gisa inskribatuta dagoena, eta etxebizitzan bizi diren seme-alabak —edozein adinetakoak—, are tutoretzan, zaintzan edo familia-harreran bizi direnak ere, eta haien ezkontideak —legez bananduta ez badaude— edo izatezko bikotekide gisa inskribatuta daudenak, etxebizitzan bizi badira.

3. Honako kasu hauetan ez zaio iritziko COVID-19aren ondoriozko osasun-larrialdiak eragindako kalteberatasun ekonomikoa dagoenik ohiko etxebizitzaren errentamendu-errenta ordaintzeko luzamendua edo laguntzak lortzeko: errentaria edo haren familia-unitateko pertsonaren bat Espainian dagoen etxebizitzaren baten jabea edo gozamenduna denean. Inguruabar horiek ez direla gertatzen iritziko zaio eskubidea zati alikuota baten gainekoa izanik jarauntsi bidez edo testamenturik gabeko *mortis causa* eskualdaketa baten bitartez eskuratzen denean. Baldintza horretatik salbuetsita egongo dira etxebizitza baten titularrak, baldin eta frogatzen badute etxebizitza ez dagoela baliagarri banantzea edo dibortzioa dela-eta edo beraren borondatearen esku ez dagoen arrazoiren bategatik edo etxebizitza eskuraezina bada titularraren edo bizikidetzaren-unitateko beste pertsonaren baten desgaitasunagatik.

6. artikulua. *Baldintza subjektiboak betetzen direla frogatzea.*

1. Errentariak entitate errentatzaileari frogatu beharko dio 5. artikuluan azaltzen diren inguruabarrak gertatzen direla; horretarako, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Legezko langabezia-egoera frogatzeko, prestazioak kudeatzen dituen entitateak egindako ziurtagiria, adierazten duena langabezia-prestazioengatik edo langabezia-sorospengatik zenbat diru jasotzen duen hilean.

b) Norberaren konturako langilea izanik jarduera utzi dela frogatzeko, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo, bestela, autonomia-erkidegoko organo eskudunak egindako ziurtagiria, interesdunaren jardunari uzteko deklarazioan oinarritua.

c) Etxebizitzan zenbat pertsona bizi diren frogatzeko:

- i. Familia-liburua, edo izatezko bikotea osatu izanaren frogagiria.
- ii. Etxebizitzan erroldatutako pertsonen erroldatze-agiria, egiaztagiria aurkezten diren unea eta aurreko sei hilabeteak erreferentziatzen hartzen dituen.
- iii. Desgaitasuna, mendekotasuna edo lanerako ezintasun iraunkorra deklaratzeko duen agiria.

d) Ondasunen titulartasuna: Jabetza Erregistroaren Indize Zerbitzuaren ohar soila, familia-unitateko kide guztiei buruzkoa.

e) Zordunen erantzukizunpeko adierazpena, esaten duena errege lege-dekretu honen arabera baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela uste izateko baldintzak betetzen dituztela.

2. Luzamendua eskatu duenak, ezin badu aurkeztu aurreko apartatuaren a) eta d) arteko letretan eskatzen diren agirietako bat, horren ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango du, eta bertan azaldu beharko du COVID-19aren krisiaren zer ondorio eragozten duen falta zaion agiria aurkeztea. Alarma-egoera eta haren luzapenak amaitu ondoren hilabete epealdia edukiko du aurkeztu gabeko dokumentuak aurkezteko.

7. artikulua. *Errentariak errentamendu-zorren aparteko luzamendua eta COVID-19aren ondorioz egoera ekonomiko kaltebera dutenentzako ohiko etxebizitzarako laguntza publikoak bidegabe aplikatzearen ondorioak.*

1. Baldin eta pertsona batek bere ohiko etxebizitzaren errentamendu-zorra ordaintzeko luzamendua edota laguntza publikoren bat jaso badu 5. artikuluan ezartzen diren baldintzak bete gabe, kalte-ordainen erantzulea izango da pertsona hura, bai eta aparteko neurri horien aplikazioak sortutako gastu guztiena ere; eta zordunaren jokabide horrek beste mota batzuetako erantzukizunak ere ekar litzake.

2. Kalte-galeren eta gastuen zenbatekoa ezin izango da izan errentariak araua aplikatuz bidegabe lortutako onura baino gutxiago. Halaber, errentariak erantzukizuna edukiko du honako kasu honetan ere: errentariak, bere borondatez eta nahita, kalteberatasun ekonomikoko egoeretan sartzeko edo segitzeko ahaleginak egiten dituztenean, errege lege-dekretu honetan arautzen diren neurriak aplikatzeko asmoarekin.

8. artikulua. *Kontratuko errentamendu-baldintzak aparteko kasuetan eta modu iragankorrean aldatzea, errentatzailea ez denean 4. artikuluan ezartzen direnetakoa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialaren ondorioz.*

1. Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen babesean sinatutako ohiko etxebizitzaren kontratu baten errentariak, 5. artikuluan zehazten den kalteberatasun ekonomikoko egoeran izanez gero, errentatzaileari eskatu ahal izango dio, baldin eta 4. artikuluan aipatzen direnetakoa ez bada, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hilabete pasatu baino lehen, eta hurrengo 2 eta 4 bitarteko apartatuetan arautzen den bezala, errentaren ordainketa aldi batez eta aparteko neurri gisa geroratzeko. Ezinbestekoa da ordainketaren geroratzeko edo barkamen osoa edo partziala alde aurretik bi alderdien artean adostuta ez egotea.

2. Eskaera jaso ondoren, gehienez ere zazpi laneguneko epealdian errentatzaileak errentariari jakinaraziko dizkio onartzen duen zorra geroratzeko edo zatikatzeko baldintzak edo, bestela, horien inguruan planteatzen dituen aukerak.

3. Baldin eta pertsona fisiko errentatzaileak ez badu onartzen geroratzeari buruzko akordiorik eta, edonola ere, errentariari 5. artikuluan aipatzen den kalteberatasuna etorri bazaio, errentariak hurrengo artikuluan arautzen den finantzaketa-laguntza iragankorren programari heldu ahal izango dio.

9. artikulua. *COVID-19aren hedapenaren ondorioz kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoeran dauden errentarien finantzaketa Estatuaren kontura estaltzeko abal-lerroa onartzea.*

1. COVID-19aren hedapenaren ondorioz kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoeran dauden familiei etxebizitza-gastuei aurre egiteko finantza-estaldura emateko asmoarekin, baimena ematen zaio Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioari hamalau urtez, gehienez, Estatuak guztiz babestutako abal-lerro bat garatzeko Kreditu Ofizialeko Institutuarekin egindako akordio baten bitartez; lerro horretaz baliatuz, banku-entitateek finantzaketa-laguntza iragankorrak eman ahal izango dizkiete aipatutako kalteberatasuna duten pertsonen, eta haiek sei urtera arteko epealdia edukiko dute itzultzeko (aparteko kasuetan, lau urtez luzatu ahal izango da). Laguntza horiek ez diete inolako gasturik eta interesik sortuko eskatzaileei.

2. Finantzaketa-laguntza iragankorrak finalistak izango dira, hau da, etxebizitzaren errentamendu-errenta ordaintzeko erabili beharko dira. Gehienez sei hileko errenta estaliko dute.

3. Finantzaketa-laguntza iragankor horiek COVID-19aren hedapenaren ondorioz kalteberak diren errentari guztiek eskuratu ahal izango dituzte, baldin eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren agindu baten bidez zehaztuko diren irizpideak eta betekizunak betetzen badituzte. Agindu horretan, errege lege-dekretu honen 5. artikuluan zehazten diren egoerak arautuko dira, gutxienez. Agindu horrek ez du ondoren arau-garapenik beharko aplikatzeko, eta Europar Batasunaren estatu-laguntzen arloko arautegia bete behar du nahitaez.

10. artikulua. *COVID-19ak ohiko etxebizitzaren alokairuetan daukan eragin ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko laguntzen programa berria.*

1. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren agindu baten bidez, alokairurako laguntzen programa berria sartuko da martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuan araututako 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planean; hona izena: «COVID-19ak ohiko etxebizitzaren alokairuetan daukan eragin ekonomikoa eta soziala minimizatzeko laguntzen programa».

2. Programa horren xedea da ohiko etxebizitza errentan hartuta daukaten pertsonen alokairua ordaintzeko laguntzak ematea zuzeneko esleipenaren bidez; zehazki, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialaren ondorioz alokairuaren ordainketa partzialari edo osoari erantzuteko aldi batez arazoak dauzkaten ematea, baldin eta zehazten diren kalteberatasun ekonomiko eta sozial eratorriko kasuetako batean badaude (horiek zehaztean, errege lege-dekretu honen 5. artikuluan ezartzen diren egoerak arautuko dira, gutxienez).

Horrela, eta beste jarduketa batzuk eragotzi gabe, programa horren helburua hau izango da: aurre egitea COVID-19aren krisiaren ondoriozko kalteberatasuna gainditu ez eta ondorioz maileguak itzuli ezin dituzten familia kalteberak jasotako finantzaketa-laguntza iragankorrak itzultzeko zailtasunari.

3. Pertsona fisikoek jaso ahal izango dituzte programa horretako laguntzak, baldin eta, ohiko etxebizitzaren errentari diren aldetik, aurreko apartatuan aipatzen den kalteberatasun ekonomiko eta soziala badaukate, eta aldi batez arazoak badaukate alokairuaren ordainketa partzialari edo osoari erantzuteko.

4. Laguntza horren zenbatekoa gehienez 900 euro izango da hilean, eta errentamendu-errentaren % 100 gehienez, edo, bestela, ohiko etxebizitzaren errenta ordaintzeko hartutako maileguaren printzipalaren eta interesen % 100 gehienez. Autonomia-erkidego bakoitzeko eta Ceuta eta Melilla hirietako organo eskudunek finkatuko

dute laguntza horien zenbateko zehatza, programa horretarako ezarritako muga barruan. Horretarako, autonomia-erkidegoetako edo toki-entitateen gizarte-zerbitzuen txostena erantsi ahal izango dute; COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialaren ondorioz onuradunak jasaten duen aparteko egoera ahula aztertzen duena, hain zuzen.

11. artikulua. *Ohiko etxebizitza utzarazi dieten edo handik bota dituzten pertsonen laguntzeko programaren ordezkariak honako programa berri hau ezartzea (hurrengo artikuluan arautzen da): genero-indarkeriaren biktimei, ohiko etxebizitzatik kaleratutako pertsonen, etxerik gabeko pertsonen eta oso kalteberak diren beste pertsona batzuen laguntzeko programa.*

1. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren agindu baten bidez, programa hau ezartzen da 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planeko ohiko etxebizitza utzarazi dieten edo handik bota dituzten pertsonen laguntzeko programaren ordezkariak (plan hori martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuak arautzen du): «Genero-indarkeriaren biktimei, ohiko etxebizitzatik kaleratutako pertsonen, etxerik gabeko pertsonen eta oso kalteberak diren beste pertsona batzuen laguntzeko programa».

2. Programa berri horren helburua hau da: berehalako bizileku-konponbidea ematea genero-indarkeriaren biktimei, ohiko etxebizitzatik botatzen dituzten pertsonen, etxerik gabeko pertsonen eta oso kalteberak diren beste pertsona batzuen.

3. Aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonak izan daitezke programa horretako laguntzen onuradun, eta pertsona horiei bizileku-irtenbidea ematea xede duten administrazio publikoak, enpresa publikoak eta irabazi-asmorik gabeko entitateak, lankidetzak-ekonomiakoak edo antzekoak (irabazi-asmorik gabekoak betiere).

12. artikulua. *Alokairuko etxebizitzak gehitzeko programa aldatzea.*

1. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren agindu baten bidez, alokairuko etxebizitzak gehitzeko programa aldatuko da. Aldaketa horrek oso-osorik errespetatuko du orain dagoen programa, baina kasu berri bat txertatuko du, laguntzak etxebizitzak erosteko erabiltzea ahalbidetuko duena, etxebizitza-parke publikoa handitzeko.

2. Kasu berri horretan, etxebizitza hauek jaso ahal izango dituzte laguntzak: administrazio publikoak, erakunde publikoak eta zuzenbide publikoko gainerako erakundeak, enpresa publikoak eta irabazi-asmorik gabeko hirugarren sektoreko entitateak erabilera sozialeko alokairurako edo lagapenerako etxebizitzak kopurua gehitzeko banaka zein multzoka erosten dituztenak.

13. artikulua. *Baimena ematea autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei aldezturik transferitzeko Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana gauzatzeko sinatutako hitzarmenaren konprometitutako funtsak.*

1. Baimena ematen zaio Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioari 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana gauzatzeko sinatutako hitzarmenaren 2020rako konprometitutako funtsen % 100 transferitzeko autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei, zehazki 346.637.200 euro, 17.09.261N.753 aurrekontu-partidan jasotako, autonomia-erkidegoek finantza-konpromisoa hartu arte eta hitzarmenaren eskatzen diren baldintzak bete arte itxaron gabe.

2. Halaber, baimena ematen zaio Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioari 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana gauzatzeko sinatutako hitzarmenaren 2021erako konprometitutako funtsen % 100 transferitzeko autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei, zehazki 354.255.600 euro, 2021eko lehen hiruhilekoan, autonomia-erkidegoek finantza-konpromisoa hartu arte eta hitzarmenaren eskatzen diren baldintzak bete arte itxaron gabe.

14. artikulua. *Baimena ematea autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek berehala erabiltzeko honako funts hauek: COVID-19ak ohiko etxebizitzaren alokairuetan daukan eragin ekonomiko eta soziala minimizatzeko laguntzen programa berria aplikatuz eta zuzeneko esleipenaren bidez alokairurako laguntzak emateko oraindik konprometitu gabe dauden funtsak.*

Baimena ematen zaie autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana gauzatzeko sinatutako hitzarmenetan Sustapen Ministerioak (gaur egun, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioa) konprometitutako funts hauek erabil ditzaten: COVID-19ak ohiko etxebizitzaren alokairuetan daukan eragin ekonomiko eta soziala minimizatzeko laguntzen programa berria aplikatuz eta zuzeneko esleipenaren bidez alokairu-laguntzak emateko konprometitu gabe daudenak.

Baimen horretarako, ez da behar aurretik Bitariko Jarraipen Batzordean akordioa lortzea. Izan ere, 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana arautzen duen martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuaren 6. artikulua 5. apartatuaren arabera, Estatuaren ekarpenak planaren programen artean birbanatzeko, akordio hori behar da. Batzordeak ondoren emango du artikulua honetan arautzen den funts-xedapenaren ondoriozko birbanaketaren berri.

15. artikulua. *Loturarik ez COVID-19ak ohiko etxebizitzaren alokairuetan daukan eragin ekonomiko eta soziala minimizatzeko laguntzen programa berriak eta 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana arautzen duen martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuak 6. artikuluan arautzen duen kofinantzaketa autonomikoak.*

2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana arautzen duen martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuak 6. artikulua 2. eta 3. apartatuak ez zaizkie aplikatuko COVID-19ak ohiko etxebizitzaren alokairuetan daukan eragin ekonomiko eta soziala minimizatzeko laguntzen programan autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek konprometitzen dituzten Estatuaren funtsei.

II

16. artikulua. *Kalteberatasun ekonomikoaren definizioa, hipoteka-zorren eta hipotekarik gabeko kredituaren luzamendurako.*

1. Errege lege-dekretu honen eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren ondorioetarako, COVID-19aren ondoriozko osasun-larrialdiak eragindako kalteberatasun ekonomikoa gertatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Onuradun potentziala lanik gabe geratu behar izan da; enpresaburua edo profesionala izanez gero, galera nabarmena eduki behar du diru-sarreretan edo jaitsiera handia fakturazioan, % 40koa gutxienez. Artikulu honen ondorioetarako, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legeak 5. artikuluan arautzen dituen baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak hartuko dira enpresaburutzat eta profesionaltzat.

b) Luzamendua eskatu aurreko hilean familia-unitateko kideen diru-sarrera guztien batuta ezin da izan:

i. Oro har, hileko ondorio askotarako errenta adierazle publikoa (aurrerantzean, IPREM) halako hiru baino gehiago.

ii. Muga hori IPREM halako 0,1 handituko da familia-unitatearen kargura dagoen seme edo alaba bakoitzeko. Familia-unitatea guraso bakarrek bada, seme edo alaba bakoitzeko IPREM halako 0,15 izango da gehikuntza.

iii. Muga hori IPREM halako 0,1 handituko da familia-unitatean dagoen 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko.

iv. Familia-unitateko kideren batek gutxienez ehuneko 33ko desgaitasuna onartuta badauka edo mendekotasun-egoeran edo gaixo badago eta, horren ondorioz, lan egiteko ezintasun iraunkorra egiaztatuta badauka, i) azpiapartatuan jasotako muga IPREM halako lau izango da, hargatik eragotzi gabe seme edo alaba bakoitzarengatik pilatutako gehikuntzak.

v. Hipoteka-zordunak garun-paralisia, gaixotasun mentala edo desgaitasun intelektuala badu –gutxienez ehuneko 33ko desgaitasun-gradu onartuarekin–, desgaitasun fisikoa edo sensoriala badu –gutxienez ehuneko 65eko desgaitasun-gradu onartuarekin–, edo gaixotasun larria badu, zeinaren ondorioz egiaztatuta baitago gaixoa edo haren zaintzailea ezinduta dagoela lan egiteko, i) azpiapartatuan jasotako muga IPREM halako bost izango da.

c) 19. artikuluan aipatzen diren ondasun higiezinaren hipoteka-kuota eta oinarritzko gastu eta hornidura guztien batura familia-unitateko kide guztien diru-sarrera garbien ehuneko 35 izan daiteke gehienez. Hori dela eta, «oinarrizko gastuak eta hornidurak» izango dira errentariaren elektrizitatearen, gasaren, berokuntzarako gasolioaren, ur korrantearen, telekomunikazio-zerbitzu finkoen eta mugikorren horniduren kostuak eta jabeen erkidegoari egin beharreko ekarpenak. Familia-unitateko ohiko etxebizitzako «oinarrizko gastuak eta hornidurak» baino ez dira aintzat hartuko.

d) Osasun-larrialdiaren ondorioz familia-unitatearen egoera ekonomikoa nabarmen aldatuta egotea etxebizitza eskuratzeko ahaleginari dagokionez. Hori dela eta, egoera ekonomikoa nabarmen aldatutzat joko da honako hau gertatzen denean: hipoteka-zamak (19. artikuluan aipatzen diren ondasun higiezinaren gaineko hipoteka-kuoten baturak) familiaren errentaren gainean eragiten duen esfortzua gutxienez 1,3 bider handitu denean.

Errege lege-dekretu honetan ezartzen denaren ondorioetarako familia-unitateko kideak dira: zorduna; haren ezkontidea –legez bananduta ez badago– edo izatezko bikotekide gisa inskribatuta dagoena, eta etxebizitzan bizi diren seme-alabak –edozein adinetakoak–, are tutoretzan, zaintzan edo familia-harreraren bizi direnak ere, eta haien ezkontideak –legez bananduta ez badaude– edo izatezko bikotekide gisa inskribatuta daudenak, etxebizitzan bizi badira.

Errege lege-dekretu honen ondorioetarako, onuradun potentzialak dira 19. artikuluan arautzen denarekin bat etorritik hipoteka-zor bati aurre egiten ari direnak.

2. Definizio hori ez zaie inolaz ere aplikatuko uraren, gas naturalaren eta elektrizitatearen arloko kontsumitzaile kalteberei, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren eta errege lege-dekretu honen arabera, ez eta 3. artikuluan aipatzen den errentamendu-zorren luzamenduari ere.

17. artikulua. *Baldintza subjektiboak egiaztatzea.*

1. Onuradun potentzialak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu 16. artikuluan ezartzen diren inguruabarrak gertatzen direla frogatzeko:

a) Legezko langabezia-egoera frogatzeko, prestazioak kudeatzen dituen entitateak egindako ziurtagiria, adierazten duena langabezia-prestazioengatik edo langabezia-sorospengatik zenbat diru jasotzen duen hilean.

b) Norberaren konturako langilea izanik jarduera utzi dela frogatzeko, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo, bestela, autonomia-erkidegoko organo eskudunak egindako ziurtagiria, interesdunaren jardunari uzteko deklarazioan oinarritua.

c) Etxebizitzan zenbat pertsona bizi diren egiaztatzeko:

i. Familia-liburua, edo izatezko bikotea osatu izanaren frogagiria.

ii. Etxebizitzan erroldatutako pertsonen erroldatze-agiria, egiaztagiria aurkezten diren unea eta aurreko sei hilabeteak erreferentziatzen hartzen dituen.

iii. Desgaitasuna, mendekotasuna edo lanerako ezintasun iraunkorra deklaritzen duen agiria.

- d) Ondasunen titulartasuna egiaztatzeko:
- i. Jabetza Erregistroaren Indize Zerbitzuaren ohar soila, familia-unitateko kide guztiei buruzkoa.
 - ii. Ohiko etxebizitzaren, alokairuko etxebizitzaren edo jarduera ekonomikoari atxikitako ondasun higiezinaren salerosketa-eskriturak; gainera, hipoteka-zorren luzamendua eskatzen bada, hipoteka-mailegua edo -maileguak emateko eskriturak.
- e) Baldin eta alokairuko etxebizitza baten (19. artikuluan c) letra) hipoteka-maileguaren hipoteka-zorren luzamendua eskatzen bada, errentamendu-kontratua aurkeztu beharko da.
- f) Zordunaren edo zordunen erantzukizunpeko adierazpena, esaten duena betetzen direla errege lege-dekretu honen arabera baliabide nahikorik ez dutela ezartzeko eskatzen diren baldintzak.
2. Luzamendua eskatzen duenak, ezin badu aurkeztu aurreko apartatuaren a) letratik e) letrara bitartean eskatzen diren dokumentuetako bat, haren odez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango du, eta bertan berariaz justifikatu beharko du zergatik ezin duen aurkeztu COVID-19aren krisiaren ondorioz. Alarma-egoera eta haren luzapenak amaitu ondoren hilabeteko epealdia edukiko du aurkeztu gabeko dokumentuak aurkezteko.

18. artikulua. *Hipoteka-bermerik gabeko kreditu-kontratuen ondoriozko kalteberatasun ekonomikoa: zer den eta nola frogatu.*

1. Errege lege-dekretu honen 16. artikuluan arautzen da zer kasutan gertatzen den kalteberatasun ekonomikoa hipoteka-bermerik gabeko kreditu-kontratua dutenen artean COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ondorioz; honako berezitasun hauek hartu behar dira kontuan:

a) Baldin eta pertsona fisikoari aurretik martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluan arautzen den luzamendua ere onartu bazaio, horren aplikazioa ez da kontuan hartuko errege lege-dekretu honen 16.1 artikuluan c) eta d) letretan ezartzen den kalkuluaren ondorioetarako, errege lege-dekretu honetan arautu bezala hipoteka-bermerik gabeko kreditu edo maileguen ondoriozko betebeharrak eteteko.

b) Baldin eta onuradun potentzialak ez badauka kontratatuta hipoteka-mailegurik eta, hala ere, aldizkako ordainketak egin behar baditu ohiko etxebizitzaren alokairuagatik edo finantza-entitate batean hartutako hipoteka-bermerik gabeko finantzaketa-tresna bategatik (edo biengatik), hipoteka-kuotaren zenbatekoa gabe bi errenta horien guztirako batura hartuko da kontuan 16.1 artikuluko c) eta d) letretako kalkuluak egiteko, alokairu-errenta sartuta, nahiz eta 3. artikuluan arabera luzamendua aplikatu. Halaber, hipoteka-zama 16. artikuluan ezartzen denaren arabera kalkulatzeko, aurreko zenbateko horien batura hartuko da aintzat. Baldin eta onuradun potentzialak hipoteka-bermerik gabeko mailegu bakar bati egin behar badio aurre eta ez badu aldizka errenta bat ordaindu behar ohiko etxebizitzaren alokairuagatik, hipoteka-bermerik gabeko mailegu hori bakarrik hartuko da kontuan aurreko ondorioetarako.

2. Zordunak errege lege-dekretu honen 17. artikuluan ezartzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dio hartzekodunari aurreko paragrafoan aipatzen diren inguruabarrak gertatzen direla frogatzeko. Hipoteka-bermerik gabeko finantzaketa itzultzeko aldizkako ordainketen zenbatekoa egiaztatzeko, finantza-entitatearekin sinatutako kontratua aurkeztu beharko da.

III

19. artikulua. *Hipoteka-zorraren luzamendua.*

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikulutik 16. ter artikulura aipatzen diren hipoteka-zorra edo hipoteka-maileguak honako hauek eskuratzeko egindako hipoteka-zorra edo kontratatutako hipoteka-maileguak izango dira:

- a) Ohiko etxebizitza.
- b) 16.1 artikulua a) letran aipatzen diren enpresaburuek eta profesionalek egiten duten jardura ekonomikoari atxikitako ondasun higiezinak.
- c) Ohikoa ez beste etxebizitza batzuk, alokairuan hartuak, baldin eta hipoteka-zordunak (pertsona fisikoa, jabea eta errentatzailea denak) ez badu errentamendu-errentarik jasotzen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma-egoera indarrean jarri zenetik edo alarma-egoera amaitu ondoko hilabetera arteko aldian errenta jasotzeari uzten badio.

20. artikulua. *Toki-entitateei martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua aplikatzea.*

1. COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 3. artikulua azken paragrafoan arautzen duena aplikatzeko, toki-entitate bakoitzak manu horretan aipatzen den gastura bideratu ahal izango duen zenbatekoa Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak seigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuaren c) letran zehazten duen saldo positiboaren % 20 izango da gehienez.

2. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan arautzen denarekin bat etorritik superabita 23. gastu-politikari aplikatzeko, onartu beharreko kreditua gaitzeko ezohiko kredituaren edo kreditu-gehiarriaren aurrekontu-aldaketa toki-korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen baten bidez izapidetuko da, eta ez zaizkio aplikatuko Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 169. artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioei eta publizitateari buruzko arauak (testu bategin hori martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo lehenengo osoko bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soilaren aldeko botoa beharko da, eta, gero, dagokien aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira.

Osoko bilkuran baliozkotzen ez bada, onartutako dekretua ez da ez balio gabetuko ez etengo. Nolanahi ere, erreklamazio ekonomiko-administratiboaren bidera jo ahal izango da; horretarako, epealdiak osoko bilkuraren erabakia argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuko dira.

3. Ogasun Ministerioaren organo eskudunak jarraipena egin dezan, toki-entitateek beteta bidali beharko dute errege lege-dekretu honen III. eranskinean dagoen formularioa. Informazioa bidali beharra apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak onartzen duen gardentasun-printzipioaren garapenez ezartzen da; bidalketa hori, beraz, egiteko horiek dituen kontu-hartzailetzan edo unitatean zentralizatuta egin beharko da.

Informazioa baliabide elektronikoen bidez bidaliko da, Ogasun Ministerioak hartarako prestatzen dituen eredu normalizatuak eta sistema erabiliz, eta onartutako ziurtagiri batean oinarritutako sinadura elektroniko aurreratuen bidez, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearekin bat etorritik, betiere Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak hori erabili beharrik ez dagoela erabaki ezean.

4. Ogasun Ministerioko organo horri ahalmena ematen zaio manu hau aplikatzeko eta epealdiak, aldiak eta igorpen-prozedurak ezartzeko behar diren ebazpenak emateko.

5. Informazioa emateko betebeharrak ez betetzeak, bai ezarritako epeei, bai datuen edukiaren zuzentasunari eta haien egokitasunari, bai errege lege-dekretu honen xedapenen arabera bidalketa-moduari dagokienez, apirilaren 27ko 2/2012 Lege

Organikoaren 20. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren neurriak ezartzea ekar dezake, toki-korporazioari hamar egun balioduneko epealdian betetzeko errekerimendua egin ondoren. Ogasun Ministerioak, erantzukizun pertsonalak gorabehera, egindako errekerimenduen berri eman ahal izango du, edo ez direla betetzen jakinarazi.

6. Ogasun Ministerioak errege lege-dekretu honetan ezartzen denaren arabera bidaltzen den informazioa zabaldu edo argitaratu ahal izango du; berak erabakiko du nola, zer eta non zabaldu edo argitaratzen duen.

IV

21. artikulua. *Hipoteka-bermerik gabeko kreditu-kontratuen ondoriozko betebeharrak etetea.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denean indarrean dauden hipoteka-bermerik gabeko mailegu edo kreditu guztien ondoriozko kontratu-betebeharrak aldi baterako etetea neurriak ezartzen dira honako kasu honetarako: kontratua egin duen pertsona fisikoa kalteberatasun ekonomikoko egoeran dagoenean, 16. artikuluan zehaztutako moduan, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz.

2. Neurri horiek berak zordun nagusiaren fidatzaileei eta abal-emaileei ere aplikatuko zaizkie, 16. artikuluan adierazitako inguruabarrak gertatuz gero.

22. artikulua. *Fidatzaileak edo abal-emaileak.*

Hipoteka-bermerik gabeko kreditu-kontratuen betebeharren etendura aplikatu ahal zaien fidatzaileek edo abal-emaileek hartzekodunari eskatu ahal izango diote zordun nagusiaren ondarea agortzeko bermatutako zorra berei erreklamatu aurretik, nahiz eta kontratuan berariaz uko egin eskusio-onurari.

23. artikulua. *Etendura eskatzea.*

Alarma-egoeraren indarraldia amaitu eta hilabete igaro arte, hipoteka-bermerik gabeko kreditu-kontratuen ondoriozko betebeharren etenduraren aplikazio-eremuan dauden zordunek hartzekodunari eskatu ahal izango diote beren betebeharrak etetea. Zordunek 17. artikuluan ezartzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute etendura-eskaerarekin batera.

24. artikulua. *Etendura onartzea.*

1. Errege lege-dekretu honen 23. artikuluan aipatzen den etendura-eskaera egin eta kalteberatasun ekonomikoko egoera egiaztatu ondoren, hartzekodunak automatikoki etengo ditu hipoteka-bermerik gabeko kredituaren ondoriozko betebeharrak.

2. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 7. artikulutik 16. artikulura bitartean arautzen dituen hipoteka-maileguen luzamenduan gertatzen den bezala, etendura aplikatzeko, ez da beharko alderdien arteko akordioarik, ez eta kontratu-berrikuntzarik ere. Zordunak hartzekodunari eskaera —eskatutako dokumentazioa atxikita— edozein bitartekoren bidez egiten dionetik aurrera sortuko ditu ondorioak kontratuko betebeharren etendurak. Hala ere, baldin eta kredituaren edo maileguaren bermea hipoteka ez beste eskubide inskribagarri bat bada, edo Ondasun Higigarrien Epekako Salmenta Erregistroan sartu bada Ondasun Higigarrien Epekako Salmentari buruzko uztailaren 13ko 28/1998 Legearen 15. artikuluan 1. apartatuan arautzen diren ondorioetarako, etendurak dakarren epe-luzapena inskribatu beharko da, aplikatu beharreko arau orokorrekin bat etorritik.

3. Etendura aplikatu ondoren, hartzekodunak haren berri emango dio Espainiako Bankuari, eta iraunaldia jakinaraziko dio. Luzamendurik ezean zordunari eskatuko litzaizkioken diru kopuruak ez dira mugaeguneratutzat joko.

4. Etendurak hiru hilabete iraungo du; aldi hori Ministro Kontseiluaren erabakiz luzatu ahal izango da.

5. Baldin eta mailegu-emaileak eta luzamenduaren onuradun den mailegu-hartzaileak kontratua berritzea adosten badute kontratuaren klausulak martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 13. artikuluan arautzen den etendura ez beste zerbait aldatzearen ondorioz, alderdiek hitzartzen dutenaz gainera, errege lege-dekretu honetan arautzen diren eta zordunak eskatzen dituen kontratu-betebeharren etendura eta interesik ez sortzea ere ezarriko dute berrikuntzan.

6. Alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, eta berriz ere ibiltzeko askatasun erabatekoa ezarri arte, ezin formalizatu izango dira 2. apartatuan aipatzen diren eskritura publikoak. Hala ere, horregatik ez da luzamenduaren aplikazioa etengo; aitzitik, luzamendua modu automatikoan aplikatu beharko da, etendura eskrituran formalizatuta egon zein ez egon.

25. artikulua. *Etenduraren ondorioak.*

1. Etenduraren indarraldian:

a) Hartzekodunak ezin eskatu izango du zorra ordaintzeko, ez haren osagai diren kontzeptuak ere (kapitalaren amortizazioa eta interesak), ez osorik, ez zati bat.

b) Ez da sortuko inolako interesik, ez arruntik, ez berandutze-interesik.

2. Kontratuan adostutako mugaeguna atzeratu egingo da etenduraren ondorioz, etendurak dirauen aldia beste, eta itundutako beste alderdi guztiak ez dira aldatuko. Ondasun edo eskubide inskribagarriak badira, haien arautegia aplikatuko da, arau orokorrekin eta aurreko artikuluen bigarren apartatuan xedatzen denarekin bat etorritz.

3. Interesen ordainketaren etendura ez zaie aplikatuko errege lege-dekretu honetan araututakoez bestelako zordunei edo kontratuei.

26. artikulua. *Hipoteka-bermerik gabeko kreditu-kontratuen ondoriozko betebeharren etenduraren inguruan zordunak iruzurrez jardutearen ondorioak.*

Hipoteka-bermerik gabeko kreditu-kontratuen ondoriozko betebeharrak eteteko neurrien onura jasotzeko legeari iruzur egiten dioten zordunei martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

27. artikulua. *Gainbegiratzeko eta zehatzeko araubidea.*

1. Espainiako Bankuak gainbegiratuta jarduten duten entitate mailegu-emaileek honako informazio hau bidaliko diote egunero agintaritza horri, aurreko egun baliodunari buruz:

- a) Hartzekodunek aurkeztutako etendura-eskaeren kopurua.
- b) Emandako etenduren kopurua.
- c) Etendura-onuradunen kopurua, honetara xehatuta: batetik, zordunak eta abal-emaileak; bestetik, autonomoak eta soldatapekoak.
- d) Ordainketa eten den maileguen kopurua.
- e) Ordainketa eten den amortizatu gabeko saldo bizia.
- f) Zordunaren jardueraren JESN kodea.

2. 21.etik 26.era bitarteko artikulua eta artikulua honen lehen apartatua antolamenduko eta diziplinako arauak izango dira (arau horiek ekainaren 26ko 10/2014 Legeak ezartzen ditu, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoak, 2. artikuluan).

28. artikulua. *COVID-19aren ondorioz jarduerari utzi dioten edo fakturazioa murriztu zaien langile autonomoek gizarte-bonua jasotzeko eskubidea edukitzea.*

1. Kontsumitzaile kalteberak izango dira beren ohiko etxebizitzan, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan (kontsumitzaile kalteberen figura, gizarte-bonua eta etxeko

kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituen horretan) arautzen denaren arabera, 2. apartatuko errenta-baldintza betetzen duten kontsumitzaileak, baldin eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri ondoren frogatzen badute hornidura-puntuaren titularrak, edo beraren familia-unitateko kideren batek, bere konturako profesionala edo autonomoa denak, eskubidea daukala prestazioa jasotzeko lanbide-jarduera erabat uzteagatik edo gizarte-bonua eskatu aurreko hilean fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu zaiolako aurreko sei hilekoko fakturazioaren batezbestekoarekin alderatuta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak arautzen duenarekin bat etorriz.

Norberaren konturako profesionalaren edo autonomoaren ohiko etxebizitzaren hornidura-kontratua pertsona juridikoaren izenean badago, gizarte-bonua pertsona fisikoarentzat eskatu beharko da, eta horrek hornidura-kontratuaren titulartasuna aldatzea eragingo du.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako kontsumitzaile kalteberatzat jotzeko, ezinbesteko baldintza izango da honako hauek baino gehiago ez izatea hornidura-puntuaren titularren errenta (edo, familia-unitate bateko kide izanez gero, familia-unitatearen kide guztien urteko guztirako errenta), urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretua (kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileak babesteko beste neurri batzuk arautzen dituen) garatzen duen urriaren 6ko ETU/943/2016 Aginduaren 4. artikuluan xedatzen denaren arabera kalkulatuta:

- hileko ondorio askotarako errenta adierazle publikoa (IPREM, 14 ordainketa) halako 2,5, hornidura-puntuaren titularra ez badago familia-unitate batean edo beraren familia-unitatean adingaberik ez badago;
- IPREM adierazlea (14 ordainketa) halako 3, familia-unitatean adingaberen bat badago;
- IPREM adierazlea (14 ordainketa) halako 3,5, familia-unitatean bi adingabe badaude.

Hori dela eta, familia-unitatea zer den zehazteko azaroaren 28ko 35/2006 Legea aplikatuko da (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena eta sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren legeak modu partzialean aldatzen dituen).

3. Aurreko apartatuetan zehazten den kontsumitzaile kalteberaren izaera eta, beraz, gizarte-bonua arautzen den bezala jasotzeko eskubidea bertan behera geldituko dira aipatutako inguruabarrak gertatzen ez direnean; orduan, kontsumitzaileak gertaera horren berri eman beharko dio erreferentziako merkaturatzaileari.

Kontsumitzailea ez da inolaz ere joko sei hilabetean baino gehiagoan kalteberatzat aurreko apartatuak betetzeagatik; nolana ere, horrek ez du eragotziko berriz ere izaera horri heltzea data horren aurretik edo ondoren, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan arautzen diren gainerako kasuen babesean.

Erreferentziako enpresa merkaturatzaileak mugaegun hori zein den adierazi beharko dio kontsumitzaileari sei hilabeteko epealdia amaitu aurretik egiten duen azken fakturan, eta adieraziko dio epealdi hori igarotakoan erreferentziako merkaturatzaile berak KTBPen arabera fakturatuko diola hornidura, eta nahi izanez gero merkatu libreko merkaturatzaile batekin kontratatu ahal duela hornidura.

4. Kontsumitzaileak, aurreko apartatuetan definitutako kontsumitzaile kaltebera dela frogatzeko eta gizarte-bonua eskatzeko, IV. eranskinean definitutako eskaera-eredua bidali beharko dio erreferentziako merkaturatzaile bati, haren webgunean agertzen den helbide elektronikoaren bidez, honako egiaztagiri hauekin batera:

- Hornidura-puntuaren titularren IFZ edo AIZen kopia; gainera, familia-unitate bateko kidea bada, IFZ edo AIZ nahitaez eduki behar duten unitateko kideen dokumentu horien kopiak.
- Titularren erroldatze-ziurtagiria edo familia-unitateko kide guztien baterako erroldatze-ziurtagiria (indarrean egon behar du).
- Familia-unitaterik badago, familia-liburua.

– Kaltebera delako akreditazioa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak ezartzen duenarekin bat etorritik. Hain zuzen ere, norberaren konturako langileak bere jarduerari utzi badio, hori frogatzeko jarduera utzi izanaren interesdunaren deklarazioan oinarritua Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo, bestela, autonomia-erkidegoko organo eskudunak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Erreferentziako enpresa merkaturatzaileak eskaera jaso duela jakinarazten duen mezu elektronikoa bidaliko dio hornidura-puntuaren titularrari.

Gobernuko laugarren presidenteorde eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroaren aginduz, aldatu ahal izango da IV. eranskineko eskaera-eredua.

V

29. artikulua. *Energia elektrikoaren, petrolioaren eratorrien, gas naturalaren eta uraren hornidura bermatzea.*

Salbuespen gisa, alarma-egoera indarrean dagoen bitartean kontsumitzaileei ezin izango zaie eten energia elektrikoaren hornidura, petroliotik eratorritako produktua (manufakturatutako gasena eta petrolio-gas likidotuena barne), gas naturalarena eta urarena beren ohiko etxebizitzan, non eta ez den horniduraren, pertsonen eta instalazioen segurtasunarekin zerikusia daukaten arrazoiengatik, nahiz eta aukera hori jasota egon kontsumitzaileek sinatutako hornidura- edo sarbide-kontratuan kasu bakoitzean aplikatu beharreko sektoreko araudiarekin bat etorritik.

Hornitzaileari frogatzeko hornidura ohiko etxebizitzan egiten dela, kontsumitzaileak hori modu sinesgarrian frogatzen duen edozein baliabide dokumental erabili ahal izango du.

Era berean, alarma-egoera indarrean dagoen aldia ez da zenbatuko ordainketa-errekerimendu fede-emailaen eta indarreko araudian edo hornidura-kontratuetan ezarritakoaren arabera ez ordaintzeagatik aplikatzen den hornidura-etenduraren arteko epealdien ondorioetarako.

VI

30. artikulua. *Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berezian dauden pertsonen jarduera-ezagatik jaso dezaketen aparteko sorospenen onuradunak.*

1. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua (alarma-egoera deklaratzeko duena COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko) indarrean ipini baino lehen Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berezian egon diren pertsonen aparteko sorospena jaso dezakete jarduera-ezagatik, egoera honetako batean egonez gero:

– COVID-19aren ondoriozko osasun-krisia dela, eta etxe batean edo batzuetan lan egiteari utzi diote, erabat edo modu partzialean, beren borondatearen kontra, kutsapen-arriskua murriztu beharrez.

– Lan-kontratua amaitu zaie, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak —Langileen Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duenak— 49.1.k artikuluan arautzen duen kaleratzeko arrazoiak dela bide, edo enplegatzaileak atzera eginik, azaroaren 14ko 1620/2011 Errege Dekretuak —familia-etxe zerbitzuaren lan izaera bereziaren gaineko harremana arautzeki buruzkoak— 11.3 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik, COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz.

2. Gertaera eragilea frogatzeko, zerbitzuak erabat eten edo modu partzialean murriztu dituen gertaeraz enplegatzaileak egindako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da. Lan-kontratua azkenduz gero, kaleratze-gutuna aurkeztu ahal izango

da hori frogatzeko, edo enplegatzaileak atzera egiten duela adierazteko bidalitako komunikazioa, edo Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Bereziko baja frogatzen duen dokumentazioa.

31. artikulua. *Sorospenaren zenbatekoa.*

1. Jarduera-ezagatik jasotzen den aparteko sorospenaren zenbatekoa kalkulatzeko, utzitako jardueraren oinarri arautzaileari apartatu honetan zehazten den ehunekoa aplikatu behar zaio.

2. Prestazioaren eguneko oinarri arautzailea honela kalkulatu da: etxeko langileak gertaera eragilearen aurreko hilean eduki duen kotizazio-oinarria 30ez zatituko da.

Pertsona batek lan bat baino gehiago egin badu sistema berezi honetan, utzitako lan bakoitzaren oinarri arautzailea kalkulatu behar da.

3. Sorospenaren zenbatekoa oinarri arautzaile horren ehuneko hirurogei izango da; nolana ere, zenbateko hori ezin izan daiteke lanbide arteko gutxieneko soldata (aparteko ordainsarien zati proportzionala kenduta) baino gehiago. Jardueraren zati bat galduz gero, sorospenaren zenbatekoa langilearen lansaioan gertatu den murrizketaren zuzeneko proportzioaren arabera izango da.

Hainbat lan egiten duten pertsonen kasuan, sorospenaren guztirako zenbatekoa lan bakoitzaren oinarri arautzailearen ehuneko hirurogei aplikatzearen emaitzako kopuru guztien batura izango da; kasu honetan ere sorospenak aurreko apartatuko muga bera edukiko du. Egindako lan guztietan edo batzuetan jarduera partzialki galtzen bada, lortutako kopuru bakoitzari langileak jarduera bakoitzean izan duen lanaldi-murrizketaren ehunekoa aplikatuko zaio. Baldin eta sorospenaren guztirako zenbatekoa, ehuneko horiek aplikatu aurretik, lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekora iristen bada, aparteko ordainsarien zati proportzionala kenduta, zenbateko hori lan guztien artean hainbanatuko da, bakoitzaren gertaera eragilearen aurreko hileko kotizazio-oinarrien zenbatekoa kontuan hartuz. Horrela kalkulatzeko diren zenbatekoei langileak jardueran izan duen lanaldi-murrizketaren ehunekoa aplikatuko zaio.

4. Jarduera-ezagatik ematen den sorospen hau hileka jasoko da, eskubidea sortzen den egunetik aurrera. Horretarako, honako hau izango da eskubidea sortu den eguna: aurreko apartatuan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenean zehazten dena, gertaera eragilea jardura murriztea izan bada, edo Gizarte Segurantzako bajaren eguna, lan-harremana amaitu bada.

32. artikulua. *Aparteko sorospenaren bateragarritasunak eta bateraezintasunak.*

1. Jarduera-ezagatik jasotzen den aparteko sorospena bateragarria izango da eskubidea sortzen den unean egiten ari diren norberaren edo besteren konturako jardueren ondoriozko ordainketekin, are Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko Etxeko Langileen Gizarte Segurantzako Sistema Berezian alta ematea dakarten jardueren ondoriozkoekin ere, baldin eta sorospenaren eta gainerako jardueren diru-sarreraren batura ez bada lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiago.

2. Jarduera-ezagatik jasotzen den aparteko sorospena bateragarria izango da aldi baterako ezintasunaren sorospenarekin eta martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuak arautzen duen berreskuratzeko baimen ordainduarekin (10/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, berreskuratzeko baimen ordaindu bat arautzen da besteren kontura diharduten eta funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten langileentzat, COVID-19aren kontrako borrokan biztanleriaren mugikortasuna murrizteko asmoz).

33. artikulua. *Aparteko langabezia-sorospena aldi baterako kontratua amaitzeagatik.*

1. Honako hauek jaso ahal izango dute aparteko langabezia-sorospena aldi baterako kontratua amaitzeagatik: COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean ipini ondoren gutxienez bi hileko kontratua amaitu zaien langileek, baldin eta beste prestazio

edo sorospen bat jasotzeko eskatzen den gutxieneko kotizaziora iristen ez badira, errentarik eduki ezean Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 275. artikuluan ezartzen denaren arabera (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Sorospen hori iraunaldi jakineko kontratu bat amaitzen zaien pertsonai aitortuko zaie (bitartekoak, prestakuntzakoak eta txanda-kontratuak barnean direla), aurreko paragrafoan aipatzen den moduan, artikulua honetan ezartzen diren gainerako baldintza guztiak betez gero.

2. Aparteko langabezia-sorospena ezin izango da jaso gutxieneko errenta, gizarteratzeko errenta, gizarte-soldata edo edozein administrazio publikok emandako antzeko beste laguntza batekin batera.

3. Aparteko sorospen hori hilerio jasoko da eta zenbatekoa une bakoitzean indarrean dagoen hileko ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren ehuneko 80 izango da.

4. Aparteko sorospen horren indarraldia hilabetekoa izango da; nolana ere, errege lege-dekretu baten bidez luzatu ahal izango da.

2. atala. Langile autonomoei laguntzeko neurriak

34. artikulua. Gizarte Segurantzako kotizazioen luzamendua.

1. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari ahalmena ematen zaio interesik gabeko sei hilabeteko luzamenduak emateko Gizarte Segurantzako edozein araubidetan dauden enpresei eta beren konturako langileei, baldin eta eskatzen badute eta Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak aldeztetik hala erabakita Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministroaren agindu baten bidez ezarriko diren betekizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Onartuz gero, luzamenduak Gizarte Segurantzako kotizazioen ordaintzari eta baterako diru-bilketaren kontzeptuei eragingo die; hain zuzen ere, sortzapen-aldia, enpresen kasuan, 2020ko apiriletik ekainera bitartekoa duten kotizazioei, eta, norberaren konturako langileen kasuan, 2020ko maiatzetik uztailera bitartekoa dutenei, baldin eta egiten dituzten jarduerak eteten ez badira martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera dela eta.

2. Enpresek Gizarte Segurantzaren eremuko datuak elektronikoki bidaltzeko sistemaren bidez aurkeztu beharko dituzte luzamendu-eskaerak (RED sistema, ESS/484/2013 Aginduan arautua). Norberaren konturako langileek, berriz, bi aukera edukiko dituzte horretarako: RED sistema erabili edo Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzaren egoitza elektronikoa (SEDESS) eskuragarri dauden bitarteko elektronikoez baliatu.

Enpresek, Gizarte Segurantzako kotizazioen ordaintzetan luzamendua zer langilerentzat eskatzen duten, eskaera bat aurkeztu beharko dute langile horiek alta emanda dauden kotizazio-kontuaren kode bakoitzeko, eta baterako diru-bilketaren kontzeptuen arabera bereizita.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, RED eta SEDESS sistemez gain, beste edozein baliabide elektronikoa jarri ahal izango du eskaerak aurkezteko.

Hori dela eta, aipatu diren baliabideak erabiliz kotizazio-kontuaren kodea eta luzamenduaren xede den sortzapen-aldia jakinaraztea luzamendu-eskaeratzat hartuko da.

3. Luzamendu-eskaerak lehenengo apartatuan adierazitako sortzapen-aldiei dagozkien ordaintzeko erregelamenduzko epealdietako lehen hamar egun naturaletan jakinarazi beharko zaizkio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari; baldin eta eskaera kotizazioak ordaintzeko erregelamenduzko epealdian egin ez bada, inolaz ere ez da onartuko luzamendua.

4. Luzamenduaren onarpena eskaera aurkeztu ondoko hiru hileko epean jakinaraziko da, artikulua honen bigarren apartatuan adierazten diren baliabideak erabiliz. Hala ere, komunikazio hori egintzat joko da eskaera aurkeztu ondoren egiten diren kuota-likidazioetan Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak luzamendua aplikatzen duenean.

5. Luzamendua ez zaie aplikatuko enpresek enpresa-ekarpenaren ordainketan salbuespena lortzeko baliatzen dituzten kotizazio-kontuen kodeei, ez eta COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 24. artikuluan arautzen dituen baterako bilketa-kuotei ere, ezinbesteko arrazoiengatik kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko artikulua horretan aipatzen diren prozeduren ondorioz.

6. Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginak ezartzen duena aplikatuz (abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori), enpresa edo norberaren konturako langile batek aurkezten duen eskaera batean datu faltsurik edo okerrik egonez gero, eskatzaileari dagokion zehapena ezarriko zaio.

Hori dela eta, faltsutzat edo okertzat joko da Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari jarduera ekonomiko faltsua edo okerra jakinaraztea, bai enpresa gisa inskribatzeko eskaeran, bai langile bati dagokion araubide berezian alta ematean, bai inskribatu ondoko edo alta eman ondoko datuak aldatzean, bai eta lehen apartatuan aipatzen diren baldintzak eta betekizunak betetzen direla zehazten duten beste datu faltsu edo oker batzuk jakinaraztea ere.

Aurreko paragrafoan ezartzen diren ez-betetzeetako baten ondorioz luzamendua bidegabe onartuz gero, luzamendua onartzeko egintza ofizioz berrikusiko da. Kasu horietan, eta enpresak edo norberaren konturako langileak daukan legezko erantzukizun administratibo edo penala gorabehera, luzamendua bidegabe aplikatu zaien kuotek dagozkien errekargua eta interesak edukiko dituzte, Gizarte Segurantzaren Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorrak ezartzen duenarekin bat etorritz.

35. artikulua. *Gizarte Segurantzaren zorren ordainketa geroratzea.*

Enpresek eta Gizarte Segurantzako edozein araubidetan dauden norberaren konturako langileek eta Gizarte Segurantzaren eremuan datuak elektronikoki igortzeko RED sistemaren bidez jarduteko baimena dutenek, indarrean geroratzerik ez dutenek, eskatu ahal izango dute Gizarte Segurantzarekin dituzten zorren ordainketa geroratzeko, baldin eta ordainketa egiteko erregelamenduzko epealdia 2020ko apiriletik ekainera bitartekoa bada, Gizarte Segurantzaren arautegian ezartzen denarekin bat etorritz eta bertan finkatzen diren baldintzekin. Interes-tasa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 23.5 artikuluan ezartzen dena gabe, % 0,5ekoa izango da (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Errege Lege Dekretuaren bidez onartu zen). Zorren ordainketa geroratzeko eskaera horiek aipatutako erregelamenduzko epealdiko lehen hamar egun naturalak igaro baino lehen aurkeztu beharko dira.

3. atala. Kontsumitzaileak babesteko neurriak

36. artikulua. *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubidea kontratu batzuk zigorrik gabe suntsiarazteko.*

1. Baldin eta alarma-egoera indarrean dagoen bitartean ezartzen diren neurrien ondorioz kontsumitzaile edo erabiltzaileen batek sinatutako kontratu bat —ondasun-salerosketakoa zein zerbitzua ematekoa— ezin bada bete, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak kontratua suntsiarazi ahal izango du hamalau eguneko epealdian. Suntsiarazteko asmoa honako kasu honetan soilik baietsi ahal izango da: alderdi bakoitzak emandako berrikuspen-proposamenetik edo -proposamenetatik, fede onean oinarrituta, kontratuaren interesen elkarrekikotasuna berrezarriko duen irtenbiderik lortzerik ez dagoenean. Berrikuspen-proposamenetan, bonuak edo balio-txartelak eskaini ahal izango dira itzulketen orde, besteak beste. Horri dagokionez, ezin dela berrikuspen-proposamenik egin iritziko zaio, baldin eta kontratua betearaztea ezinezkoa izan denetik 60 egun pasatu eta gero alderdiek ez badute akordiorik lortu berrikuspen-proposamenari buruz.

2. Aurreko apartatuaren arabera kontratua betetzea ezinezkoa bada, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak ordaindutako diru kopuruak itzuli beharko ditu enpresaburuak, gastuak izan ezik (behar bezala banakatu behar dira eta kontsumitzaileari helarazi), ordainketa egin zen modu berean, eta, horretarako, hamalau eguneko epealdia edukiko du, salbu eta kontsumitzaile edo erabiltzaileak berariaz onartzen baditu bestelako baldintzak.

3. Segidako traktuko zerbitzuak emateko kontratuei dagokienez, zerbitzuak ematen dituen enpresak zerbitzua gerora berreskuratzeko aukerak eskaini ahal izango ditu. Halakoetan, honako kasu honetan soilik itzuliko dira jada ordaindutako kopuruak, arrazoi horrengatik eman ez den zerbitzu-aldiari dagokion zatikoak: kontsumitzaileak berreskuratzeko hori onartu ezin badu edo onartzen ez badu. Bestela, kontsumitzailearen onarpenarekin, etorkizunean zerbitzuarengatik egotzi beharreko kuoten ondoriozko zenbatekoa murriztuko da. Era berean, zerbitzuak ematen dituen enpresak ez du hileko kopuru gehiago kobratuko harik eta zerbitzua berriz ere ohi bezala eman arte; horrek ez du kontratua deuseztatzea ekarriko, bi alderdien borondatez izan ezik.

4. Bidaia konbinatuko kontratuetan, bidaia bertan behera geratzen bada COVID-19aren ondorioz, antolatzaileak edo, bestela, txikizkariak bonua eman ahal izango dio kontsumitzaileari edo erabiltzaileari, alarma-egoeraren indarraldia eta haren luzapenak amaitzen direnetik urtebete pasatu baino lehen erabiltzeko. Bonuaren zenbatekoa itzuli beharreko diru kopurua izango da. Bonua ez bada erabiltzen beraren balio-aldian, kontsumitzaileak ordaindutako diru guztia itzultzeko eskatu ahal izango du. Nolanahi ere, aldi batez erabil daitekeen ordezeko bonua eskaintzen bada, hura erabiltzeko behar den besteko finantza-sostengua eduki beharko da.

Aurrekoa gorabehera, antolatzaileak edo, bestela, txikizkariak dirua itzuli beharko dio kontsumitzaileari edo erabiltzaileari, baldin eta horrek kontratua suntsiarazteko eskatzen badu, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bateginaren 160. artikulua 2. apartatua eta beste lege osagarri batzuetan ezartzen denarekin bat etorritik, eta, halaber, bidaia konbinatuko kontratuan ezartzen diren zerbitzu-hornitzaileek beren zerbitzuen zenbateko osoa itzuli badute. Bidaia konbinatuko zerbitzuen hornitzaile batzuek soilik itzultzen badiote dirua antolatzaileari edo txikizkariari, edo horietako bakoitzak itzultitako zenbatekoa partziala bada, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak itzultitako kopuruari dagokion zatia itzultzeko eskubidea edukiko du, eta hori kontratua suntsiaraztean emandako bonuaren zenbatekotik kenduko da.

Antolatzaileak edo txikizkariak kontratua suntsiarazten den egunetik edo zerbitzuen hornitzaileek beren kopuruak itzultzen dituzten egunetik 60 egun pasatu baino lehen egin beharko dituzte aurreko itzulketa horiek.

37. artikulua. *Jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legean arautzen diren joko-jardueretako bat egiten duten entitateen merkataritza-komunikazioak murrizteko neurriak.*

1. Artikulu honetan ezartzen diren neurriak Jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legean arautzen diren joko-jardueretako bat egiten duten entitate guztiei aplikatuko zaizkie.

2. Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, merkataritza-komunikaziotzat jotzen dira edozein bitarteko edo euskarriren bidez hedatzen diren publizitate-jarduerak guztiak, baldin eta xedea maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen aplikazio-eremuan zehazten diren joko-jarduerak, edo jarduerak horiek egiten dituzten entitateak, zuzenean edo zeharka sustatzea bada.

3. Debekatuta dago merkataritza-komunikazioetan COVID-19 gaixotasunaren ondoriozko larrialdia aipatzea, berariaz zein modu inplizituan, bai eta egoera honetan jokoa aritzera animatzea ere.

4. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoeraren indarraldian 1. apartatua aipatzen diren entitateek ezin izango dituzte egin honako jarduketak hauek:

a) Bezero berriak erakartzeko edo lehendik dauden bezeroak fidelizatzeko sustapen-jarduerak, baldin eta diru kopuruak, bonuak, hobariak, deskontuak, apustu edo partiden opariak, kuoten edo sarien biderkatzaileak edo antzeko beste mekanismo batzuk erabiltzen badira.

b) Komunikazio komertzialak ematea Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorren 2.2 artikuluan aipatzen diren ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuetan (eskariaren arabera zerbitzuak barne, bereizgarriak eta banandu daitezkeenak direnean), goizaldeko ordu batetik bostak arteko ordu-tartean izan ezik.

c) Komunikazio komertzialak ematea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko azaroaren 14ko 2018/1808 (EB) Zuzentarauan zehazten diren plataformen bidez bideoak trukatzeko zerbitzuak ematen, saltzen edo merkaturatzen dituztenen bitartez (2018/1808 (EB) Zuzentaraua, Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak emateari buruz estatu kideek emandako lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapen jakin batzuk koordinatzeari buruzko 2010/13/EB Zuzentaraua aldatzen duena). Salbuespena: goizaldeko ordu batetik bostak arteko ordu-tartea.

d) Komunikazio komertzialak ematea informazioaren gizartearen zerbitzuetan (posta elektronikoaren edo antzeko baliabideen bidezko banakako komunikazioak eta sare sozialetakoak barne).

5. Artikulu honetan ezartzen diren betebeharrak bat ez betetzea arau-hauste larria izango da Jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak xedatzen dituen ondorioetarako.

II. KAPITULUA

COVID-19ak sortutako zailtasun iragankorren aurrean jarduera ekonomikoari eusteko neurriak

1. atala Industrializazioari laguntzeko neurriak

38. artikulua. *Martxoaren 14ko 462/2000 Errege Dekretua indarrean jarri denean ebazteko egon diren SGIPYMERen maileguen deialdietan bermeak aurkezteko unea eta epealdia aldatzea.*

1. Aldi baterako, eta COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri denean ebazteko zeuden SGIPYMERen maileguen deialdietarako, mailegua emateko ebazpenaren ondoren eta mailegua ordaindu aurretik aurkeztu beharko dira eskatzaileek aurkeztu beharreko bermeak.

2. Deialdia ebatzi ondoren, mailegua emateko ebazpenean zehazten den bermea aurkeztu beharko dute onuradunek, deialdian ezartzen den modalitatearekin bat etorriz.

3. Bermeak aurkezteko epealdia 2020ko azaroaren 3an amaituko da. Epealdi horren barruan bermea aurkeztu ezean, onuradunak mailegua kobratzeko eskubidea galduko du.

4. Mailegua ordaintzen denean, deialdiaren aginduan ezarritako gainerako baldintza guztiak bete beharko dira.

5. Urriaren 18ko ICT/1100/2018 Aginduaren 10. artikulua etenda gelditzen da 2019ko deialdirako (ICT/1100/2018 Agindua, industria-inbertsioari finantza-laguntza emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituen berrindustrializatzeko eta lehiakortasuna indartzeko politika publikoaren esparruan), artikulua honen 1. puntutik 5.era bitartekoekin bat ez datorren heinean. Halaber, etenda gelditzen da agindu horren bederatzigarren apartatua, 2019ko deialdia arautzen duena.

6. Manufaktura-industriaren esparruan ikerketa, garapen eta berrikuntzako industria-proiektuei finantza-laguntza emateko oinarriak ezartzen dituen abuztuaren 1eko ICT/859/2019 Aginduaren 13. eta 25. artikulua etenda gelditzen dira 2019ko deialdirako, artikulua honen 1. puntutik 5.era bitartekoekin bat ez datozen heinean. Halaber, etenda

gelditzen dira agindu horren hamaikagarren eta hamazazpigarren apartatuak, 2019ko deialdia arautzen dutenak.

39. artikulua. *SGIPYMEren maileguen birfinantzaketa.*

1. SGIPYMEk industria-proiektuetarako emandako maileguen onuradunek haren amortizazio-koadroaren aldaketak eskatu ahal izango dituzte bi urte eta erdiko epealdian, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz onuradunak aldi batzuetan jarduerarik egin ez badu, beraren salmenten bolumena murriztu bada edo balio-kateko horniduran etenak gertatu badira.

Eskaera berariaz ebatzi beharko du mailegua emateko ebazpena eman duen organoak. Eskaera aurkezten denetik sei hilabete igaro baino lehen eman beharko da ebazpena. Epealdi horretan ebazpena emateko eskumena daukan organoak ebazpena jakinarazten ez badu, interesdunak legitimatuta egongo dira eskaera ezetsi dela ulertzeko.

2. Aurkeztutako eskaerak honako hauek eduki beharko ditu:

a) Justifikazio-memoria; bertan behar bezala arrazoitu behar da zaila dela ordainketa-egutegia betetzea aurreko apartatuan ezartzen denaren arabera. Justifikazioan honako hauek zehaztu behar dira: 1. apartatuan aipatzen dena gertatu baino justu lehenagoko behin-behineko balantzea eta galera-irabazien kontua; osasun-krisiak nola eragin duen esplikatzeaz azalpen kualitatibo eta kuantitatiboa; eragin horren balorazio ekonomiko eta finantzarioa; ondorio horiek arintzeko jarduketaren plana.

b) Inbertsioak egiteko epealdia amaitu ez bada, une horretara arte maileguaren kargura egindako inbertsioak justifikatzeko memoria tekniko eta ekonomikoa sartu beharko da, partiden arabera banakatuta. Taula bat erantsiko da, datu hauekin: egindako inbertsio eta gastuak (fakturak eta ordainketak) eta gauzatutako gastu-konpromisoak. Adierazitako guztia behar bezala egiaztatuta egongo da.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, non adieraziko baita enpresak beteak dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordura arte, ez duela laguntzak edo maileguak itzultzeagatik zorrik Administrazioarekin eta beteak dituela Merkataritza Erregistroan kontuak aurkezteko betebeharrak.

3. Ezin izango da aldatu egutegia honako kasu hauetan:

a) Aldaketa hori justifikatzeko behar bezala egiaztatutako ondorioz ez dagoenean.

b) Enpresak bete gabe dauzkanean ordura arteko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

c) Enpresak administrazioarekin zorrak dauzkanean laguntzak itzultzeagatik edo maileguengatik.

d) Enpresak bete gabe dauzkanean Merkataritza Erregistroan kontuak aurkezteko betebeharrak.

e) Zorra mugaeguneratzeko arrazoia ez-betetze edo uko-egite baten ondoriozko itzulketa bat izatea.

f) Inbertsioak justifikatzeko epearen barruan dauden proiektuen kasuan, behar adinako aurrerapenik ez dagoenean eta laguntza emateko ebazpenean konprometitutako helburuak betetzen direla bermatzen ez denean.

4. Amortizazio-koadroaren aldaketak honako hauek izan daitezke:

a) Amortizazio-aldia luzatzea.

b) Gabealdia luzatzea, printzipalaren kuotarik mugaeguneratu ez bada.

c) Artikulu honen 5. artikuluan ezartzen denarekin bat datozen beste aldaketa batzuk.

5. Aldaketek ezin dute ezertan ukitu onartzen diren gehieneko laguntza-intentsitatea, ez eta gehieneko arrisku-maila ere. Laguntza baliokidea amortizazio-

koadroaren aldaketa onartzen denean kalkulatu da. Horretarako, maileguen interes-tasak edota lotutako bermeak aldatu ahal izango dira.

6. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzen denetik bi urte eta erdi igaro bitartean, baldin eta proiektuaren egiaztapen tekniko-ekonomikoa amaitu bada, kreditu-entitate bat subrogatu ahal izango da onuradunaren mailegua itzultzeko betebeharrean. Interes-tasa duten maileguetan, kreditu-entitateak bere gain hartu beharreko interes-tasa gutxitu ahal izango da, Estatuak ematen dituen maileguetan eska daitekeen gutxieneko interes-tasa errespetatuz (Estatuko Aurrekontu Orokorren legeetan ezartzen da).

7. Neurri hori honako SGIPYMERen programa hauei aplikatzen zaie: Berrindustrializazio Programari, Industriako Sektore Estrategikoen Lehiakortasunerako Programari, Automobilgintzako Sektorearen Lehiakortasunerako Programari, Berrindustrializaziorako eta Industriaren Lehiakortasunerako Programari, Industria Konektatua 4.0 Programari eta Manufaktura Industriaren Esparruko I+G+b Programari.

8. Etenda gelditzen dira bi urte eta erdirako, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, neurri honen eraginpeko maileguak emateko aintzat hartutako oinarri-aginduen eta deialdien artikulua, artikulua honetan xedatzen denarekin bat ez datozen heinean.

40. artikulua. *Gastuak itzultzea eta laguntzak ematea nazioarteko merkataritzako sustapen-jarduerak eta nazioarteko beste ekitaldi batzuk bertan behera uzteagatik.*

1. ICEX España Exportación e Inversiones enpresari ahalmena ematen zaio berak deitutako azoketan edo nazioarteko merkataritza-sustapeneko beste jarduera batzuetan, edizio honetan eta hurrengoetan, gastu berreskurazinak egin behar dituzten enpresei haietan parte hartzeko ordaindutako kuotak itzultzeko, COVID-19aren ondorioz ekitaldiok bertan behera geldituz gero, kalte handiak jasanez gero edo antolatzaileak atzeratuz gero. Ekitaldiak atzeratzen badira, enpresak azaldu beharko du hurrengo ediziora zergatik ezin den joan, arrazoiak emanez.

2. Ahalmena ematen da ICEXen entitate laguntzaileen bidez antolatzen diren nazioarteko ekitaldietan parte hartzen duten enpresei eta entitate laguntzaileei berei laguntzak emateko eta ordaintzeko edizio honetan edo hurrengoetan egiten dituzten gastu berreskurazinen arabera, ekitaldiak COVID-19aren ondorioz bertan behera geldituz gero.

41. artikulua. **EMPRENDETUR.**

Oro har, urtebetez eteten da Turismoko Estatu Idazkaritzak honako xedapen hauen babesean emandako maileguen interesen eta amortizazioen ordainketa (ez da egongo eskatu beharrik):

– IET/2481/2012 Agindua, azaroaren 15ekoa, Emprendetur I+G+b programaren barruko proiektuetarako eta jarduketetarako laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituena (2012ko azaroaren 20ko BOE, 279. zk.). Programa hori Turismoaren Plan Nazional eta Integralaren esparruan dago, eta beraren barruan honako lerro hauek daude: Emprendetur I+G eta Emprendetur Produktu Berritzaileen Garapena.

– IET/476/2013 Agindua, martxoaren 14koa, honako hau aldatzen duena: IET/2482/2012 Agindua, azaroaren 15ekoa, Turismoaren Plan Nazional eta Integralaren esparruan Emprendetur Gazte Ekintzaileak programaren barruko proiektuetarako eta jardueretarako laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituena (2013ko martxoaren 26ko BOE, 73. zk.).

– IET/2200/2014 Agindua, azaroaren 20koa, Turismoko Plan Nazional Integralaren esparruan Emprendetur Nazioartekotze Programaren barruko proiektuetarako eta jardueretarako laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituena (BOE, 285. zk., 2014ko azaroaren 25ekoa).

Ondorioz, mailegu-hartzaileek errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera maileguen interesengatik eta amortizazioagatik egin beharko lituzketen ordainketak

mailegua emateko ebazpenean agertzen den urtearen hurrengo urteko data berean eskatu ahal izango dira, baina interes gehigarriak sortu gabe.

2. atala. *Malgutasuna horniduretan*

42. artikulua. *Autonomoak eta enpresak elektrizitatez hornitzeko kontratuak malgutzea.*

1. Salbuespen gisa, eta alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, honako neurri hauei heldu ahal izango diete langile autonomoen titulartasuneko elektrizitate-hornidurako puntuek eta enpresek (autonomoek frogatu beharko dute autonomoak direla, Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubidean edo horren parekoan alta emanda daudela erakutsiz):

a) Edozein unetan, hornidura-kontratua edo kontratuaren luzapena aldi baterako eten edo aldatu ahal izango dute, indarreko kontratua sinatua duten enpresa merkaturatzailearekin horren ordezkoko beste eskaintza bat kontratatzeko, kontratua kontsumo-eredu berrietara egokitzeko helburuarekin, eta ez da inolako kargurik ordaindu beharko zigor gisa.

b) Banatzaileek potentzia edo sareko bidesaria aldatzeko eskaerei erantzun diete, nahiz eta kontsumitzaileak bere borondatez aldatu hirugarrenak sarera sartzeko kontratuaren baldintza teknikoak hamabi hilabete igaro aurretik eta nahiz eta sareko bidesarien edo karguen egiturari inolako aldaketarik gertatu ez. Eskaerei ezin bazaie erantzun urruneko bitartekoen bidez, enpresa banatzaileek onartutako eta jakinarazitako kontingentzia-planen arabera egin beharko dira beharrezko landa-jarduketak.

Kontsumitzaileak, baimena baldin badauka sarbide-tarifa bakarra aplikatzeko Energia elektrikoaren garraio-sareetako eta banaketa-sareetako bidesari-tarifak ezartzen dituen urriaren 26ko 1164/2001 Errege Dekretuak 5.3.4 artikuluan arautzen duenarekin bat etorriz, potentzia edo sareko bidesaria aldatzeko eskatu ahal izango du Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren berariazko ebazpenik gabe. Banatzaileek artikulua honetan arautzen denaren arabera erantzun beharko diete eskaerei. Kontsumitzaileek zuzendaritza nagusi horri jakinarazi beharko dizkiote banatzaileei egindako eskaerak.

2. Alarma-egoera amaitu ondoren, hornidura-kontratu bat eteteko eskatu duen kontsumitzaileak hiru hilabeteko epealdia edukiko du berriz ere kontratua aktibatzeko eskatzeko.

Epealdi berean, alarma-egoera amaitu eta hiru hilabete igaro aurretik, aurreko apartatuan ezartzen den hornidura-kontratua aldatzeko edo hirugarrenak sarera sartzeko kontratuaren parametro teknikoak aldatzeko eskatu duen kontsumitzaileak hornidura-kontratuaren beste aldaketa bat eskatu ahal izango du, edo hirugarrenak sarera sartzeko kontratuaren parametro teknikoaren balio berriak ezartzeko. Kontsumitzaileak, baimena badauka sareko bidesari-tarifa bakarra batera aplikatzeko, eskaera horren berri eman beharko dio Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiari.

3. Hornidura-kontratua berriro aktibatzeko eta kontratuaren arestian aipatutako aldaketak egiteko, bost egun natural izango dira gehienez; kontsumitzaileak ez du jasango kosturik, honako hauek izan ezik:

a) Alarma-egoera hasi aurretik kontratatutako atalaseaz gaineko potentzia-gehikuntzen eskubideengatik ordaindu beharrekoa.

b) Lagatako instalaziorik egonez gero, haiek gainbegiratzeagatik ordaindu beharrekoa.

c) Neurketa-ekipoak aldatu behar badira, abenduaren 27ko 1048/2013 Errege Dekretuaren VII. kapituluaren aurreikusitako kontrol-ekipoen eta neurketa-ekipoen gaineko jarduketak ordaindu beharko dira (1048/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, energia elektrikoa banatzeko jardura ordaintzeko metodologia ezartzen duena).

Aipatutako ordainketa horien aplikazioan, honako hau hartuko da kontuan: Energia elektrikoa banatzeko jardura ordaintzeko metodologia ezartzen duen abenduaren 27ko 1048/2013 Errege Dekretuaren VII. kapitulua.

Potentzia-aldaketarekin ez bada gainditzeko alarma-egoera hasi aurretik kontratatutako atalasea, ez da aplikatuko abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak —elektrizitatea garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta hornitzeko jarduerak eta energia elektrikoko instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituenak— 83.5 artikuluan hogeit hamar urtetik gorako instalazioak berrikustez xedatzen duena.

4. Errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren onartzen diren Estatuko Aurrekontu Orokorren legeetan, eta aurreko 1. apartatuan arautzen diren neurrien ondorioz sistema elektrikoan gertatzen den diru-sarreraren murrizketa konpentsatzeko, kreditu bat hornituko da Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren aurrekontu-atalean, eta beraren zenbatekoa neurri horien erruz sistema elektrikoan gertatutako diru-sarreraren murrizketaren zenbatekoa izango da.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari transferituko zaio, eta dena batera sartuko da, diru-sarrera gisa, erakunde horrek kudeatzen duen sistema elektrikoaren likidazio-sisteman.

43. artikulua. *Gas naturalaz hornitzeko kontratuak malgutzea.*

1. Salbuespen gisa, eta alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, honako neurri hauei heldu ahal izango diete langile autonomoen titulartasuneko gas naturalaren hornidura-puntuak eta enpresek (autonomoek frogatu beharko dute autonomoak direla, Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubidean edo horren parekoan alta emanda daudela erakutsiz):

a) Hornidura-puntuaren titularrak bere enpresa merkaturatzaileari eskatu ahal izango dio kontratatutako eguneko emaria aldatzeko, urteko kontsumo txikiagoari dagokion bidesari-maila batean sartzeko edo hornidura-kontratua aldi baterako eteteko inolako kosturik gabe.

b) Enpresa merkaturatzaileak honako neurrietako bat eskatu ahal izango dio banatzaileari edo garraiolariari:

1.a) Garraio- eta banaketa-sareetako bidesarien maila aldatzea.

2.a) Iraupen estandarreko edo iraupen mugagabeko irteera-ahalmeneko produktuetan kontratatutako emaria murriztea; produktua iraupen mugagabekoa bada, ez da izango beharrezkoa kontratatutako emaria azken aldiz aldatu denetik hamabi hilabete pasatzea, eta aldaketa ez da kontuan hartuko beste aldaketa bat eskatzeko gutxienezko epealdia zenbatzeko.

3.a) Kontratatutako irteera-ahalmeneko produktuak deuseztatzea eta iraupen mugagabeko kontratuak aldi batez etetea, inolako murrizketarik gabe.

c) Aurreko neurrien aplikazioaren ondorioz bidesari merkeagoak ordainduta aurretzen den diru guztia oso-osorik jasanarazi beharko dio merkaturatzaileak hornidura-puntuaren titularrari.

2. Kontratuen aldaketa horien ondorioz banatzaileek eta garraiolariak ez diete jasanaraziko kosturik batere ez merkaturatzaileei ez kontsumitzaileei, sarbide-kontratuaren indarraldia amaitzen den eguna eta hura sinatu denetik edo azken aldaketa egin denetik igarotako denbora gorabehera. Eskaerei ezin bazaie erantzun urruneko bitartekoen bidez, enpresa banatzaileek onartutako eta jakinarazitako kontingentzia-planen arabera egin beharko dira beharrezkoak diren landa-jarduketak.

3. Alarma-egoera amaitu ondoko hiru hiletan, kontratatutako ahalmena edo sareko bidesariaren maila aldatzeko eskatu duen hornidura-puntuaren titularrak eskatu ahal izango du 3. taldeko emaria handitzeko edo bidesari-maila aldatzeko, inolako denbora-mugarik gabe eta kosturik gabe. Sarbide-kontratua aldi baterako eteten bada, kontratua gehienez ere bost egun naturaleko epealdian aktibatuko da berriz, eta horregatik ez da

alta-eskubiderik ez hartune-eskubiderik ordaindu beharko, baldin eta ez bada beharrezkoa zerbitzua abian jartzea instalazioa aldeztu aurretik itxi eta seguru jarri izanaren ondorioz.

4. Errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren onartzen diren Estatuko Aurrekontu Orokorren legeetan, eta aurreko 1. apartatuan arautzen diren neurrien ondorioz gas-sisteman gertatzen den diru-sarreraren murrizketa konpentsatzeko, kreditu bat hornituko da Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren aurrekontu-atalean, eta beraren zenbatekoa neurri horien erruz gas-sisteman gertatutako diru-sarreraren murrizketaren zenbatekoa izango da.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari transferitutako zaio, eta dena batera sartuko da, diru-sarrera gisa, erakunde horrek kudeatzen duen gas-sistemaren likidazio-sisteman.

44. artikulua. *Elektrizitatearen, gas naturalaren eta petrolioaren eratorrien fakturak etetea.*

1. Salbuespen gisa, eta alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, energia elektrikoaren, gas naturalaren, manufakturatutako gasen eta petrolio-gas likidotuen kanalizazio bidezko hornidura-puntuaren titular diren langile autonomoek (autonomoak direla frogatu beharko dute Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubidearen edo horren parekoaren alta erakutsiz) eta enpresa txikiek eta ertainek (Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean zehazten denarekin bat datozenek) enpresa merkaturatzaileari edo banatzaileari eskatu ahal izango diote, joan-etorri fisikorik eragiten ez duen bitartekoren bat erabiliz, alarma-egoera indarrean den egunen bat duten fakturazio-aldietako fakturen ordainketa eteteko (fakturazio-kontzeptu guztiak barne).

Eskaeran kontsumitzaileek argi eta garbi adierazi beharko dute nor den hornidura-puntuaren titularra eta zein den hornidura-puntuaren kode unibertsala (HPKU).

2. Kasu horietan, elektrizitate-merkaturatzaileek ez dute ordaindu beharko garraio-eta banaketa-sareetako bidesaria (betebehar hori Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 46.1 artikulua d) paragrafoan ezartzen da), enpresa banatzaileari geroratutako fakturei dagokiena, harik eta kontsumitzaileak faktura osoa ordaindu arte.

Merkaturatzaileek aurreko apartatuan ezartzen denarekin bat etorritik ordainketa eteteko eskatzen duten hornidura-puntuaren titularrei buruzko informazioa eta horien HPKUak jakinarazi beharko dizkiete banatzaileei.

3. Bestalde, gas naturalaren merkaturatzaileek ez dute ordaindu beharko enpresa banatzaileari edo garraiolariari atzeratutako fakturei dagokien garraio- eta banaketa-bidesaria (betebehar hori Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen 81.2 artikulua f) paragrafoan arautzen da) harik eta kontsumitzaileak faktura osoa ordaindu arte.

Merkaturatzaileek aurreko apartatuan ezartzen denarekin bat etorritik ordainketa eteteko eskatzen duten hornidura-puntuaren titularrei buruzko informazioa eta horien HPKUak jakinarazi beharko dizkiete banatzaileei edo garraiolariari.

4. Elektrizitatearen eta gas naturalaren merkaturatzaileek eta manufakturatutako gasak eta petrolio-gas likidotuak kanalizazio bidez banatzen dituztenek ez dute egin beharko BEZaren, elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren ez hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren likidaziorik neurri honen ondorioz ordainketa eten zaien fakturengatik harik eta kontsumitzaileek faktura horiek osorik ordaindu arte edo alarma-egoera amaitzen denetik sei hilabete igaro arte.

5. Alarma-egoera amaitu ondoren, zor diren kopuruak hainbanatuta erregularizatuko dira elektrizitatearen eta gas naturalaren merkaturatzaileek eta manufakturatutako gasak eta petrolio-gas likidotuak kanalizazio bidez banatzen dituztenek egindako fakturretan; hurrengo sei hiletako fakturazio-aldietakoetan, hain zuzen ere. Artikulu honetan arautzen den fakturazioaren etendurari helden dioten autonomoek eta enpresek ezin izango dute aldatu elektrizitatearen edo gas naturalaren merkaturatzailea, kasuan kasukoa, erregularizazio hori egin arte.

6. Elektrizitatea eta gas naturala merkaturatzen dutenen eta manufakturatutako gasak eta petrolio-gas likidotuak kanalizazio bidez banatzen dituztenen diru-sarrerak murrizten badira 1. apartatuan arautzen diren neurrien ondorioz, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak —COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrienak— 29. artikuluan zehazten dituen abalak eskatu ahal izango dituzte, edo horretarako berariaz sortzen den beste edozein lerrotako abalak. Abalaren zenbatekoa diru-sarreretan izan duten murrizketa izango da. Kontuan hartu beharko dira elektrizitatea merkaturatzen dutenentzat 2. puntuan ezartzen den salbuespena eta gas naturala merkaturatzen dutenentzat 3. puntuan ezartzen dena.

7. Elektrizitatea banatzen duten enpresek eta gas naturala banatzen eta garraiatzen duten enpresek bidesariengatik jasotzen dituzten diru-sarrerak murrizten badira 2. apartatuan arautzen diren neurrien ondorioz, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 29. artikuluan zehazten dituen abalak eskatu ahal izango dituzte, edo horretarako berariaz sortzen den beste edozein lerrotako abalak. Abalaren zenbatekoa diru-sarreretan izan duten murrizketa izango da.

45. artikulua. *2020ko udarako ezarritako gasolinaren zehaztapenen ondorio-data aldatzea.*

1. Txinparta bidez pizten den motorra duten ibilgailuetan erabiltzeko diren gasolinaren ezaugarriek udan eta neguan muga desberdinak badituzte urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretuak I. eranskinean ezartzen duenaren arabera, salbuespen gisa, 2020ko ekitaldirako, eta urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretuaren 6. artikuluan aipatzen den jakinarazpena eragotzi gabe, ulertuko da maiatzaren 1etik ekainaren 30era bitarteko aldian ezaugarriok zehaztapenetara egokitzen direla, udako gutxieneko muga eta neguko gehieneko muga errespetatzen badituzte (urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretuaren bidez, gasolinaren, gasolioen, fuel-olioen eta petrolio-gas likidotuen zehaztapenak ezartzen dira eta bioerregai batzuen erabilera eta itsasoan erabiltzen diren erregaiei sufre kopurua arautzen dira).

2. Energiaren Estatu Idazkaritzaren titularraren ebazpen baten bidez, 1. apartatuan ezartzen den epealdiaren amaiera-data aldatu ahal izango da, gasolina-eskariaren bilakaeraren eta 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako alarma-egoeraren iraupenaren arabera (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko).

Gainera, Energiaren Estatu Idazkaritzaren titularrak behar duen informazio guztia eskatu ahal izango die handizkako eragileei eta petrolio-produktuak garraiatzeko edo biltegiatzeko instalazioen titularrei.

46. artikulua. *Aldi baterako konpentsazioa estatu osoan tokiko lurreko telebista digitalaren zerbitzua nahitaez emateak eragiten dituen gastu batzuentatik.*

Salbuespen gisa, hamabost milioi euroko laguntzak onartzen dira estatu osoan tokiko lurreko telebista digitalaren zerbitzua ematen dutenei sei hilabetez nahitaez biztanleriaren ehuneko jakin baten estaldura mantentzeak eragiten dizkien gastuetako batzuk konpentsatzeko.

Kostuen konpentsazio hori arautzen duen tresnan zehaztuko da zer jarduera finantzatzeko diren, zer gastu finantzatzeko diren, zer baldintza bete beharko diren eta zer prozedura beteko den konpentsazioa jasotzeko eta nor diren onuradunak.

III. KAPITULUA

Beste neurri batzuk

47. artikulua. *COVID-19ari aurre egiteko dohaintzak.*

COVID-19ak eragindako osasun-krisiak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzeko egiten diren dohaintzak Altxor Publikoaren ES17 9000 0001 2002 5001 2346 kontuan

sartuko dira, edo horretarako ezartzen den beste kontu batean. Dohaintza horiek kreditua sortuko dute, Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak arautzen duen bezala, Osasun Ministerioan; aurrekontu-aplikazioa: 26.09.313A.228 «COVID-19aren ondorioz Espainian gertatutako osasun publikoaren larrialdiak Osasun Sistema Nazionalari eragindako gastuak». Dohaintzak ez dira berariaz onartu beharko.

COVID-19aren aurka borrokatzeko dohaintzan ematen diren ekipamenduak eta hornidurak ondasun higigarriak badira, onartutzat joko dira Osasun Ministerioak edo hark hartzaile izendatzen duen organoak edo erakundeak jasotze hutsagatik.

Ondasun higiezinaren dohaintzak Ogasuneko ministroak onartuko ditu, administrazio publikoaren ondareari buruzko legerian arautzen den moduan. Ondasun higiezin horiek zuzenean erabili ahal izango dira COVID-19aren aurkako borrokarako, edo, bestela, besterendu egin ahal izango dira eta lortzen dena helburu horretarako erabili.

Horrela lortzen den dirua COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko gastuak finantzatzeko baino ez dira erabiliko. Hain zuzen ere, honako gastu hauei erantzuteko erabili ahal izango dira: osasun-arloko ekipamenduak eta azpiegiturak, materiala, hornidurak, langileen kontratazioa, ikerketa, eta COVID-19aren krisiari erantzuteko ahalmenak indartzen laguntzen duen beste edozer.

48. artikulua. *Aparteko neurriak Estatuaren sektore publikoko entitateek 2019. urteko kontuak egiteko eta emateko epealdiei eta Estatuaren Kontu Orokorra Kontuen Auzitegira bidaltzeko epealdiei dagokienez.*

1. Estatuaren sektore publikoko zuzenbide publikoko entitateek arautegian ezartzen diren epealdietan egin eta eman beharko dituzte 2019ko kontuak. Hala ere, alarma-egoeraren deklarazioa dela-eta hori ezinezkoa bada eta kontu-emaileak hala erabakitzen badu eta Estatuko Administrazioko Kontu Hartzailetza Nagusiari jakinarazten badio, etenda geratuko dira aplikatzeko den arautegian ezartzen diren epealdiak egoera hori deklaratzeko denetik, eta berriz hasiko dira zenbatzen egoera hori desagertzen denean, edo alarma-egoeraren benetako iraunaldia beste luzatuko da aurreikusitako epea.

2. Era berean, kontuak eta gainerako finantza-informazioa Kontu Auzitegira igortzeari buruzko arautegian ezartzen diren epealdiak etenda gelditzen dira alarma-egoeraren deklaratu zenetik, eta berriz hasiko dira zenbatzen egoera hori desagertzen denean, edo alarma-egoeraren benetako iraunaldia beste luzatuko da aurreikusitako epea.

3. Aurreko aurreikuspenak tokiko sektore publikoari aplikatuko zaizkio; toki-entitateen kontu orokorrak izapidetzeko epealdietan ere izango dute eragina, eta autonomia-erkidegoetako sektore publikoari ere aplikatu ahal izango zaizkio, ordezkio gisa.

49. artikulua. *Estatuko sektore publikoko organismo autonomoen eta beste entitate batzuen baliabide likidoak.*

COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren aurkako borroka ekarritako gastuei aurre egiteko, xedatzen da Altxor Publikoaren kontu batera (zehaztuko da) transferituko direla Estatuko sektore publikoko organismo autonomoen eta beste entitate batzuen baliabide likidoak, Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 45. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik.

Ogasuneko ministroari baimena ematen zaio eskura dauden baliabide likido guztiak edo batzuk Altxor Publikoan sartzeko eskatzeko, kotizazioetatik eta baterako bilketaren kontzeptuetatik datozenak izan ezik, baldin eta aipatutako jarduera finantzatzeko beharrezkoak ez badira.

Zenbateko horrek kreditua sortu ahal izango du 35. atalean («Kontingentzia funtsa») gizartearen eremu guztietan eragina duen osasun-krisi horri aurre egiteko beharrezkoak diren gastuei eta jarduketari aurre egiteko, ez beste ezertarako. Helburua izango da krisiak enpleguan eta kolperik gogorrena hartu duten pertsonengan eta sektoreetan dituen ondorioak arintzea, edo COVID-19aren ondoriozko krisiari erantzuteko gaitasuna indartzeko egin beharreko gastuei aurre egitea.

Ogasuneko ministroak baimena emango du beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketa guztiak egiteko.

Salbuespen gisa, Estatuko Aurrekontu Orokorrren lege berria indarrean jarri arte, 35. atalaren («Kontingentzia funtsa») zenbatekoa Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 50.1 artikuluan ezartzen duen mugatik gorakoa izan ahal izango da.

50. artikulua. *Autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiak kolpatutako enpresei eta langile autonomoei emandako maileguen ezohiko geroratzea.*

1. Autonomia-erkidego edo toki-entitate baten titulartasuneko kreditu edo finantza-mailegu baten hartzaile diren enpresek eta langile autonomoek eskatu ahal izango dute 2020a amaitu arte printzipalagatik edota interesengatik ordaindu beharrekota geroratzeko. Ezohiko geroratze hori lortzeko, beharrezkoa da COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren edo bera arintzeko ezarritako neurrien ondorioz enpresa edo autonomo horiek jarduerarik gabeko aldiak edukitzea, salmenten bolumenaren murrizketa nabarmena gertatzea edo balio-kateko horniduran etenaldiak izatea, eta horren erruz kreditua edo mailegua ezin ordaindu izatea edo ordaintzen zail izatea. Eskaera norberaren borondatez ordaintzeko epealdia amaitu baino lehen egin beharko da, eta mailegua emateko ebazpena eman duen organoak berariaz baietsi beharko du, artikulua honetan ezartzen denarekin bat etorritik.

2. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 2.1 artikuluen a), b) eta c) letretan ezartzen denaren arabera administrazio publikoen sektorean dauden entitateek emandako finantza-maileguei baino ez die eragingo manu honek, baldin eta mailegu-hartzaileen finantza-pasiboan badaude (hartzaileak sektore publikokoak ez diren enpresa-entitateak eta langile autonomoak izango dira).

Manu honetan arautzen den ezohiko geroratzea ezin aplikatu izango da mailegua ematen duen administrazio publikoak antzeko neurria ezarrita badauka lehendik.

Kreditu-entitateekin egindako hitzarmenen esparruan ematen diren finantza-maileguen kasuan, geroratze eta aldaketa guztiak alderdiek adostu beharko dituzte.

Kasuan kasuko administrazioak ezartzen dituen neurriak gorabehera, ezohiko geroratzea hori honako hauei ere ezin izango zaie aplikatu: partaidetzako maileguei, arrisku-kapitaleko eragiketei, estaldura-tresnei, deribatuei, dirulaguntzei, finantza-abalei eta, oro har, merkatuko finantza-maileguekin bat ez datozen finantzen arloko eragiketa guztiak.

3. Aurkeztutako eskabidean honako hauek jaso beharko dira

a) Justifikazio-memoria; bertan frogatu behar da ez dagoela mugaeguneratutako ordainketei aurre egiteko behar beste diru, edo ordaintzeko eragozpen handiak daudela, aurreko apartatuan ezartzen denaren arabera. Justifikazio horrek honako hauek jaso behar ditu: kontuen egoera, 1. apartatuan aipatzen dena gertatu aurretikoa; azalpen kualitatibo eta kuantitatibo bat, ondorio horiek nola gertatu diren azaltzen duena; ondorioen balorazio ekonomiko eta finantzarioa, eta ondorioak arintzeko jarduketa-plana. Baliabide-eskasia edo ordaintzeko eragozpen handiak daudela frogatzen duten agiri guztiak aurkeztu ahal izango dira, zuzenbidearekin bat etorritik gero. Administrazioak erabaki dezake eskaera egiteko eta dokumentazioa eranste-formulario normalizatu bat erabili behar izatea.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, non adieraziko baita enpresak bete dituela ordura arte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, ez duela Administrazioarekin laguntzak edo maileguak itzultzeagatik zorrik eta, behar denean, beteak dituela Merkataritza Erregistroan kontuak aurkezteko betebeharrak.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, esaten duena Batasunaren araudiak Estatuko laguntzei dagokienez ezarritako laguntzen intentsitate-mugak eta gainerako erregulazioa errespetatzen direla.

Aurreko dokumentazioan geroratzea onartzeko oinarritzat erabili den datu faltsurik edo aizundurik badago, mailegu osoa behar baino lehen mugaeguneratuko da; gainera, baliteke beste erantzukizun batzuk ere aplikatu behar izatea.

4. Geroratzea mailegua eman duen administrazioko organoak eman ahal izango du, ogasunaren eta aurrekontuen arloko eskumenak dauzkan sailak edo zinegotzitzak aldeko txostena eman ondoren. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epealdia hilabetekoa izango da eskaera egiten denetik aurrera. Epealdi horretan ebazpena emateko eskumena daukan organoak ebazpena jakinarazten ez badu, interesdunak legitimatuta egongo dira eskaera ezetsi dela ulertzeko. Geroratzeko eskaera aurkezten denetik ebazpena (berariazkoa zein ustezkoa) eman ondoren hamabost egun pasatu arte ezin aplikatu izango dira maileguaren epemugak gainditutako ordainketak ez egitearekin lotutako alde aurreko mugaeguneratzeari buruzko klausulak.

5. Eskaera baiesten bada, ordainketen egutegia aldatuko da: maileguaren gehieneko epealdia errespetatuko da, eta geroratutako kuotak zatikatu ahal izango dira. Geroratzen diren kuoten interes-tasa geroratutako maileguari edo kredituari ezarritakoa izango da. Ez da aplikatuko ez gasturik ez finantza-kosturik.

51. artikulua. *Ekonomiaren eta finantzen arloetako informazioa emateko betebeharrak sendotzea.*

1. Autonomia-erkidegoek eta toki-korporazioek ekonomiaren eta finantzen arloetan eskatzen den informazioa emango diote, COVID-19arekin lotuta egiten diren jarduketan ondorioei buruzkoa, Ogasun Ministerioari, bai eta errege lege-dekretu honetan ezartzen diren xedapenak betetzeko edo erkidegoko nahiz nazioarteko arauak edo erakundeek eskatzen duten beste edozein informazio-eskaerari erantzuteko behar den informazio guztia ere. Ministerioak zehaztuko du zenbatean behin eman beharko duten.

2. Hain zuzen ere, zehazten den beste informazio ekonomiko eta finantzario batzuk edo arlo horretan ondoren erabakitzen diren aldaketak gorabehera, autonomia-erkidegoek hileroko bidaliko dute errege lege-dekretu honen I. eranskinean ezartzen den informazioa: hil bateko informazioa hurrengo hilaren 15a baino lehen igorriko da. Toki-entitateek hiru hilean behin bidali beharko dute II. eta III. eranskinean ezartzen den informazioa.

3. Honen bitartez zentralizatuko da autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek errege lege-dekretu honen arabera eman beharreko informazioaren bidalketa:

a) Autonomia-erkidegoetan: kontu-hartzailetza nagusia edo kontabilitatearen gaineko eskumenak dauzkan unitate baliokidea.

b) Toki-entitateetan: kontu-hartzailetza edo horren egitekoak dauzkan unitatea.

4. Ogasun Ministerioiko organo eskudunari ahalmena ematen zaio autonomia-erkidegoek eta toki-korporazioek eman beharreko informazioa zehazteko eta bidaltzeko prozedura eta horretarako epealdia finkatzeko behar diren jarraibideak edo ebazpenak emateko, bai eta formularioak zabaltzeko edo aldatzeko behar direnak emateko ere.

5. Ogasun Ministerioak errege lege-dekretu honetan ezartzen denaren arabera bidaltzen den informazioa zabaltzeko edo argitaratu ahal izango du; berak erabakiko du nola, zer eta non zabaltzeko edo argitaratzen duen.

6. Informazioa baliabide elektronikoen bidez bidaliko da, Ogasun Ministerioak hartarako prestatzen dituen eredu normalizatuak eta sistema erabiliz, eta onartutako ziurtagiri batean oinarritutako sinadura elektronikoen aurreratuaren bidez, Sinadura Elektronikoa buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearekin bat etorritik, betiere Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak hori erabili beharrik ez dagoela erabaki ezean.

7. Bai ezarritako epeei, edukiaren zuzentasunari eta datuen egokitasunari dagokionez eta bai bidalketa-moduari dagokionez errege lege-dekretu honen xedapenek dakartzaten informazioa emateko betebeharrak ez betetzeak ekar dezake Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak 20. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen dituen neurriak ezartzea, autonomia-erkidegoari edo

toki-korporazioari hamar egun balioduneko epealdian betetzeko errekerimendua egin ondoren. Erantzukizun pertsonala gorabehera, Ogasun Ministerioak egindako errekerimenduen berri eman ahal izango du, edo ez direla betetzen jakinarazi.

52. artikulua. *Aduana-aitorpenen ondoriozko zorrak geroratzea.*

1. Estatuko zerga-administrazioaren eskumenen esparruan, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 65. artikuluan aipatzen diren geroratzeak direla eta, honako kasu honetan onartuko da errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2020ko maiatzaren 30era arte (biak barne) aurkezten diren aduana-aitorpenei dagozkien zerga-zorren ordainketa geroratzea: egun horretara arte aurkezten diren eskaerek aipatu den legearen 82.2.a) artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte eta geroratu nahi den zorraren zenbatekoa ez bada ehun euro baino gehiago.

2. Aurreko apartatuan ezartzen dena ez zaie aplikatuko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legeak 167. artikulua bigarren apartatuaren bigarren paragrafoan ezartzen duenarekin bat etorritik likidatzen diren balio erantsiaren gaineko zergaren kuotei.

3. Ordainketa geroratzeko eskaera aduana-aitorpenean bertan egin behar da, eta aduana-zorra jakinarazteko ezartzen den eran jakinaraziko da onarpena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EB) Erregelamenduak (Europar Batasuneko Aduana Kodea ezartzen duenak) 102. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

4. 58/2003 Legeak 65. artikulua 3. apartatuan ezartzen duenari dagokionez, salgaia hartu eta eramateko jarritako bermea baliozkoa izango da geroratzea lortzeko; halakoetan, bermea aduana- eta zerga-zorren ordainketari atxikita egongo da zergapekoak geroratutako diru guztia ordaindu arte. Nolanahi ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EB) Erregelamenduak (Europar Batasuneko Aduana Kodea ezartzen duenak) 112. artikulua 3. apartatuan ezartzen duena bete beharko da.

5. Ordainketa geroratzea onartzeko, ezinbestekoa izango da inportatzen den salgaiaren jasotzailearen 2019. urteko eragiketen bolumena 6.010.121,04 eurotik gorakoa ez izatea.

6. Ordainketa geroratzeko baldintzak:

a) Epealdia sei hilekoa izango da zorra ordaintzeko epealdia amaitzen denetik aurrera; zorra ordaintzeko epealdia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EB) Erregelamenduak (Europar Batasuneko Aduana Kodea ezartzen duenak) 108. artikuluan arautzen duenarekin bat etorritik zehaztuko da.

b) Geroratzearen lehen hiru hiletan ez da berandutze-interesik sortuko.

53. artikulua. *Epealdien etendura autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen zerga-esparruan.*

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 33. artikuluan xedatzen duena honako hauei aplikatuko zaie: Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean eta bera garatzen duten erregelamenduetan ezartzen denaren arabera autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako zerga-administrazioek egiten dituzten jarduketei eta izapideei eta darabiltzaten prozedurei. Toki-entitateei dagokienez, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren arabera egiten diren jarduketei eta izapideei eta erabiltzen diren prozedurei ere aplikatuko zaie (testu bategin hori martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

54. artikulua. *Dirulaguntzei eta laguntza publikoei buruzko neurriak.*

1. Dirulaguntzak emateko prozeduretan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.1 artikuluan arautzen diren dirulaguntzetara eta laguntza

publikoetara deitzeko eta haiek emateko aginduak eta ebazpenak, 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzen denerako emanda egon direnak, aldatu ahal izango dira diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko epealdiak luzatzeko (eta, behar denean, jarduerak egin direla justifikatzeko eta egiaztatzeko epealdiak luzatzeko ere bai), nahiz eta oinarri arautzaileetan aukera hori ez agertu.

Hori dela eta, organo eskudunak honako bi inguruabar hauek baizik ez ditu justifikatu beharko: diruz lagundutako jarduera ezin dela egin alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, eta egoera hori amaitu ondoren gelditzen den denbora ez dela aski izango diruz lagundutako jarduera egiteko edo egin dela justifikatzeko edo egiaztatzeko.

2. Halaber, onuradunak eskatuta, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 artikuluan arautzen diren dirulaguntzak emateko ebazpenak eta hitzarmenak ere aldatu ahal izango dira, aurreko apartatuan ezartzen diren baldintza eta betekizun berberekin, eta horretarako, gainera, ez da egongo lege horren 28.2 artikuluan ezartzen den errege-dekretua aldatu beharrik. Hala ere, dirulaguntzaren xedea erakunde baten funtzionamendu-gastuak finantzatzea bada, xedea gauzatzeko hasieran ezarritako epealdia ezin izango da aldatu.

3. Aldaketa horiek egiteko, ez da beharrezkoa 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzea. Gainera, aldaketa horiek egiteak ez dauka inolako eraginik xedapen gehigarri horren 1. apartatuan arautzen diren epealdietan.

Lehen xedapen gehigarria. *CERSAren COVID-19aren bermeen lerroa.*

Kreditu-gehigarri bat ematen zaio Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioari CERSA Compañía Española de Reafianzamiento SME SAren hornidura teknikoen funtsa hornitzeko erabiltzen duen aurrekontu-partida handitzeko: 60 milioi €; kontzeptua: 747.01 «CERSA Compañía de Reafianzamientorentzat»; programa: 433M «Enpresa txiki eta ertainentzako laguntzak». Kreditu-gehigarri hori finantzatzeko, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 55. artikuluan arautzen dituen moduak erabili ahal izango dira.

Bigarren xedapen gehigarria. *2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana arautzen duen martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuak ezartzen dituen baldintza orokorrak aplikatzea.*

Errege lege-dekretu honetan aipatzen diren 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planeko laguntza-programa berriei (gehikuntza, ordezte zein aldaketaren ondoriozkoei) martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuan arautzen diren xedapenak aplikatuko zaizkie, oro har, errege lege-dekretu honetan arautzen diren salbuespenekin.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Sustapen Ministerioa zenak autonomia-erkidegoekin eta Ceuta eta Melilla hiriekin 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana gauzatzeko sinatutako hitzarmenei laguntza-programa berriak txertatzea.*

Errege lege-dekretu honetan aipatzen diren 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planeko laguntza-programa berriak (gehikuntza, ordezte zein aldaketaren ondoriozkoak) sartu ahal izango dira Sustapen Ministerioa zenak autonomia-erkidegoekin eta Ceuta eta Melilla hiriekin 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana gauzatzeko sinatutako hitzarmenetan. Beraz, programa horiek administrazioek hitzarmen horietan konprometitutako funtsen kargura finantzatu ahal izango dira.

Horretarako, jarraipenerako bitariko batzordeak, zeinak arautu baitziren martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuaren 74. artikuluan eta orduan Sustapen Ministerioa zenak 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana gauzatzeko autonomia-erkidegoekin eta Ceuta eta Melilla hiriekin sinatu zituen hitzarmenen hamabosgarren klausulan, laguntza-programa berriak sartu ahal izango dituzte hasierako aurrekontuetako doikuntzetan, dauden programen artean banatuta, lankidetzeta-hitzarmenean ezarritako esparru orokorra

errespetatuta; gainera, adosten diren berrantolaketek ezin dute eragin gehikuntzarik Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak urtero eman beharreko aurrekontu-zuzkiduretan, eta ez dira luzatuko 2021eko ekitaldiaz gero.

Laugarren xedapen gehigarria. *Doikuntzak egitea, hasieran pentsatutako banaketa egokituta, hitzarmen bakoitzerako baliagarri dauden funtsak 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planeko programen artean banatzean.*

Jarraipenerako bitariko batzordeak, zeina aurreikusten baita Sustapen Ministerioa zenak autonomia-erkidegoekin eta Ceuta eta Melilla hiriekin 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana (eta haren aldaketak) gauzatzeko sinatutako lankidetzak-hitzarmenetan edo gaur egungo Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak sinatzen dituenetan, doikuntzak egin ahal izango ditu hasieran laguntza-programen artean ezarritako funts-banaketan; gainera, planaren finantzaketan egiten diren aldaketengatik, beharrezkoak diren beste doikuntza batzuk ere egin ahal izango ditu, betiere lankidetzak-hitzarmenean ezarritako esparru orokorraren barruan. Banaketan egiten diren doikuntzek ezin dute eragin gehikuntzarik Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak urtero eman beharreko aurrekontu-zuzkiduretan, eta ez dira luzatuko 2021eko ekitaldiaz gero.

Programen arteko funts-banaketa doitzeko erabakiak doikuntza aplikatzen den ekitaldia amaitu ondoren ere hartu ahal izango dira, batez ere lankidetzak-hitzarmenak likidatzen direnean.

Bosgarren xedapen gehigarria. *2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planeko alokairurako laguntzak emateko baldintzak betetzen diren egiaztatzea.*

1. Autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren egiaztatu ahal izango dituzte 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planaren kargura finantzatzen diren alokairurako laguntzetakoren baten onuradunek (are COVID-19ak ohiko etxebizitzaren alokairuetan duen eragin ekonomiko eta soziala minimizatzeko laguntzen programakoek ere) bete beharreko baldintzak betetzen dituzten, eta bete beharko dituzte, laguntza jasoko badute.

2. Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, laguntza emateko ebazpenaren ondoren eta —hala denean— laguntzaren zati bat edo osorik ordaindu ondoren egiaztapenaren bitartez jakiten badute onuradun batek ez duela betetzen baldintzaren bat, erabaki beharko dute laguntza deuseztatuta edo etenda gelditzen dela baldintza betetzen ez den egunetik, eta, behar den kasuetan, dirua itzultzeko eskatu beharko dute, aplikatzen den arautegiarekin bat etorritik.

Seigarren xedapen gehigarria. *Indar Armatueta kideen mugikortasun geografikoa sustatzeko neurrien uztailaren 9ko 26/1999 Legearen mende egonik etxebizitza militarren erabiltzaile direnen araubidea.*

Errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurriak Indar Armatueta kideen mugikortasun geografikoa sustatzeko neurrien uztailaren 9ko 26/1999 Legea bete behar duten eta etxebizitza militarrek erabiltzen dituzten horiei aplikatuko zaizkie, baldin eta errege lege-dekretu honen 5. artikuluan ezartzen diren kalteberatasun ekonomikoko kasuetako batean badaude.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *2020ko lanbide-heziketako kuotaren bilketaren ondoriozko funtsak.*

Bat. Salbuespen gisa, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko onartutako neurrien eragin ekonomikoa dela eta, 2020ko ekitaldian lanbide-heziketako kotizazioen bidez biltzen diren diru-sarrerak langabezia-babeseko sistemaren prestazioak eta ekintzak finantzatzeko erabili ahal izango dira (prestazio eta ekintza horiek urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak zehazten ditu, Gizarte Segurantzaren Lege

Orokorrenaren testu bategina onartzen duenak, 265. artikuluan), bai eta langabeen kontratazioa sustatzeko edo langabeek enplegua lortzeko programak finantzatzeko ere.

Bi. Aldatu egiten da uztailaren 3ko 6/2018 Legea, Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorrena; hain zuzen ere, ehun eta hogeita laugarren xedapen gehigarriaren lehen apartatua; hona testu berria:

«Beste finantzaketa-iturri batzuk gorabehera, lanbide-heziketako kuoten bidez biltzen diren funtsak Lan-arloko Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legeak arautzen duen lanbide heziketako sistemaren gastuak finantzatzera bideratuko dira, erregelamendu baten bidez ezartzen den proportzioan, baita enplegu eta prestakuntzarako programa publikoen gastuak finantzatzera ere. Kontua da enpresen, langileen eta langabeen artean haien premiei erantzungo dien prestakuntza bat bultzatzea eta zabaltzea, ezagutzen oinarritutako ekonomia garatzen lagunduko duena.»

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Errekurtsa aurkezteko epealdia luzatzea.*

1. Administrazio-bidean errekurtsuak jartzeko epealdia, edo legeetan ezartzen denaren arabera horien ordezkari aurkaratzeko, erreklamatzeko, adiskidetzeko, bitartekaritzako eta arbitrajeko prozedurak eskatzeko epealdia, alarma-egoeraren deklarazioaren indarraldia amaitu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera zenbatuko da interesdunarentzat ondorio kaltegarriak edo kargak sor daitezkeen prozeduretan, kontuan hartu gabe zenbat denbora igaro den errekurtsua jarri zaion edo aurkaratu den administrazio-jarduketa jakinarazi denetik alarma-egoera deklaratu baino lehen. Aurrekoa gorabehera, errekurtsua jarri zaion edo aurkaratu den administrazio-egintza eraginkorra izango da eta bete egin beharko da.

2. Hain zuzen ere, zergen arloan, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri zenetik 2020ko apirilaren 30era bitarteko aldiari, 2020ko apirilaren 30etik aurrera zenbatuko da Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamenduek arautzen dituzten berraztertze errekurtsuak edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak aurkezteko epealdia, eta bai aurkaratutako egintza edo ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatu beharreko hilabeteko epealdia 2020ko martxoaren 13rako amaitu ez den kasuetan eta bai errekurtsua edo erreklamazioa aurkeztu zaion administrazio-egintza edo ebazpena jakinarazi gabe dagoen kasuetan aplikatuko da. Neurri bera aplikatuko zaie Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginean arautzen diren zerga arloko berraztertze errekurtsuak eta erreklamazioak ere (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

Bederatzigarren xedapen gehigarria. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua aplikatzea.*

1. COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzen denetik 2020ko apirilaren 30era arteko aldia ez da zenbatuko organo ekonomiko-administratiboaren ebazpenak betearazteko epealdiaren gehieneko iraupenerako.

2. COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzen denetik 2020ko apirilaren 30era arte etenda egongo dira zergen arloko arautegian arautzen diren ekintza eta eskubide guztien preskripzio-aldiak eta iraungitze epealdiak.

3. Aurreko apartatuetan ezartzen dena honako hauei aplikatuko zaie: Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren eta beraren erregelamenduen arabera Zerga Administrazioako Estatu Agentziak, Ogasun Ministerioak edo autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen zerga-administrazioek egiten dituzten prozedurei, jarduketei eta izapideei.

Toki-entitateei dagokienez, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testuateginaren arabera egiten diren prozedurei, jarduketei eta izapideei ere aplikatuko zaie (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testuategin hori).

4. COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 33. artikuluan zergen arloko zorrozez ezartzen duena gainerako baliabide publiko guztiei aplikatuko zaie.

Hamargarren xedapen gehigarria. *Justifikatu beharreko ordainketak egiteko epealdiak luzatzea.*

Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 79.4 artikuluan alarma-egoerak irauten duen bitartean amaitzen den edo aldi horren barruan igarotzen den justifikazio-kontuak emateko epealdia hilabete luzatuko da. Nolanahi ere, epealdi hori alarma-egoera amaitu eta hilabete igaro arte luzatuko da. Luzapen horrek berekin ekarriko du, halaber, Kanpoko zerbitzuetan erabilgarri dauden funtsen jarraipenari eta kontabilitate-aplikazioari buruzko uztailaren 29ko 938/2005 Errege Dekretuak 3.1 eta 7.1 artikuluetan ezartzen dituen epealdiak luzatzea, hau da, kanpoko zerbitzuetan erabilgarri dauden funtsen «kudeaketa-kontua» bidaltzeko epealdia eta 7.1 artikuluan aipatzen den epealdiaren barruan konpentsatu ezin diren funtsak Altxor Publikora edo dagokion erakundearen kontura transferentzia egiteko epealdia.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Behin-behineko neurriak ziurtagiri elektronikoko kualifikatuak emateko.*

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoera indarrean dagoen bitartean ziurtagiri elektronikoko kualifikatuak eman ahal izango dira; horretarako, uztailaren 23ko 910/2014 (EB) Erregelamenduak (identifikazio elektronikoa eta barne-merkatuko transakzio elektronikotarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoak) 24.1.d) artikuluan ezartzen duena bete beharko da. Hori dela eta, erakunde ikuskatzaileak bideokonferentzia bidezko identifikazio-metodoak onartuko ditu; zehazki, Kapital Zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordearen zerbitzu exekutiboak baimendutako prozeduretan edo Europar Batasuneko beste estatu batek ziurtagiri kualifikatuak emateko onartutako prozeduretan oinarritzen direnak. Segurtasun-mailaren baliokidetasuna adostasuna ebaluatzen duen erakunde batek ziurtatuko du. Horrela ematen diren ziurtagiriak alarma-egoera amaitzen denean ezeztatu beharko dituzte zerbitzu-emaeleak. Titularren eta administrazio publikoen arteko harremanetarako baino ezin izango dira erabili.

Hamabigarren xedapen gehigarria. *Unibertsitateek irakasle eta ikerlariei egiten dizkieten kontratu batzuen iraunaldiari buruzko arauak.*

Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak 49., 50., 53. eta 54. artikuluen arabera laguntzaileei, irakasle laguntzaile doktoreei, irakasle elkartuei eta irakasle bisitariei egiten zaizkien kontratuen gehieneko iraunaldia, alarma-egoera eta beraren luzapenak indarrean dauden bitartean amaitzeko bada, luzatu egingo da, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezartzen duenarekin bat etorriz, hurrengo apartatuetan ezartzen diren arauak aplikatuz, alderdiek besterik itundu ezean.

Luzapen horrek indarrean iraungo du alarma-egoera eta beraren luzapenak indarrean dauden bitartean. Aparteko kasuetan, eta arrazoiak frogatuta, alderdiek kontratua luzatzea adostu ahal izango dute kontratua amaitu baino lehen: gehienez hiru hilabete alarma-egoera eta beraren luzapenak amaitu ondoren.

Xedapen gehigarria honen aplikazioaren bidez luzatzen diren kontratuen iraunaldia abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan kontratu horietarako ezartzen den gehienekoa baino luzeagoa izan daiteke.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Ikerketaren arloko giza baliabideen eta Osasun Sistema Nazionalean kontratatutako langileen integrazioarako deialdi publikoen finantzaketaren kargura sinatutako lan-kontratuei aplikatzen zaizkien arauak.*

1. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 12ko 14/2011 Legearen esparruan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Sistemako finantzaketa-eragileek egindako giza baliabideen laguntzen deialdietako finantzaketaren kargura eta edozein lan-modalitatetan iraunaldi jakineko lan-kontraturen bat sinatu duten entitateek luzatu ahal izango dute kontratu horien indarraldia, xedapen gehigarri honetan ezartzen denarekin bat etorritik, baldin eta lan-kontratu horiek amaitzeko urtebete edo gutxiago falta bada.

2. Adostu ahal izango da kontratuen iraunaldia COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiaren ondoriozko alarma-egoerak eta haren luzapenak irauten duten artean luzatzea, 463/2020 Errege Dekretuak (martxoaren 14koa, alarma-egoera deklaratzeko duena COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko) ezartzen duenarekin bat etorritik. Arrazoiak frogatuz gero, kontratuak hiru hilabete luzatu ahal izango dira gehienek alarma-egoera eta beraren luzapenak amaitu ondoren.

Gainera, kontratua eten bada kontratatutako pertsona Osasun Sistema Nazionalean sartu eta hala COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiko egoeraren ondoriozko kontingentziei erantzuteko, etendurak irauten duen denbora aurreko paragrafoan arautzen den epealdiari gehituko zaio.

3. Nolanahi ere, lan-kontratuaren eta beraren luzapen guztien guztirako iraunaldia ezin da izan ekainaren 1eko 14/2011 Legeak ezartzen duen gehienekoa baino luzeagoa.

4. Lan-kontratuak luzatzeko, entitate kontratatzaileak eta langileak hitzarmena sinatu beharko dute kontratuaren mugaegunera iritsi baino lehen.

5. Luzapenaren ondoriozko lan-kostuak eta gizarte-kostuak deialdia egiten duen organoaren, erakundearen edo entitatearen aurrekontuen kontura finantzatuko dira, kasuan kasuko deialdian ezartzen diren baldintza ekonomiko berberetan. Deialdia egiten duten erakundeko goi-organoetako eta zuzendaritza-organoetako titularrei, presidenteei eta zuzendariak baimena ematen zaie finantzaketa horretarako beharrezkoak diren aldaketak egiteko aurrekontuetan, diruzaintzako gerakinen kargura egiten direnak barne, bai eta bidezko gastu-espedituentzako berriro urtekotzeko ere.

6. Deialdia egiten duten organoek eta erakundeek behar diren ebazpenak eman ahal izango dituzte beren laguntza-deialdietan ezarritako baldintzak errege lege-dekretu honetan arautzen dena egokitzeak. Ebazpen horien bidez, laguntzak gauzatzeko eta justifikatzeko baldintzak eta epealdiak aldatu ahal izango dituzte, bai eta kontratu-modalitateen garapen egokiari eta alarma-egoeraren eta aplikazioaren ondoriozko beste gastu-kontzeptu batzuk ere alarma-egoeraren ondorioz eta errege lege-dekretu honetan xedatzen denaren ondorioz.

Hamalagarren xedapen gehigarria. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak seigarren xedapen gehigarrian ezartzen duena aplikatzea arte eszenikoen, musikaren, zinemaren eta ikus-entzunezkoen arloetako enpresei.*

Enpleguari eusteko konpromisoa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak seigarren xedapen gehigarrian ezartzen duena, sektore bakoitzaren ezaugarri berezien eta aplikatu beharreko lan-arautegiaren arabera aztertuko da; batez ere, enpleguan aldagarritasun edo urtarokotasun handia duten enpresen eta enpleguak ekitaldi edo ikuskizun zehatzekin zuzenean lotuta dauden enpresen berezitasunak hartuko dira kontuan (halakoak dira arte eszenikoen, musikaren, zinemaren eta ikus-entzunezkoen arloetako enpresak).

Hain zuzen ere, aldi baterako kontratuen kasuan, enpleguari eusteko konpromisoa ez da bete gabetzat joko kontratua hitzartutako aldia amaitzeagatik edo kontratuaren xede den obra edo zerbitzua burutzeagatik azkentzen denean, ez eta kontratazioaren xede den jardura berehala egin ezin denean ere.

Nolanahi ere, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikulutik 28. artikulura bitartean ezartzen diren neurriak langile guztiei aplikatuko zaizkie, kontratuen iraupena gorabehera (zehatza zein mugagabea).

Hamabosgarren xedapen gehigarria. *COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko giza baliabideen eta bitartekoen arloko neurriak ezartzen dituen martxoaren 15eko SND/232/2020 Aginduaren babesean osasun-profesionalak estatutupeko langile izendatzearen eta erretiro-pentsioen arteko bateragarritasunaren ondorioak.*

1. Autonomia-erkidegoetako agintaritzak eskudunak edo Ceuta eta Melillako hiri autonomoetan Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak (INGESA) estatutupeko izendapenaren bidez berriz ere zerbitzu aktibora aldatzen dituzten osasun-profesional erretiratuek (medikuek eta erizainek) eta langile emerituek eskubidea edukiko dute berriz ere lanean hasten direnean jasotzen ari diren erretiro-pentsioa jasotzeko, modalitate guztietan, gutxienekora iristeko osagarria barne.

2. Ez zaie aplikatuko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duenak) 213. eta 214. artikuluetan ezartzen duena.

3. Onuraduna pentsioduntzat hartuko da ondorio guztietarako.

4. Lan hori egiten den artean urriaren 30eko 8/2015 Errege Lege Dekretuan (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duen errege lege-dekretua) pentsioen mugez, bateraezintasunez eta aukera-eskubideaz ezartzen den araubidea aplikatuko da.

Langile horiek honako babes hau edukiko dute egiten duten lanean:

a) Lan-istripu gisa kalifikatutako medikuaren baja-agiria eginez gero, lan-istripuak eragindako aldi baterako ezintasunaren prestaziorako eskubidea sortuko da, eta hori bateragarria izango da langilea berriz lanean hasi denean jasotzen ari zen erretiro-pentsioarekin.

b) Gaixotasun arrunt gisa kalifikatutako medikuaren baja-agiria eginez gero, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 172. artikuluen a) letran eskatzen diren kotizazioak egiaztatzen badira, gertakizun arruntek eragindako aldi baterako ezintasunaren prestaziorako eskubidea sortuko da, eta prestazio hori bateragarria izango da langilea berriz lanean hasi denean jasotzen ari zen erretiro-pentsioarekin.

c) Langileak, ezintasun iraunkorra duela deklaritzen bada, honako hauen artean hautatu ahal izango du: erretiro-pentsioa jasotzen jarraitu edo lan-istripuak eragindako ezintasun iraunkorreko pentsioa jaso.

d) Erretiratutako profesionala lanera itzultzean egindako lanaren ondorioz edo lanean hiltzen bada, horrek lan-istripuaren ondoriozko heriotzagatiko eta bizirik irauteagatiko prestazioak eragin ahal izango ditu.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. *RED sisteman aritzeko baimenduen gaikuntza.*

Martxoaren 26ko ESS/484/2013 Aginduak arautzen duen Gizarte Segurantzaren eremuan datuak elektronikoki bidaltzeko sistemaren bidez (RED sistema) jarduteko baimena dutenak gaituta egongo dira bitarteko elektronikoen bidez egiteko honako eragiketa hauen eskaerak eta gainerako izapideak, ordezkari gisa diharduten subjektuei dagokienez: zorren ordainketa geroratzea, kotizazioen ordainketen luzamenduak eta Gizarte Segurantzari bidegabe egindako diru-sarreraren itzulketak.

Aurreko paragrafoan aipatzen den gaikuntza Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez zehazten diren beste jarduketak batzuetarako ere erabili ahal izango da.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. *SGIPYMEren finantzaketa-programetan gertatzen diren ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak.*

Aldatu egiten dira urriaren 18ko ICT/1100/2018 Aginduaren 23. artikulua, uztailaren 28ko EIC/742/2017 Aginduaren 29. artikulua eta abuztuaren 1eko ICT/859/2019 Aginduaren 28. artikulua, 3. puntua gehitzeko; hona testua:

«3. COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzean gauzatze-aldian egon diren proiektuetarako, proiektuaren % 100 betetzat joko da, eta ez da itzulketarik proposatuko, baldin eta onuradunak frogatzen badu proiektua ia erabat bete dela eta egiaztatzen bada proiektuan hasieran jarritako helburuak lortu direla.»

Hori dela eta, finantzaketa jasotako inbertsioaren ehuneko 60tik behera gauzatzea erabateko ez-betetzetzat joko da, eta ehuneko 80 edo gehiago gauzatzeari, berriz, ia erabat bete dela iritziko zaio. Betetze-maila bi ehuneko horien artekoa bada, aurreko apartatuan azaltzen den itzulketa partziala aplikatuko da.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Enplegatu publikoen lankidetzak.*

Zerbitzu aktiboan dauden enplegatu publikoek, beren burua eskaintzen badute laguntza emateko beren jatorrizko administrazioaren esparruan zein beste batean osasun-lanetan, lan soziosanitarioetan, enplegu-arloko lanetan, herritar-talde kalteberak babesteko lanetan eta COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz langile gehiago behar diren beste arlo batzuetan, beren ordainsariak sorrarazten jarraituko dute jatorrizko organismoan, eta haien administrazio-egoera ez da aldatuko, ez eta lan-kontratua ere, alarma-egoeraren deklarazioa indarrean dagoen bitartean.

Zerbitzua aurrez aurre zein bertaratu gabeko modalitateetan egin ahal izango da, hierarkian gorago dagoenak aurretik baimena emanda eta langileen arloan eskumena daukan organoari jakinarazita.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Prozesuak bizkortzea.*

Alarma-egoeraren deklarazioa —eta horren luzapenak, egonez gero— indarririk gabe utzi ondoren, Gobernuak, Justizia Ministerioak proposatuta, jarduketa-plan bat onartuko du, ahalik eta lasterren (hamabost egun igaro aurretik, gehienez ere), lan-arloko auziak eta administrazioarekiko auziak eta merkataritza-arloko epaitegietako prozesuak azkartzeko, krisia gainditu ondoren ekonomia ahalik azkarren suspertu dadin.

Hogeigarren xedapen gehigarria. *COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiaren eraginez langabezian geldituz gero edo jarduerari utziz gero pentsio-planak baliatzeko aukera.*

1. Salbuespen gisa, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua (COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena) indarrean jartzen denetik sei hilabete igaro arte pentsio-planetako partaideek beren eskubide kontsolidatuak baliatu ahal izango dituzte honako kasu hauetan:

a) Legez langabezian egonez gero COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiak eragindako aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batengatik.

b) Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak 10. artikuluan ezartzen duenaren ondorioz jendearentzat zabalik egon ezin den establezimendu baten titularra den enpresaburua izanez gero.

c) Norberaren konturako langilea izanez gero, aurretik Gizarte Segurantzaren araubide batean horrela egon bada eta COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiaren eraginez jarduerari utzi badio.

2. Eskubide kontsolidatuen zenbatekoa ezin da izan honako hau baino gehiago:

- a) 1.a) apartatuan arautzen den kasuan, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientearen indarrean dagoen aldiaren jasotzen ez diren soldaten batura.
- b) 1.b) apartatuan arautzen den kasuan, establezimendua jendearentzat zabalik ez dagoen aldiaren jasotzen ez dituen diru-sarrera garbi zenbatetsiak.
- c) 1.c) apartatuan arautzen den kasuan, COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiak irauten duen aldiaren jasotzen ez dituen diru-sarrera garbi zenbatetsiak.

Aurreko paragrafoetan ezartzen diren zenbateko horiek frogatu egin beharko dituzte eskubide kontsolidatuak baliatu nahi dituzten pentsio-planetako partaideek.

3. Erregelamendu bidez, 1. apartatuan arautzen diren kasuetan eskubide kontsolidatuak baliatzeko baldintzak eta betekizunak arautu ahal izango dira.

Kasu guztietan, eskubide kontsolidatuak partaideek eskatuta ordainduko dira, eta eragiketa horiei pentsio-planen prestazioetarako ezarritako zerga-araubidea aplikatuko zaie. Ordainketa partaideak behar diren egiaztagiria aurkeztu eta ondoko zazpi egun baliodunetan egin beharko da.

4. Xedapen honetan xedatzen dena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 51. artikuluan aipatzen diren aurreikuspen-plan aseguratuetako, enpresen gizarte-aurreikuspeneko planetako eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetako aseguratuei ere aplikatuko zaie.

5. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak proposatuta, Gobernuak 1. apartatuan ezartzen den epealdia luzatu ahal izango du pentsio-planen kobrantza eskatzeko, kontuan hartuta COVID-19ak eragindako osasun-krisiak jarduera ekonomikora ekarritako egoeraren ondoriozko egoeran errenta baliatzeko dagoen beharra.

Hogeita batgarren xedapen gehigarria. *Aldi baterako ezintasuna aparteko erabateko konfinamenduan.*

Salbuespen gisa, eta ondorioak konfinamendu-egoera hasten denetik sortuta, baja-partearen bidez babes hori zabalduko zaie 10/2020 Errege Lege Dekretuan aipatzen diren funtsezko zerbitzuak egiteko bizi diren herritik lekualdatu beharra duten langileei, baldin eta bizi diren herria konfinatzea erabaki bada, agintaritzaren eskudunak berariaz ukatu badie lekualdatu ahal izatea eta lana modu telematikoa ezin badute egin lanean ari diren enpresari edo langileari berari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, eta ez badauka beste prestaziorik jasotzeko eskubiderik.

Langilea bizi den herria konfinatzeko erabakia eta lekualdatzeko ezintasuna frogatzeko, udalak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko zaio osasun-zerbitzu publikoaren dena delako organoari. Era berean, lana modu telematikoa ezin dela egin frogatzeko, enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko zaio osasun-zerbitzu publikoaren organo berari; norberaren konturako langileek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko diote.

Hogeita bigarren xedapen gehigarria. *Adingabea zaintzeko sorospenaren eta langabezia-prestazioaren edo jarduerari uzteagatik jasotzen den prestazioaren arteko bateragarritasuna alarma-egoera indarrean dagoen artean.*

1. COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera indarrean dagoen artean, besteren konturako langileek minbizia edo beste gaixotasun larri bat duen adingabea zaintzeagatik 2020ko martxoaren 14an jasotzen duten sorospenean ez dute inolako eraginik edukiko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 22. eta 23. artikuluetan ezartzen dituen arrazoiengatik gertatzen diren kontratu-etendurek eta lanaldi-murrizketek (8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena).

Kasu horietan, enpresaburuak kontratuak eteteagatik edo lanaldia aldi baterako murrizteagatik izapidetzen duen aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak

adingabearen zaintzan ematen ez den lanaldiaren zatiaren arabera bakarrik eragingo dio sorospen hori jasotzen duen langileari.

Horrenbestez, bateragarriak izango dira minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen adingabea zaintzeagatik jasotzen den sorospena eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten ondoriozko lanaldi-murrizketagatik jaso daitekeen langabezia-prestazioa.

Hori dela eta, minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen adingabea zaintzeagatik jaso daitekeen sorospenaren titularra izateagatik lanaldia murriztua duten pertsonen berri eman beharko du enpresak eskaera aurkeztean, eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak eragiten dion lanaldi-zatia zehaztu beharko du.

Alarma-egoera indarrean dagoen artean ez da kotizatu beharko; aldi horretako kotizazioak egintzat joko dira ondorio guztietarako.

2. Aurreko apartatuan xedatzen dena 2020ko martxoaren 14an minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen adingabea zaintzeagatik sorospena jasotzen ari ziren langile autonomoei aplikatuko zaie.

Lehenengo xedapen iragankorra. Etxebizitza utzarazi dieten edo handik bota dituzten pertsonen laguntzeko programaren araubide iragankorra.

Ohiko etxebizitza utzarazi dieten edo handik bota dituzten pertsonen laguntzeko programaren babespean onartutako laguntzak indarrean egongo dira onarpenean ezarritako aldi osoan eta bertan finkatutako zenbateko osoarekin.

Genero-indarkeriaren biktimei, ohiko etxebizitza utzarazi zaien pertsonen, etxerik gabeko pertsonen eta oso kalteberak diren beste pertsona batzuei laguntzeko programa garatzen duen ministro-agindua indarrean jartzen denetik aurrera ez da onartuko laguntza gehiago ohiko etxebizitza utzarazi zaien edo handik bota dituzten pertsonen laguntzeko programaren babesean. Pertsona horiek genero-indarkeriaren biktimei, ohiko etxebizitzatik bota dituzten pertsonen, etxerik gabeko pertsonen eta oso kalteberak diren beste pertsona batzuei laguntzeko programaren babesean araututako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte.

Bigarren xedapen iragankorra. Kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari eta kapitalen zuritzea prebenitzeko neurri batzuei buruzko uztailaren 4ko 19/2003 Legeak 7 bis artikuluan arautzen dituen aribideko eragiketen eta zenbateko murriztuko eragiketen baimena izapidetzea.

Kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari eta kapitalen zuritzea prebenitzeko neurri batzuei buruzko uztailaren 4ko 19/2003 Legeak 7 bis artikuluan arautzen dituen aribideko eragiketen eta zenbateko murriztuko eragiketen baimena izapidetzea.

1. Xedapen honen 2. apartatuan arautzen den prozedura erraztua aplikatuko zaie, aldi baterako, uztailaren 4ko 19/2003 Legearen 7 bis artikuluan aipatzen diren atzerriko zuzeneko inbertsioen eragiketen alde aurreko administrazio-baimenen eskaerei; hona eragiketak:

a) Zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabiliz alderdien arteko adostasuna edo eskaintza loteslea egon dela frogatzen den eragiketak, baldin eta prezioa 8/2020 Errege Lege Dekretua (martxoaren 17koa, COVID-19ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko neurriena) indarrean jarri aurretik ezarri edo zehaztu bada.

b) Zenbatekoa milioi bat euro eta bost milioi euro bitartekoa duten eragiketak, 7 bis artikulua garatzen duen arautegia indarrean jarri arte.

2. Eskaerak Nazioarteko Merkataritza eta Inbertsioen Zuzendaritza Nagusira bidali behar dira. Hark ebartziko ditu eskaerak, Kanpoko Inbertsioen Batzordeak txostena egin ondoren, eta ofizioz aplikatuko du prozeduraren izapidetze erraztua, Administrazio

Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 96. artikuluan arautzen dena.

3. Era berean, aldi baterako eta uztailaren 4ko 19/2003 Legearen 7 bis.1 artikulua azken paragrafoan aipatzen den gutxieneko zenbatekoa erregelamendu bidez ezarri arte, milioi bat eurotik beherako inbertsio-eragiketek ez dute beharko aldez aurreko baimenik».

Hirugarren xedapen iragankorra. *Etxeko Langileen Sistema Berezian dauden pertsonen jarduera-ezagatik jaso dezaketen aparteko sorospena eta aldi baterako kontratua amaitzeagatik jaso daitekeen aparteko langabezia-sorospena.*

1. Jarduera-ezagatik jaso daitekeen aparteko sorospena eta aldi baterako kontratua amaitzeagatik jaso daitekeen aparteko langabezia-sorospena, errege lege-dekretu honetan arautuak, errege lege-dekretu honetan zehaztutako egitate eragileei aplikatuko zaizkie, nahiz eta berau indarrean jarri aurretik gertatu, baldin eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri ondoren gertatu badira.

2. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eskaerak izapidetzeko prozedura ezarriko du errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hilabete igaro baino lehen. Prozedura horretan, formularioak, izapidetze-sistema (presentziala edo telematikoa) eta eskaerak aurkezteko epealdiak zehaztuko dira.

Laugarren xedapen iragankorra. *Hartzekodunen konkurtsoak.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jarri denerako konkurtso bateko epaileak auto batean ebatzi badu martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan ezartzen diren neurriak aplikatu behar direla, ebazpen horrek ondorio guztiak sortuko ditu lege-arau honen II. kapituluaren artututako diren prestazioak onartzeko.

2. Konkurtsoko epaileak ebazpenik eman ez duen eskaerak lan-arloko agintaritzara bidali beharko dira, eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan ezartzen den prozedurari jarraikiz izapidetuko dira, bertan arautzen diren espezialitateekin. Aurretik egindako jarduketak eta hasitako zein betetako kontsultaldia baliozkoak izango dira prozedura berrirako.

Bosgarren xedapen iragankorra. *Errege lege-dekretuan ezartzen diren neurri batzuen aplikazioa.*

Errege lege-dekretu honen 53. artikuluan xedatzen dena martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua indarrean jarri baino lehen izapidetzen hasitako prozedurei aplikatuko zaie.

Azken xedapenetako lehena. *8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena.*

8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena, aldatzen da eta honela gelditzen da:

Bat. 4. artikulua 3. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da idatzita:

«3. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, etenda geratuko da prezio arautuak eguneratzeko sistemei buruzko artikulua hauen indarraldia:

a. Martxoaren 5eko IET/389/2015 Aginduaren 3.5 eta 6. artikulua, hurrengo hiru bihilekoetarako (agindu horren bidez, petrolioaren gas likidotu ontziratuen zerga-aurreko gehieneko salmenta-prezioak automatikoki zehazteko sistema eguneratzen da, eta petroliotik kanalizazio bidez likidotutako gasen zerga-aurreko salmenta-tarifak automatikoki zehazteko sistema aldatzen), non eta gehieneko prezioak automatikoki zehazteko sistemaren aplikazioak ez dakarren ezartzen diren

prezio berriak errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik indarrean egon direnak baino apalagoak izatea.

Aurreko paragrafoaren azken tartekian adierazten dena gertatu ezean, etendurak dirauen artean indarrean izango dira Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko urtarrilaren 14ko Ebazpenean ezarritako gehieneko prezioak (ebazpen horren bidez argitaratu egiten dira 8 kg edo gehiagoko eta 20 kg baino gutxiagoko ontzietan saltzen diren petrolio-gas likidotuen gehieneko prezio berriak, zergak aplikatu aurrekoak; petrolio-gas likidotuak erregai gisa erabiltzeko nahaste-ontziak ez dira horretan sartzen).

b. Ekainaren 22ko ITC/1660/2009 Aginduaren 10. artikulua eta xedapen gehigarri bakarraren bigarren apartatua, hurrengo bi hiruhilekoetarako (agindu horren bidez, gas naturalaren azken errekurtsoko tarifa kalkulatzeko metodologia ezartzen da), non eta bi hiruhilekoetako batean tarifa kalkulatzeko metodoaren aplikazioak ez dakarren ezartzen den azken errekurtsoko tarifa errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik indarrean egon dena baino apalagoa izatea.

Aurreko paragrafoaren azken tartekian adierazten dena gertatu ezean, etendurak dirauen artean Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren 2019ko abenduaren 23ko Ebazpenean ezarritako tarifak egongo dira indarrean (ebazpen horren bidez, gas naturalaren azken errekurtsoko tarifa argitaratzen da).»

Bi. 7. artikulua honela geratzen da idatzita:

«7. artikulua. *Hipoteka-zorraren luzamendua.*

1. Ohiko etxebizitza, enpresaburuen eta profesionalen jarduera ekonomikoari atxikitako ondasun higiezinak eta ohikoaz bestelako etxebizitza alokatuak eskuratzeko hipoteka-zorraren luzamendurako neurriak ezartzen dira, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 19. artikuluari jarraituz, COVID-19aren krisialdiaren ondorioz horiek ordaintzeko arazo handiak dituztenentzat. Neurri horiek errege lege-dekretu honen artikulua honetatik 16 ter artikulura bilduta daude (biak barne).

2. Aurreko apartatuan aipatzen den hipoteka-zorraren luzamendurako, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legeak 5. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak hartuko dira enpresaburu eta profesionaltzat.»

Hiru. 8. artikulua honela geratzen da idatzita:

«8. artikulua. *Hipoteka-zorraren luzamenduaren aplikazio-eremua.*

1. Ohiko etxebizitza erosteko edo enpresaburu edo profesional baten jarduera ekonomikoari atxikitako ondasun higiezina erosteko asmoarekin hartu diren eta errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denean indarrean dauden hipoteka-maileguen kontratuen ondoriozko betebeharrak eteteko errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurriak honako kasu honetan aplikatuko zaizkie kontratu horiei: zordunak martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikuluan ezartzen diren baldintza guztiak betetzen dituenean kalteberatasun ekonomikoko kasuren batean dagoela irizteko.

2. Halaber, aipatutako neurriak zordun nagusien fidatzaileei eta abal-emaleei ere aplikatuko zaizkie, beren ohiko etxebizitzari dagokionez, eta hipoteka-zordunari ezarritako baldintza berekin.

Lau. 12. artikulua honela geratzen da idatzita:

«12. artikulua. *Luzamenduaren eskaera.*

Errege lege-dekretu honen aplikazio-eremuaren barruan dauden zordunek luzamendua eska diezaioke hartzekodunari ohiko etxebizitza edo enpresaburu eta profesionalen jardura ekonomikoari atxikitako ondasun higiezin eskuratzeko hipoteka-maileguaren ordainketen gainean; eskaerak, betiere, errege lege-dekretu honen indarraldia amaitu eta hamabost egun igaro baino lehen aurkeztu behar dira. Luzamendu-eskaerarekin batera, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar dute zordunek.»

Bost. 13. artikulua honela geratzen da idatzita:

«13. artikulua. *Luzamendua onartzea.*

1. Behin errege lege-dekretu honen 12. artikuluan arautzen den luzamendu-eskaera aurkeztuta, entitate hartzekodunak gehienez ere 15 egun izango ditu hura ezartzeko.

2. Luzamendua onarturik, entitate hartzekodunak haren berri emango dio Espainiako Bankuari, eta iraunaldia jakinaraziko dio. Luzamendurik ezean zordunari eskatuko litzaizkiokeen diru kopuruak ez dira mugaeguneratutzat joko. Etendurak dirauen artean ez da sortuko interesik.

3. Etendura aplikatzeko ez da beharko alderdien arteko akordiorik, ez eta kontratu-berrikuntzarik ere, baina eskritura publikoan formalizatu beharko da eta Jabetzaren Erregistroan inskribatu beharko da. Hasierako epealdiaren luzapenaren inskripzioak erabateko ondorioak sortuko ditu inskribatutako tarteko hartzekodunentzat, nahiz eta horiek ados egon ez.

4. Mailegu-emaileak eta luzamenduaren onuradun den mailegu-hartzaileak, kontratua berritzea adosten baldin badute kontratuaren klausuletako terminoak edo baldintzak 13. artikuluan arautzen den etenduraz harago aldatzearen ondorioz, hitzartzen dituzten beste alderdi batzuez gainera, hau ere jasoko dute berritze horretan: errege lege-dekretu honek ezartzen dituen kontratu-betebeharrak etetea, zordunak eskatu bezala, eta interesik ez sortzea etendurak irauten duen bitartean.»

Sei. 14. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«1. 12. artikuluan jasotako luzamendu-eskaerak berekin dakar hipoteka-zorra hiru hilabetez etetea. Beraz, luzamendua indarrean dagoen bitartean ez da aplikatuko hipoteka-maileguaren kontratuan ager daitekeen aurretiaz mugaeguneratzeko klausula.

Etenduraren iraunaldia Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez luzatu ahal izango da.»

Zazpi. 16 bis eta 16 ter artikulua gehitzen dira; hona:

«16 bis artikulua. *Gainbegiratzeko eta zehatzeko araubidea.*

1. Espainiako Bankuak gainbegiratuta jarduten duten entitate mailegu-emaileek honako informazio hau bidaliko diote egunero agintaritza horri, aurreko egun baliodunari buruz:

- a) Zordunek aurkeztutako etendura-eskaeren kopurua.
- b) Onartutako etenduren kopurua.
- c) Etendura-onuradunen kopurua, honetara xehatuta: batetik, zordunak eta abal-emaileak; bestetik, soldatapekoak eta enpresaburuak/profesionalak.
- d) Ordainketa eten den maileguen kopurua.
- e) Amortizatu gabeko saldo bizia, ordainketa eten zaiona.

- f) Zordunaren jardueraren JESN kodea.
- g) Zordunak etendura notario-eskrituran dokumentatzea nahi duen maileguen kopurua.

2. 7.etik 16.era bitarteko artikulua eta artikulua honen lehen apartatua Kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 2. artikulua aipatzen dituen antolamenduko eta diziplinako arauak izango dira.

16 ter artikulua. *Hipoteka-luzamendua eskritura publikoan formalizatzea.*

1. Hartzekodunak ordainduko ditu legeko hipoteka-luzamendua 13. artikulua 3. apartatuari jarraituz formalizatzearen eta inskribatzearen ondoriozko eta 13. artikulua 4. apartatuko kasuetan hipoteka-mailegua berritzea formalizatzearen eta inskribatzearen ondoriozko notariotzako eta erregistroko zergak, eta ehuneko 50eko hobaria aplikatuko zaie, honetara:

a) Eskritura egilesteagatik, hipoteka berritzeko eskriturei dagokien zerga sortuko da, Notarioen Zerga onartzen duen azaroaren 17ko 1426/1989 Errege Dekretuaren I. eranskinaren 1. zenbakiaren 1. apartatuaren f letran aurreikusia, ehuneko 50 murriztuta. Ez da ezer ordaindu beharko jatorrizkoaren zein kopiaren bosgarren foliotik aurrera, kopia ziurtatua izan zein arrunta izan. Gutxieneko zerga 30 eurokoa izango da, eta gehienekoa, 75ekoa.

b) Inskripzioa egiteagatik, berritze aldarazleei dagokien zerga sortuko da, Erregistratzaileen Zerga onartzen duen azaroaren 17ko 1427/1989 Errege Dekretuaren I. eranskinaren 2.1.g artikuluan aurreikusia. Zerga horri ehuneko 50eko hobaria aplikatuko zaio. Gutxieneko zerga 24 eurokoa izango da, eta gehienekoa, 50ekoa.

2. Alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, eta berriz ere ibiltzeko askatasun erabatekoa ezarri arte, ezin formalizatu izango dira 13. artikuluan aipatzen diren eskritura publikoak. Hala ere, horregatik ez da luzamenduaren aplikazioa etengo; aitzitik, hamabost egun pasatu baino lehen aplikatu beharko da, 13.1 artikuluan arautzen den bezala, etendura eskritura publikoan formalizatuta egon zein ez egon.

3. Eskritura publikoa, formalizatu ondoren, Jabetza Erregistrora bidaliko du notario eskuesleak, Hipoteken Legeak ahalbidetzen dituen aurkezpen-moduetako bat erabiliz.»

Zortzi. 17. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

«1. Salbuespenez eta hilabeteko indarraldi mugatuarekin, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri zenetik kontatzen hasita, edo alarma-egoera amaitzen den hilabeteko azken egunera arte, baldin eta alarma-egoera hilabete baino gehiago luzatzen bada, errege-dekretu horren babesean jardura eten duten norberaren konturako langileek edo langile autonomoek, edo prestazioa eskatu aurreko hilabetearen gutxienez ehuneko 75 gutxiago fakturatu dutenek –aurreko seihilabeteko fakturazioaren batezbestekoarekin alderatuta– eskubidea izango dute artikulua honek arautzen duen jardura uztearen ondoriozko aparteko prestazioa jasotzeko, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Alarma-egoera deklaratu zen egunean Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian afiliatuta eta altan egotea, edo, bestela, Gizarte Segurantzako Itsas Langileen Araubide Berezian.

b) Langilearen jardura ez bada zuzenean etenda geratu martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera, egiaztatu behar da gutxienez ehuneko 75 gutxiago fakturatu dela aurreko seihilabeteko fakturazioarekin alderatuta. JESN 2009 sailkapeneko 9001 eta 9004 bitarteko kodeetako jardueraren bat egiten duten

norberaren konturako langileak edo langile autonomoak baldin badira, fakturazioaren murrizketa aurreko hamabi hiletakoarekin alderatuta kalkulatu da. Aldiz, urtaroren arabeko nekazaritza-ekoizpenean, baldintza hori betetzat joko da prestazioa eskatu aurreko ekoizpen-kanpainako hiletako batez besteko fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu bada aurreko urteko kanpainako hiletako fakturazioarekin alderatuta.

c) Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta edukitzea. Jarduera eten edo fakturazioa murriztu den datan betekizun hori betetzen ez bada, organo kudeatzaileak ordainketa egiteko eskatuko dio langile autonomoari, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epe luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeak erabateko ondorioak izango ditu babeserako eskubidea bereganatzeko.»

Hiru apartatu gehitzen dira, 7.a, 8.a eta 9.a:

«7. Jarduera eteten bada, 2020ko martxoan jarduera izan den egunetako kotizazioa —artikulu honetan arautzen den prestazioak estaltzen ez dituen egunetakoa— erregelamenduz ezarritako epealdiaren barruan ordaintzen ez bada, ez da sortuko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 30. artikuluan ezartzen den errekargua.

8. Artikulu honetan arautzen den prestazioa alarma-egoera amaitzen den hilaren ondoko hileko azken egunera arte eskatu ahal izango da.

9. Fakturazioa murriztu dela frogatzeko, hori agertzen duen kontabilitate-informazioa aurkeztu beharko da. Hainbat aukera daude: egindako eta jasotako fakturen erregistro-liburuaren kopia aurkez daiteke, eguneko sarrera eta gastuen liburuarena, salmenten eta sarreraren erregistro-liburuarena edo erosketen eta gastuen liburuarena.

Jardueraren bolumena egiaztatzen duten liburuak arteztu beharrik ez duten langile autonomoek zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bidez frogatu beharko dute fakturazioa gutxienez % 75 murriztu dela.

Eskaera bakoitzarekin batera zinpeko adierazpena aurkeztu beharko da, esaten duena prestazio hori jasotzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla.»

Bederatzi. Aldatu egiten da 20. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«20. artikulua. *Eramangarritasuna etetea.*

Alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, komunikazio elektronikoko zerbitzuen hornitzaileek ez dute aparteko kanpaina komertzialik egingo, zenbaki-eramangarritasuna eskatzen duten komunikazio elektronikoko zerbitzuak kontratatzeke, zeren eta, halakoak kontratatuz gero, litekeena baita erabiltzaile gehiago bertaratzea bezeroentzako arreta presentzialeko zentroetara edo esku-hartze fisiko gehiago egin behar izatea bezeroen etxeetan zerbitzuen jarraitutasuna bermatzeko.

Xede berberarekin, alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, etenda geratuko dira aribidean ez dauden zenbaki finkoen eta mugikorren eramangarritasun-eragiketa guztiak, baldin eta horiek gauzatzeko operadoreak edo haien agenteak edo erabiltzailea bertan egon behar badira eta ezinbesteko eta salbuespenezko kasuak ez badira. Baldin eta eramangarritasun-eragiketa bat hasi bada eta prozesua osatzeko aurrez aurreko jarduketaren bat egin behar dela-eta eragiketa eten behar bada, operadoreek bermatu beharko dute eramangarritasun-eragiketa hori ez dela osatuko eta erabiltzaileari ez zaiola zerbitzua inoiz etengo.

Alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, komunikazio elektronikoen zerbitzuen hornitzaile diren operadoreek ezin izango dituzte igo zerbitzuen prezioak sinatuta dauden kontratuetan, dela ordainketakoetan, dela aurreordainketakoetan, baldin eta zerbitzu horiek telefono finkoen eta sakelako telefonoen zenbakien eramangarritasun-eragiketak eragin ahal badituzte alarma-egoera amaitu ondoren,

gaur egun ezin egin direnak artikuluko honetan ezarritako etetearen xede izateagatik. Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkariak jarraibideak eman ahal izango ditu neurri hori aplikatzeko eta argitzeko.»

Hamar. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34. artikulua 1. apartatua, 3. apartatuaren laugarren paragrafoa eta 6. apartatua aldatzen dira (aldaketek araua indarrean jarri zenetik sortuko dituzte ondorioak), eta bi apartatu gehitzen dira, 7. apartatua eta 8. apartatua; hona horien guztien testua:

«1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzean indarrean dauden ondoko prestazioko hornidura- eta zerbitzu-kontratu publikoak, sektore publikoko erakundeek egindakoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan zehaztutakoaren arabera —lege horren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora—, ezin badira egikaritu COVID-19aren ondorioz edo Estatuak, autonomia-erkidegoek edo toki-administrazioek horri aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz, erabat edo modu partzialean etengo dira prestazioa galarazten duen egitatezko egoera gertatzen denetik prestazio hori berriro has daitekeen arte. Ondorio horietarako, prestazioa berriz hasteko modua egongo da, prestazioa eragozten zuten inguruabarrak edo neurriak amaitu ondoren, kontratazio-organoak kontratatari etena amaitu dela jakinarazten dionean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, kontratu publiko baten egikaritzea erabat eteten bada, erakunde adjudikatzaileak kontratatari ordaindu beharko dizkio etenaldian zehar kontratatariak benetan jasandako kalte eta galerak, aldez aurretik kontratatariak kalte eta galera horiek egiazkoak izan direla, zenbat izan diren eta eraginkorrak izan direla egiaztatuta. Kontratari kalte-ordain hauek baino ez zaizkio emango:

1.a 2020ko martxoaren 14an kontratuaren egikaritze arruntera atxikita zeuden langileei kontratua etenda dagoen bitartean kontratatariak benetan ordain zizkien soldata-gastuak.

2.a Behin betiko bermea mantentzeak eragindako gastuak, kontratua etenik egon den garaikoak.

3.a Makina, instalazio eta ekipamenduen alokairu-gastuak edo mantentze-kostuak, kontratua etenda egon den aldikoak, baldin kontratua egikaritzeari zuzenean atxikita badaude eta kontratatariak egiaztatzen badu bitarteko horiek ezin izan direla beste inongo helburutarako erabili kontratua etenda egon den bitartean.

4.a Agirian aurreikusitako eta kontratuaren xedeari lotutako aseguru-polizei dagozkien gastuak, kontratatariak sinatu baditu eta kontratua eteteko unean indarrean badaude..

Etendura partziala izanez gero, artikuluko honen apartatu honetan ezartzen denaren arabera ordaindu beharreko kalte-galerak etendako kontratuaren zatia dagozkionak izango dira.

Apartatu honetan xedatutakoa aplikatzerik izango da soil-soilik, baldin kontratazio-organoak, kontratatariak eskatuta eta bost egun naturaleko epean, kontratua gauzatzeko ezintasunen bat hauteman badu, kontratuko lehenengo paragrafoan deskribatutako egoeraren ondorioz. Helburu horrekin, kontratazio-organoari aurkeztu beharko dio eskaera kontratatariak, eta honako hauek adierazi beharko ditu: zergatik izan den ezinezkoa kontratua betearaztea; zenbat langile, bulego, ibilgailu, makina, instalazio eta bestelako ekipamendu dituzten kontratua gauzatzeko atxikita une jakin horretan; eta zein arrazoi dauden kontratatariak aipatutako baliabideak beste kontratu batean erabiltzerik ez izateko. Baliteke eskabidean adierazten diren inguruabarrak egiaztatu behar izatea gero. Adierazitako epe hori igaro eta kontratatari ez bazaio berariazko ebazpenik jakinarazi, ezetsizat joko da eskaera.

Hala ere, baldin eta kontratuari atxikita dauden langileen artean (apartatu honen 1. puntuan aipatzen diren horien artean) martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuan arautzen den berreskuratzeko baimen ordainduaren eraginpeko langileren bat badago, erakunde adjudikatzailerak ordaintzen dituen soldata-gastuak ez dira kalte-ordainak izango, baizik eta aurreko errege lege-dekretu horren hirugarren artikuluan ezartzen denaren arabera berreskuratu beharreko orduen konturako ordainketak, kontratuaren azken likidazioan kontuan eduki beharrekoak.

Artikulu honetan aipatzen diren etetei ez zaie aplikatuko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 208. artikulua (2.a) apartatuan xedatutakoa, ez eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 220. artikuluan xedatutakoa ere.

Gainera, ondoko ondoko zerbitzuen eta horniduren kontratu publikoetan, kontratu bat epemugara iristean prestazioaren jarraipena ziurtatuko duen kontratu berria oraindik formalizatzeko badago kontratazio-prozedura bertan behera dagoelako martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak —COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duenak— xedatutakoaren ondorioz, eta behar den kontratu berria formalizatzerik ez badago, orduan Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29.4 artikulua azken paragrafoan aurreikusitakoa aplikatzeko aukera izango da, espediente berriaren lizitazioa zein egunetan argitaratu den aintzat hartu gabe.

Artikulu honen arabera sektore publikoko kontratuak etetea ez da, inola ere, kontratuak suntsiarazteko kausa izango.»

«3. (...) «Lanak garatzeko programarekin edo obra-planarekin» bat etorriz kontratua gauzatzeko epea martxoaren 14tik (alarma-egoera hasi den eguna) eta egoera horrek irauten duen bitartean amaitzekoa bada eta COVID-19ak sortutako egoeraren ondorioz edo Estatuak ezarritako neurrien ondorioz ezin bada obra entregatu, kontratistak azken entregaren epea luzatzea eskatu ahal izango du, baina, horretarako, ezinbestekoa izango da bete gabe dituen konpromisoak betetzea eskaintzea, hasierako epealdia luzatzen bazaio, eta, gainera, justifikazio-eskaera bete beharko du.»

«6. Artikulu honen aurreko apartatuan ezartzen dena (1. apartatuaren azken-aurreko paragrafoan ezartzen dena ez beste guztia) ez zaie inola ere aplikatuko honako kontratu hauei:

a) Osasuneko, farmaziako edo bestelako zerbitzu edo hornidurako kontratuei, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiarekin lotutako helburua badute.

b) Sistema informatikoen segurtasun-, garbiketa- edo mantentze-zerbitzuetako kontratuei.

Hala ere, segurtasun-zerbitzuetako eta garbiketa-zerbitzuetako kontratuetan etendura osoa edo partziala aplika daiteke, artikulu honen 1. apartatuan ezartzen denarekin bat etorriz, kontratistak eskatuta edo ofizioz, baldin eta Estatuak, autonomia-erkidegoek edo toki-administrazioek COVID-19aren aurka egiteko ezarritako neurrien ondorioz eraikin edo instalazio publikoren bat erabat edo zati batean itxita geratzen bada eta ondorioz ezinezkoa bada kontratistak zerbitzu guztiak edo batzuk ematea. Etendura partziala bada, kontratua partzialki etenda geratuko da erabat edo partzialki itxitako eraikin edo instalazio publikoetako zerbitzuak emateari dagokionez, eraikin edo instalazio publikoa edo horren zati bat itxita geratzen den egunetik berriz ireki arte. Horren harira, kontratazio-organismoak kontratistari jakinaraziko dio zein diren eraikin bakoitzean eman beharreko segurtasun-zerbitzuak eta garbiketa-zerbitzuak. Horrez gainera, jakinarazi beharko dio noiz irekiko den erabat edo modu partzialean eraikin edo instalazio publikoa edo beraren atal bat, berriz ere zerbitzua ematen has dadin itundutakoaren arabera.

c) Garraioko azpiegituren eta zerbitzuen mugikortasuna eta segurtasuna bermatzeko behar diren zerbitzu- edo hornidura-kontratuei.

d) Merkatu ofizialetan kotizatzen duten eta Estatuko Aurrekontu Orokorretatik diru-sarrerarik lortzen ez duten erakunde publikoek adjudikatutako kontratuei.

Artikulu honetan aurreikusitako araubideak ez du eragotziko Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako ministroak —COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak 4. artikuluan izendatutako agintaritzaren eskuduna den aldetik— pertsonak, ondasunak eta lekuak babesteko beharrezkoak diren prestazioak bermatzeko har ditzakeen neurriak. Baliteke neurri horiek, besteak beste, kontratuak etetea bidezko jotzeko kasuak aldatzea.

7. Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, «kontratu publikoak» izango dira baldintzen agiriaren arabera honako hauetako batean arautzen dena bete behar den kontratuak: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzkoa, zeinaz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora; 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore publikoko kontratuen Legearen testuategina onartzen duena; 31/2007 Legea, urriaren 30ekoa, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzkoa; 3/2020 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, presako neurriak ezartzen dituen Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzeko Europar Batasunak hainbat arlotako kontratazio publikoaz emandako gidalerro batzuk (aseguru pribatuak, pentsio-planak eta pentsio-funtsak, zergak eta zergen arloko auziak); 24/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, sektore publikoko defentsaren eta segurtasunaren arloetako kontratuena.

8. Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, aipatzen diren soldata-gastuetan, Gizarte Segurantzaren bidezko kotizazioek eragiten dituzten gastuak sartu behar dira.»

Hamaika. 37. artikuluan 4. apartatuaren sarreraren aurrekontuaren A) letra eta gastuen aurrekontuaren H) letra aldatzen dira, bai eta 7. apartatua ere, eta honela gelditzen dira:

«A) 28.107.400.06 aplikazioa, «Sailarena, COVID-19aren krisialdiak eragindako aparteko beharretarako», 950.000 euroko zenbatekoarekin.»

«H) 28.107.465A.787 aplikazioa, «COVID-19a sortzen duen SARS-CoV2 birusa ikertzeko proiektu eta programetarako zuzeneko dirulaguntzetarako», 24.000.000 euro.»

«7. Honako hau da aurreko puntuek lerketa Zientifikoaren Kontseilu Gorenean izan duten eragina:

DIRU-SARREREN AURREKONTUA:

A) 28.301.400.11 aplikazioa. «Sailarena, COVID-19 koronabirusaren ikerketarekin lotutako mota guztietako gastu arruntetarako», 390.000 euro.

B) 28.301.700.06 aplikazioa. «Sailarena, COVID-19 koronabirusaren ikerketarekin lotutako mota guztietako kapital-gastuetarako», 4.060.000 euro.

GASTUEN AURREKONTUA:

A) 28.301.463A.221.99 aplikazioa. «Beste hornidura batzuk», 390.000 euro.

B) 28.301.463A.620 aplikazioa. «Zerbitzuen funtzionamendu operatiboarekin lotutako inbertsio berria», 3.450.000 euro.

C) 28.301.463A.640 aplikazioa. «Inbertsio immaterialen gastuak», 610.000 euro.»

Hamabi. 38. artikuluan, 1. apartatua aldatzen da eta 10. paragrafoa eranstean da. Hona testuak:

«1. COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera kontuan hartuta, ez da aplikatzekoa izango Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa, Carlos III.a Osasun Institutuak edo Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenak egindako honako diru-ekarpen hauei dagokienez: COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiaren ondoriozko ikerketa zientifiko eta teknikora bideratutako onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak garatzeko ezinbestekoak diren neurrien esparruan nazioko zein atzerriko pertsona publiko edo pribatuen alde onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egindako diru-ekarpenak, are zuzenbideko publikoko organismo eta entitateen, unibertsitateen, Osasun Sistema Nazionaleko eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemako entitateen alde egindakoak ere.»

«10. Artikulu honetan xedatzen dena Garapen Teknologiko Industrierako Zentroa (CDTI) enpresa-erakunde publikoak COVID-19 koronabirusaren ondoriozko osasun-larrialdiari aurre egiteko berrikuntza sustatzeko egiten dituen ekarpenei ere aplikatuko zaie. Erakunde horren zuzendaritzaren titullarrak behar diren ebazpen guztiak eman beharko ditu bidezko ekarpenak egiteko eta aurreko apartatuetan ezartzen dena garatzeko.»

Hamahiru. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. artikulua aldatzea.

Testua honela gelditzen da:

«40. artikulua. *Zuzenbide pribatuko pertsona juridikoei aplikatu beharreko aparteko neurriak.*

1. Nahiz eta estatutuetan ezarrita ez egon, alarma-aldian elkarteen, sozietate zibilen eta merkataritza-sozietateen gobernu- eta administrazio-organoen bilkurak, kooperatiba-sozietateen artezkaritza-kontseiluarenak eta fundazioen patronatuarenak bideokonferentziaz edo telefono-konferentzia anizkoitzez egin ahal izango dira, baldin eta organoko kide guztiek behar diren baliabideak badituzte eta organoko idazkariak bakoitza nor den badaki eta aktan horren berri ematen badu. Akta berehala bidaliko die bilkuran izan direnei, bakoitzaren helbide elektronikora. Arau bera aplikatuko zaie batzorde delegatuei eta eratutako nahitaezko edo borondatezko gainerako batzordeei. Bilkura pertsona juridikoaren helbidean egin dela ulertuko da.

Nahiz eta estatutuetan ezarrita ez egon, alarma-aldian elkartekideen edo bazkideen batzarrak edo biltzarrak bidezko edo telefono-konferentzia anizkoitzez egin ahal izango dira, baldin eta bertaratzeko eskubidea duten pertsona guztiek (edo haien ordezkariak) behar diren baliabideak badituzte eta organoko idazkariak bakoitza nor den badaki eta aktan horren berri ematen badu. Akta berehala bidaliko die batzartutako guztiei, bakoitzaren helbide elektronikora.

2. Estatutuetan aurreikusi ez bada ere, alarma-aldian, elkarteen, sozietate zibilen eta merkataritza-sozietateen gobernu- eta administrazio-organoen, kooperatiba-sozietateen artezkaritza-kontseiluaren eta fundazioen patronatuaren erabakiak idatziz eginiko bozketa baten bidez eta bilkurarik gabe hartu ahal izango dira, baldin eta lehendakariak hala erabakitzen badu; erabakiak horrela hartu ahal izateko, gutxienez, organoko kideetako bik eskatu beharko dute. Arau bera aplikatuko zaie batzorde delegatuei eta eratutako nahitaezko edo borondatezko gainerako batzordeei. Bilkura egoitza sozialean egin dela ulertuko da. Erabaki horiei guztiei Merkataritza Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 19ko 1784/1996 Errege Dekretuaren 100. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie, merkataritza-sozietateak ez izan arren.

3. Pertsona juridikoen gobernu-organoei edo administrazio-organoei urteko kontu arruntak edo laburrak, banakakoak edo bateratuak —eta, legez eska daitekeenean, kudeaketa-txostena eta sozietateen gaineko legeriaren arabera eska

daitezkeen gainerako dokumentuak— sozietatearen ekitaldia ixten denetik hiru hilabete pasatu baino lehen aurkezteko duten betebeharra etenda gelditzen da alarma-egoera amaitu arte. Amaitzen denean, berririo hasiko da epea, beste hiru hilabetez. Aurrekoa gorabehera, balioduna izango da pertsona juridikoen gobernu-organoek edo administrazio-organoek alarma-egoeran egiten duten kontu-aurkezpena; gainera, kontuen kontabilitate-egiaztapena lege ezarritako epealdiaren barruan egin ahal izango dute edo, bestela, hurrengo apartatuan arautzen den luzapenari heldu ahal izango diote.

4. Urteko kontuak aurkeztu behar dituen pertsona juridiko baten gobernu- edo administrazio-organoak alarma-egoera deklaratu den egunerako edo hura indarrean dagoen bitartean aurreko ekitaldiko kontuak egin baditu, kontu horiek kontabilitatean egiaztatzeko epea bi hilabetez luzatutzat joko da, alarma-egoera amaitzen denetik kontatzen hasita, auditoretza nahitaezkoa izan zein borondatezkoa izan.

5. Aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko ohiko batzar orokorra urteko kontuak egiteko epealdia amaitu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan bilduko da nahitaez.

6. Batzar orokorraren deialdia alarma-egoeraren deklarazioa baino lehen argitaratu bada, baina batzarra egiteko eguna deklarazio hori baino geroagokoa bada, administrazio-organoak aldatu ahal izango ditu batzarra egiteko aurreikusitako lekua eta ordua, edo deialdi-erabakia balio gabetu ahal izango du, gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago sozietatearen web-orrian argitaratutako iragarki baten bidez, eta, sozietateak web-orririk ez badu, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez. Deialdi-erabakia balio gabetzen bada, administrazio-organoak beste deialdi bat egin beharko du alarma-egoera amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan.

6 bis. Emaizta aplikatzeko proposamenari dagokionez, urteko kontuak egin ondoren, xedapen hau indarrean jartzen denetik aurrera ohiko batzar orokorrerako deialdia egiten duten merkataritza-sozietateek, memorian jasotako emaitza aplikatzeko proposamenaren orde, beste proposamen bat egin ahal izango dute.

Administrazio-organoak, COVID-19aren ondoriozko egoera oinarritzat hartuta, emaitza aplikatzeko proposamena zergatik aldatu den azaldu beharko du; azalpen horrekin batera kontu-auditorearen idazki bat aurkeztu beharko du, zeinean hark adierazten baitu ez zuela bere auditoretza-iritzia aldatuko baldin eta sinatzeko unean proposamen berria ezagutu izan balu.

Ohiko batzar orokorrerako deialdia eginda dagoen sozietateen kasuan, administrazio-organoak eguneko aztergaien zerrendatik kendu ahal izango du emaitza aplikatzeko proposamena, beste proposamen bat aurkezteko eta batzar orokorraren onarpenerako jartzeko. Horretarako bilkura ohiko batzar orokorra egiteko lege ezarritako epealdiaren barruan egin beharko da. Administrazio-organoaren erabakia deitutako batzar orokorraren bilkura egin baino lehen argitaratu beharko da. Proposamen berria dela eta, aurreko paragrafoan ezarritako guztia bete beharko da: proposamen-aldaketaren arrazoia azaldu eta kontu-auditorearen idazkia aurkeztu. Administrazio-organoaren ziurtapena, kontuen gordailuari dagokionez, urteko kontuak onartzera mugatuko da; gero, emaitza aplikatzeko proposamenaren onarpenari buruzko ziurtagiri osagarria aurkeztu beharko da Merkataritza Erregistroan.

7. Bazkideen batzar orokor batera joateko eta bileraren akta egiteko eskaera jasotzen duen notarioak denbora errealeko urruneko komunikabideak erabili ahal izango ditu, notario-funtzioa behar bezala beteko dela bermatzeko.

8. Nahiz eta lege- edo estatutu-arrazoiren bat egon, kapital-sozietateetako bazkideek ezin izango dute sozietatea uzteko eskubidea erabili, harik eta alarma-egoera eta beraren luzapenak (egonez gero) amaitu arte.

9. Alarma-egoera indarrean dirauen artean baja ematen zaien kooperatiba-bazkideei ekarpenak itzultzeko epea luzatu egingo da alarma-egoera amaitu eta sei hilabete igaro arte.

10. Alarma-egoera indarrean dagoen bitartean sozietatearen estatutuetan ezarritako sozietatearen iraunpen-epea amaitzen bada, ez da zuzenbide osoz desegingo alarma-egoera hori amaitu eta bi hilabete igaro arte.

11. Alarma-egoera deklaratu aurretik eta egoera hori indarrean dagoen bitartean sozietatea desegiteko legezko edo estatutupeko kausa badago, bazkideen batzar orokorreko administrazio-organoak sozietatea desegiteko erabakia edo kausa ezabatzeko erabakiak hartzeko deialdia egiteko legezko epea eten egingo da alarma-egoera hori amaitu arte.

12. Desegiteko legezko edo estatutupeko kausa alarma-egoeraren indarraldian gertatu bada, administrazioaileek ez dute erantzukizunik izango aldi horretan hartutako sozietate-zorren gainean.»

Hamalau. Honela idatzita geratzen da 41. artikulua:

«41. artikulua. *Sozietate anonimo kotizatuen gobernu-organoen funtzionamenduari aplikatu beharreko aparteko neurriak.*

1. Salbuespen gisa, 2020. urtean honako neurri hauek aplikatuko zaizkie Europar Batasuneko merkatu arautu batean negoziatzeko onartutako baloreak dituzten sozietateei: a) Urteko finantza-txostena eta urteko kontuen auditoretza-txostena argitaratzeko eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidaltzeko betebeharra sei hilabetera arte bete ahal izango da, sozietate-ekitaldia ixten denetik zenbatzen hasita. Epe hori lau hilabetera luzatuko da bitarteko kudeaketa-adierazpena eta sei hilean behingo finantza-txostena argitaratzeko. b) Akziodunen ohiko batzar orokorra sozietatearen ekitaldiko lehen hamar hilabeteetan egin ahal izango da. c) Administrazio-kontseiluak, batzar orokorraren deialdian, baliabide telematikoen bidez parte hartzea eta urrutiko botoa ematea aurreikusi ahal izango du, Kapital Sozietateei buruzko Legearen (uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako testu bategina) 182., 189. eta 521. artikuluetan aurreikusitako baldintzetan, bai eta batzarra lurralde nazionalako edozein tokitan egitea ere, nahiz eta alderdi horiek sozietatearen estatutuetan aurreikusita ez egon. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzean deialdia argitaratuta badago, kasu horietako edozein jaso ahal izango da iragarki osagarri batean, eta iragarki hori gutxienez batzarra egiteko aurreikusitako data baino bost egun natural lehenago argitaratu beharko da. d) Agintari publikoek ezarritako neurriek eragozten badute batzar orokorra deialdian ezarritako tokian eta egoitza fisikoan egitea, eta aurreko zenbakian aurreikusitako ahalmena erabili ezin bada: i) Batzarra toki eta egoitza horretan baliozko eran eratu bada, egun berean probintzia bereko beste toki eta egoitza batean egitea erabaki ahal izango da, eta zentzuzko epea ezarriko da bertaratu beharrekoak beste toki horretara joan daitezen. ii) Batzarra ezin bada egin, batzar hori hurrengo deialdian egingo dela iragarri ahal izango da, egin ez den batzarraren gai-zerrendarekin eta publikotasun-betekizun berberekin, bilerarako finkatutako data baino bost egun lehenago gutxienez. Kasu horretan, administrazio-organoak, iragarki osagarrian, batzarra bide telematikoz egitea erabaki ahal izango du, hau da, bazkideak edo haien ordezkariak fisikoki bertaratu gabe, baldin eta bileran parte hartzeko aukera eskaintzen bada, bide hauek erabilita: (i) bertaratzeko telematikoa; (ii) batzarreko lehendakariari urrutiko komunikabideen bidez emandako ordezkariak eta (iii) urrutiko komunikabideen bidez emandako boto aurreratua. Batzarrean parte hartzeko modalitate horietako edozein arbitratu ahal izango dute administrazioaileek, nahiz eta sozietatearen estatutuetan aurreikusita ez egon, baldin eta boto-eskubidea erabiltzen duen subjektuaren identitatea ziurtatzeko arrazoizko bermeak jartzen badira. Administrazioaileek batzarrean parte har dezakete audiokonferentziaz edo bideokonferentziaz. Batzarra egoitza sozialean egin dela ulertuko da, batzarreko lehendakaria non dagoen kontuan hartu gabe.

2. Salbuespen gisa, eta aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, baliozkoak izango dira administrazio-kontseiluaren erabakiak eta auditoretza-

batzordearen erabakiak –hala badagokio aldez aurretik informatu beharrekoak–, bideokonferentzia bidez edo telefono-konferentzia anizkoitz bidez hartzen direnean, aukera hori sozietatearen estatutuetan jasota ez badago ere, betiere kontseilari guztiek horretarako beharrezko baliabideak badituzte eta idazkariak haien nortasuna aitortzen badu. Hori guztia erabakien ziurtagirian eta aktan adierazi beharko da. Kasu horretan, bilkura bakartzat hartuko da, eta egoitza sozialean egin dela ulertuko da.

3. Kotizatutako sozietateek errege lege-dekretu honen 40.6 bis artikuluan ezartzen diren neurrietako bat aplikatzen dutenean, proposamen berria, administrazio-organoak egindako justifikazioa eta auditorearen idazkia jendaurrean jarri beharko dira, onartu bezain laster, entitatearen webgunean, urteko kontuen informazio osagarri gisa, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren webgunean, informazio garrantzitsu gehigarri gisa, edo, dena delako kasuaren arabera nahitaezkoa bada, informazio pribilegiatu gisa.»

Hamabost. Zazpigarren xedapen gehigarriaren izenburua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«Zazpigarren xedapen gehigarria. *Baimena genetikoki eraldatutako organismoak konfinaturik erabiltzeko eta nahita askatzeko jardueretarako*».

Hamasei. Beste xedapen gehigarri bat eransten da, hamargarrena, «Berezitasunak konkurtsoan dauden enpresei II. kapitulua aplikatzean», hona testua:

«1. Ezinbesteko arrazoiak eta arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak eta ekoizpenekoak direla-eta kontratua eteteko eta lanaldia murrizteko prozeduretarako kapitulu honetan ezartzen diren neurriak konkurtsoan dauden enpresei aplikatuko zaizkie, baldin eta 22. eta 23. artikuluetan arautzen diren egitateak gertatzen badira.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren prozedurak erregulatzeko arautzat hartuko da Langileen Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuan ezartzen dena, errege lege-dekretu honen 22.etik 28.era bitarteko artikuluetan eta seigarren xedapen gehigarrian ezartzen diren berezitasunekin, eta ez da aplikatuko Konkurtsoei buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 64. artikuluko prozedura.

3. Hala ere, prozedura horien izapideetan eta ebazpenean berezitasun hauek aplikatu ahal izango dira:

a) Espedienteen eskaerak edo komunikazioak konkurtsopeko enpresak egin beharko ditu, konkurtso-administrazioaren baimenarekin, edo konkurtso-administrazioak zuzenean, esku hartzeko edo ondare-ahalmenak eteteko araubidearen arabera.

b) Konkurtso-administrazioa alderdia izango da errege lege-dekretu honen 23. artikuluan ezartzen den kontsulta-aldian.

c) 23. artikulua horretan ezartzen diren kasuetan, kontratuak eteteari edo lanaldia murrizteari buruzko neurriak aplikatzeko erabakiak konkurtso-administrazioaren baimena eduki beharko du, edo, kontsulta-aldian horri buruzko adostasunik lortzen ez bada, konkurtso-administrazioak hartu beharko du erabakia, esku hartzeko edo ondare-ahalmenak eteteko araubidearen arabera.

d) Nolanahi ere, konkurtsoaren epaileari berehala eman beharko zaio eskaeraren, ebazpenaren eta aplikatutako neurrien berri, bitarteko telematikoez baliatuz.

e) Langileen Estatutuari buruzko Legearen testuategia onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 47.1 artikuluen 1. apartatuaren 10., 15. eta 16. paragrafoetan eta kaleratze kolektiboko eta kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko prozeduren erregelamendua onartzen duen

urriaren 29ko 1483/2012 Errege Dekretuaren 33. artikulua 6. apartatua azaltzen diren kasuetan, konkurtsoaren epaileak ebatziko ditu horietan aipatzen diren aurkaratzeak. Aurkaratzeak lan-arloko konkurtso-intzidentearen prozeduraren bidez gauzatuko dira, eta ematen den epaiari erregutze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio.

g) Urriaren 29ko 1483/2012 Errege Dekretuak 33. artikulua 5. apartatua arautzen dituen kasuetan, lan-arloko agintaritzaren ebazpenaren aurkarapena lan-arloko jurisdikzioan egingo da».

Hamazazpi. Azken xedapenetako hamargarrena aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«1. Oro har, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurriek indarrean iraungo dute alarma-egoeraren deklarazioaren indarraldia amaitu ondoren hilabete pasatu arte. Aurrekoa gorabehera, iraunaldi jakina duten errege lege-dekretu honetako neurriak iraunaldi horri lotuko zaizkio.

Nolanahi ere, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurrien indarraldia errege lege-dekretu bidez luzatu ahal izango du Gobernuak, egoera aztertu ondoren.»

Hemezortzi. Lehen xedapen iragankorraren bigarren apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«2. 24. artikuluan eta 25. artikulua 1.tik 5.era bitarteko apartatueta arautzen diren kotizazioen eta langabezia-babesaren inguruko aparteko neurriak honako hauei aplikatuko zaizkie: errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik jakinarazi, baimendu edo hasi diren eta kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko diren prozeduren eraginpean daudenei, baldin eta zuzenean COVID-19aren ondoriozkoak badira.

25.6 artikuluan ezartzen den neurria errege lege-dekretu hori indarrean jarri aurretik lan-harremana eten zaien langileei aplikatuko zaie, baldin eta etenaldia COVID-19aren ondorio zuzena bada.»

Hemeretzigarrena. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako lehena aldatzen da eta honela geratzen da idatzita (aldaketak errege lege-dekretu hori indarrean jarri zenetik sortuko ditu ondorioak):

«Azken xedapenetako lehena. *Irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bategina aldatzea.*

Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bateginaren 45.l.B) artikulua 28. zenbakia eranstean zaio —lege hori irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen—; hona zenbaki berriaren testua:

«28. COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren babespean egiten diren hipoteka-mailegu eta hipoteka-kredituen kontratu-nobazioak formalizatzeko eskriturengatik ez da ordaindu beharko zerga honen egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-dokumentuen kuota gradualak, baldin eta haien oinarria errege lege-dekretu horren 7.etik 16.era bitarteko artikuluetan arautzen diren kasuetan badago (ohiko etxebizitza eskuratzeko hipoteka-zorren luzamenduari buruzko artikulua)».

Hogei. Azken xedapenetako zortzigarrena aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149.1 artikulua 1., 6., 7., 8., 10., 13., 14., 15., 17., 18., 21. eta 25. apartatuen babespean ematen da, zeinak honako

hauek arautzeko eskumena ematen baitio Estatuari: konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzak; merkataritza-legeria; legeria zibila, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek zuzenbide zibil, foru-zuzenbide edo zuzenbide bereziak —halakorik dagoen lekuetan— gorde, aldatu eta garatzeko dituzten eskumenak; aduana-araubidea; ekonomia-jardueraren planifikazio orokorraren oinarriak eta koordinazioa; ogasun publikoa; ikerketa zientifiko eta teknikoaren sustapena eta koordinazio orokorra; Gizarte Segurantzaren arloko oinarritzko legeria eta ekonomia-araubidea, nahiz eta autonomia-erkidegoek gauzatu ahalko dituzten haren zerbitzuak; eta meatzeen eta energiaren araubidearen oinarriak.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzea.*

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46. artikuluari beste apartatu bat eranstean zaio, hirugarrena; hona testua:

«3. Nolanahi ere, toki-entitateetako kide anitzeko organoen araubide presentzialaren funtzionamendu normala eragozten edo neurritz kanpo zailtzen duen ezinbesteko egoera, arrisku kolektibo larria edo hondamendi publikoa gertatzen bada, organo horiek eratu, bilerak egin eta erabakiak hartu ahal izango dituzte bitarteko elektronikoen eta telematikoen bidez, alkateak edo presidenteak edo indarrean dagoen araudiaren arabera deialdiaren ondorioetarako behar bezala ordeztzen dituenak ikusiz gero deskribatutako egoera gertatzen dela, eta baldin eta parte hartzen duten kideak Espainiako lurraldean badaude eta nor diren egiaztatuta badago. Era berean, bileran haien arteko komunikazioa denbora errealean egiten dela ziurtatu beharko da, eta eztabaidak publikoak edo sekretuak direla bermatzeko beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira, kasu bakoitzean legez behar den moduan.

Aurreko ondorioetarako, hauek jotzen dira baleko bitarteko elektronikotzat: segurtasun teknologikoa, kideen parte-hartze politiko eraginkorra, eztabaidaren baliozkotasuna eta hartzen diren erabakien bozketa behar bezala bermatzen dituzten audiokonferentziak, bideokonferentziak edo bestelako sistema teknologiko edo ikus-entzunezkoak».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Uztailaren 4ko 19/2003 Legea aldatzea, kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari eta kapitalen zuzenbide prebenitzeko neurri batzuei buruzkoa.*

Uztailaren 4ko 19/2003 Legean aldaketa hauek egiten dira:

Bat. 7 bis artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«7 bis artikulua. *Espainian atzerriko zuzeneko inbertsio jakin batzuk liberalizatzeko araubidea etetea.*

1. Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, Espainian egindako atzerriko zuzeneko inbertsioetat hartuko dira inbertitzaileari Espainiako sozietate baten kapital sozialaren ehuneko 10eko edo hortik gorako partaidetza ematen dioten inbertsio guztiak, bai eta sozietate-eragiketaren edo egintza edo negozio juridikoaren ondorioz inbertitzaileari sozietatearen kudeaketan edo kontrolean modu eraginkorrean parte hartzeko aukera ematen diotenak ere. Nolanahi ere, honako inguruabarretako bat gertatu behar da:

a) Inbertsioa egiten duenaren egoitza Europar Batasunetik eta Europako Merkataritza Askearen Elkartetik kanpoko herrialde batean egotea.

b) Inbertsioa egiten duenaren egoitza Europar Batasunean edo Europako Merkataritza Askearen Elkartearen barruan egotea, baina horren benetako titularraren egoitza Europar Batasunetik eta Europako Merkataritza Askearen

Elkartetik kanpoko herrialde batean egotea. Titulartasun erreal hori dagoela iritziko zaio azken horiek zuzenean edo zeharka inbertitzailearen kapitalaren edo boto-eskubideen % 25etik gorako ehunekoa daukatenean edo kontrolatzen dutenean, edo beste bitarteko batzuen bidez zuzenean edo zeharka inbertitzailearen gaineko kontrola daukatenean.

Erregelamenduz ezarri ahal izango da zer zenbatekotatik behera geratzen diren salbuetsita alde zurreko baimenaren araubidetik atzerriko inbertsio-eragiketak.»

Bi. 7 bis artikulua 6. apartatua ezabatzen da.

Azken xedapenetako laugarrena. *Inbertsio Kolektiboko Erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legea.*

Inbertsio Kolektiboko Erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 71 septies artikulua 7. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

«71 septies artikulua. *Palanka-efektuaren mugak, kreditu-ebaluazioko prozesuen egokitzapena eta likidezia-arriskua gainbegiratzea.*

Partaide edo akziodun guztiei tratamendu ekitatiboa emateko, edo finantza-sistema egonkortzeko eta indartzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak honako neurri hauek ezarri ahal izango ditu aldi baterako (neurria beharrezkoa eta proportzionala dela frogatu beharko du):

a) Inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten sozietateei, banaka zein multzoka, eskatu ahal izango die gehitu dezatela kudeatzen dituzten inbertsio kolektiboko erakundeen zorroen likidezia eta, batez ere, gehitu dezatela aktibo oso likidoetako inbertsioaren ehunekoa (aktibo horiez Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ematen duen definizioa aintzat harturik).

b) Inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten sozietateei baimena eman beharko die, banaka zein multzoka, kudeatzen dituzten inbertsio kolektiboko erakundeetako batean edo batzuetan itzulketak egiteko aurreabisu-aldiak ezartzeko, kontuan eduki gabe epealdiaren baldintza, gutxieneko zenbatekoaren baldintza eta aplikatu ohi den kudeaketa-erregelamenduan aurretiko jasotzearen baldintza. Aurreabisu-aldi horiek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ere ezarri ahal izango ditu; hori eginez gero, batzordeak neurria zer itzulketari aplikatuko zaien zehaztuko du».

Azken xedapenetako bosgarrena. *Sektore Elektrokoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legea aldatzea.*

Sektore Elektrokoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legearen zortzigarren xedapen iragankorren a) apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«a) Loturiko sortze-instalazioaren ustiapen-baimena ez lortu izana epea hauetatik handienez:

1.a COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratzeko duen alarma-egoera —hasierakoa edo luzatua— amaitzen denetik bi hilabete pasatu arte. Hori dela eta, xedapenak iragankor honi ez zaizkio aplikatuko aipatutako errege-dekretuaren hirugarren eta laugarren xedapen gehigarrietan arautzen diren etendura eta epealdien zenbaketaren berrabiatzea.

2.a Bost urte sareko puntu batera sartu eta konektatzeko eskubidea lortu denetik aurrera.»

Azken xedapenetako seigarrena. *Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legea aldatzea.*

44. artikulua 3. apartatuaren b) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

«b) Erreserba-funts bat ezartzea egon daitezkeen kreditu-entitate partaidetuaren berezko premiei aurre egiteko, premia horiek ezin direnean estali beste baliabide batzuekin, eta, Espainiako Bankuaren iritziz, kaudimenaren alorrean kreditu-entitate partaidetuak dauzkan betebeharrak betetzea arriskuan jar dezaketenean.

Horretarako, finantza-planak erreserba-funtsera gutxieneko ekarpenak egiteko egutegi bat izango du helburu den kopurua lortu arte, entitate partaidetuaren kudeaketa osasuntsua eta zuhurra bermatzeko. Egutegi hori Espainiako Bankuak ezarriko du, honako alderdi hauen arabera, besteak beste:

1. Finantza-planean aurreikusitako berezko baliabideen premiak;
2. Entitate partaidetuaren arriskua dela medio haztatutako aktiboaren balioa eta banku-fundazioak entitatean daukan partaidetza kopurua;
3. Entitatearen akzioak negoziatziorako onartuta al dauden balioen bigarren mailako merkatu ofizial batean;
4. Banku-fundazioaren inbertsioen finantza-sektoreko kontzentrazio-maila.

Horrela eraturako erreserba-funtsa likidezia eta kreditu-kalitate handiko finantza-tresnetan inbertitu beharko da; finantza-tresna horiek guztiz eskuragarri egongo dira fundazioak erabili ahal izateko une oro.

Espainiako Bankuak garatuko ditu entitate partaidetuaren kaudimen-premiei aurre egiteko banku-fundazioak funts horiek nola erabili behar dituen azaltzeko kasuak eta modua. Nolanahi ere, entitate partaidetuaren berezko baliabideak nabarmen murriztu direnean eta, Espainiako Bankuaren iritziz, entitatearen kaudimen-araudia betetzea arriskuan jar daitekeenean erabiliko da erreserba-funtsa. Orobat, likidezia handikotzat eta kreditu-kalitate handikotzat har daitezkeen aktiboak zirkular bidez garatuko ditu artikulua honetan ezarritakoaren ondorioetarako.

Aurrekoa gorabehera, banku-fundazioaren finantza-planak ez du eskatuko erreserba-funtsa eratzea, betiere dibertsifikazio-planari desinbertsio-programa bat eransten bazaio. Azken plan horretan zehaztuta azalduko dira fundazioak kreditu-entitatean daukan partaidetza apartatu honen lehen paragrafoan aipatutako bost urteko gehieneko epearen mailatik behera jaisteko ezarri behar dituen neurriak. Programa hori isilpekoa izango da, eta Espainiako Bankuak onartuko du; era berean, Espainiako Bankuak gainbegiratu du programa hori betetzen den, eta egokitzen hartzen duen informazio oro eskatu ahal izango dio fundazioari. Ez-betetzereen bat badago, Espainiako Bankuak banku-fundazioari eskatu ahal izango dio finantza-planaren aldaketa aurkezteko hogeitaz eguneko gehieneko epean. Aldaketa horretan erreserba-funtsa artikulua honetan ezartzen denaren arabera eratu dela azalduko da. Betebehar hori gorabehera, behar den kasuetan lege honen 47. artikulua aplikatuko da.

Espainiako Bankuak aurreko paragrafoan ezartzen denaren arabera onartutako desinbertsio-programa bat duten banku-fundazioek desinbertsio-helburua betetzeko epealdia beste bi urte gehiago luzatu ahal izango dute gehienez; horretarako, desinbertsio-programaren aldaketa aurkeztu beharko dute.

Fundazioak, aurreko paragrafoan aipatutako epealdia luzatzea hautatzen badu, erreserba-funts bat eratu beharko du, eta funts horretan zuzkidura bat egin beharko du luzapenak irauten duen ekitaldi bakoitzean: kreditu-entitate partaidetuak emandako dibidenduen banaketan jasotako zenbatekoen % 50 gutxienez.»

Azken xedapenetako zazpigarrena. *9/2017 Legea aldatzea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.*

9/2017 Legea aldatzen da, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, eta honela gelditzen da:

Bat. 29. artikulua 4. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da eta honela gelditzen da:

«Salbuespen gisa, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, aurreko paragrafoan ezarritakoaz gorako iraupen-epe bat ezarri ahalko da, kontratuarekin zuzenean lotutako inbertsioak berreskuratzeko aldiak hala eskatzen duenean eta inbertsio horiek kontratistaren gainerako ekoizpen-jardueran ezin direnean erabili edo haien erabilera ekonomiaren aurkakoa denean, eta betiere inbertsio horien amortizazioa horniduran edo zerbitzu-prestazioan kostu nabarmena denean; inguruabar horiek, nolanahi ere, kontratazio-espeditentean justifikatu beharko dira, espeditenteari dagozkion inbertsioak eta haiek berreskuratzeko aldia adierazita. Horniduraren edo zerbitzuaren prestazioan kostu nabarmena zer den erregelamendu bidez garatuko da.»

Bi. Xedapen gehigarri bat eranstean zaio Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeari, berrogeita hamabosgarrena; hona testua:

«Berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *Hulleras del Norte SA EMS (HUNOSA) enpresaren eta beraren eskumendeko enpresen eta Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren araubide juridikoa, bitarteko propioak eta zerbitzu teknikoak diren aldetik.*

1. Estatuaren Hulleras del Norte SA EMS (HUNOSA) enpresa publikoa eta beraren eskumendeko enpresak Estatuako Administrazio Orokorren, adjudikazio-boterearen izaera duten sektore publikoko entitateen, Asturiasko Printzerriaren eta gainerako autonomia-erkidegoen bitarteko propio pertsonifikatutzat eta zerbitzu teknikotzat hartuko dira, baldin eta betetzen badituzte azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, sektore publikoko kontratuenak, 32. artikulua 2. apartatuaren d) letraren 2. puntuan eta artikulua beraren 4. apartatuaren a) eta b) letretan ezartzen dituen baldintzak, eta behartuta egongo dira artikulua honen 3. apartatuan zehazten diren arloetan enkargatzen zaizkien lanak modu eskusiboan egitera (nolanahi ere, artikulua horren 5. apartatuan xedatzen dena aplikatuko da hala dagokion kasuetan).

Gainera, HUNOSA eta beraren eskumendeko enpresak adjudikazio-boterearen izaera ez duten sektore publikoko entitateen bitarteko propio pertsonifikatutzat eta zerbitzu teknikotzat ere hartuko dira, baldin eta entitateok aurreko paragrafoan aipatzen diren administrazioetako bati atxikita badaude, eta horien mandatuak jaso ahal izango dituzte, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 33. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betez gero.

2. HUNOSArek eta beraren eskumendeko enpresen kapital sozial osoa titulartasun publikokoa izango da.

Estatuko sektore publikoko entitateek eta autonomia-erkidegoek partaidetza eduki ahal izango dute HUNOSArek kapitalean, akzioak eskuratuta; eskuratzen dituzten akzioak Estatuaren Administrazio Orokorren edo berarekin lotutako edo berari atxikitako erakundeen alde baino ezin izango dituzte eskualdatu.

3. HUNOSak eta beraren eskumendeko enpresek honako jarduera hauek egin ahal izango dituzte bitarteko propioa edo zerbitzu teknikoa diren sektore publikoko entitateen mandatuz:

a) Meatzaritza-jardueraren ondorioz edo lurpeko meategiak modu antolatuan ixtearen edo aire zabaleko ustiategiak leheneratzearen ondorioz narriatutako eremuak leheneratzeko era guztietako proiektuak, obrak, lanak eta zerbitzuak egitea, baso-leheneratzeko eta aire-saneamenduko lanak barne.

b) Lehengoraturako eremuen garapen alternatibo eta ingurumenaren aldetik jasagarria den bati bide ematen dioten zuzkidurak edo azpiegiturak sortzeko edo birgaitzeko proiektuak, obrak edo zerbitzuak egitea, bai eta beharrezkoak direnak ere meatze-jarduerak erasandako baliabide naturalak hobeto erabiltzeko eta kudeatzeko, edo ikatz-meatzaritzaren doikuntzak erasandako eremuetan garapen alternatiboa eta suspertze ekonomikoa bultzatzeko.

c) Itxitako meategietako edo leheneratzeko jardueren ondoriozko eraiste-hondakinak, produktuak, azpiproduktuak eta hondakinak biltzea, garraiatzea, ezabatzea, biltegiratzea, eraldatzea, hobetzea, errebalorizatzea eta kudeatzea, eta hondakin-urak kanalizatzeko, arazteko eta leheneratzeko instalazioak hobetzea.

d) Ikatz-meatzaritzak narriatutako eremuak leheneratzeko edo beren onera ekartzeko teknika, ekipo, sistema edo prozesu berriak sustatzea, ikertzea, garatzea, berritzea eta egokitzea.

4. Aurreko apartatueta arautzen ez den guztirako azaroaren 8ko 9/2007 Legearen 32. eta 33. artikuluetan ezartzen dena aplikatuko da.

5. Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala-Diruaren Errege Etxea enpresa-entitate publikoa da eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak halako erakunde publikoez ezartzen duena aplikatzen zaio. Estatuaren, autonomia-erkidegoen edo toki-entitateen adjudikazio-botereen bitarteko propio pertsonifikatu gisa jardungo du, baldin eta azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 32. artikuluan kasu bakoitzerako ezartzen dituen baldintzak betetzen badira. Horrez gainera, Ogasun Ministerioaren titularrak mandatuak eman ahal izango dizkio modu zentralizatuan, berak zehazten dituen kasuetan eta berak finkatzen duen irismen subjektiboarekin, Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala-Diruaren Errege Etxeari 9/2017 Legearen arabera hura bitarteko propioa duten erakundeen eta entitateen alde. Mandatu horiek honako bi xedapen gehigarri hauetan ezartzen denarekin bat etorri finantzatuko dira: Estatuko 2015eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarria eta Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren hogeita hirugarren xedapen gehigarria.»

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluen 1., 4., 6., 7., 8., 10., 11., 13., 14., 16., 17., 18., 21., 25. eta 27. puntuetan xedatzen denaren babesean ematen da. Arau horiek eskumena ematen diote Estatuari honako arlo hauek arautzeko, hurrenez hurren: konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzak; defentsa eta indar armatuak; prozedura-legeria; lan-arloko legeria, ezertan eragotzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek hura betearaztea; legeria zibila; aduanen eta muga-zergen araubidea eta kanpo-merkataritza; diru-sistema: dibisak, trukea eta bihurtgarritasuna; kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzeko oinarriak; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; ogasun publikoa eta estatuaren zorra; kanpo-osasuna eta osasunaren oinarriak eta koordinazio orokorra; farmazia-produktuen legeria; Gizarte Segurantzaren oinarritzko legeria eta araubide ekonomikoa (autonomia-erkidegoek gauzatu beharreko zerbitzuak eragotzi gabe); administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak; administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarritzko legeria; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; telekomunikazioak;

meatzeen eta energiaren araubidearen oinarriak; prentsaren, irratia, telebistaren eta, oro har, gizarte-komunikabide guztien araubidearen oinarritzko arauak.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Estatuaren finantza-ekarpen gehigarria 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planerako.*

1. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioari baimena ematen zaio Kontingentzia Funtseko 100 milioi euro presaka erabiltzeko 2020ko aurrekontuko 17.09.261N.753 «Estatuaren dirulaguntzak. Etxebizitza-planak» krediturako. Zuzkidura hori berehala gehituko zaio Sustapen Ministerioak (gaur egun Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioa) 2020ko ekitaldirako 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana gauzatzeko hitzarmenetan konprometitutako diru kopuruari.

2. Zuzkidura hori autonomia-erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien artean banatzeko, Etxebizitza, Hirigintza eta Lurzoruaren Konferentzia Sektorialak erabaki zituen ehunekoak aplikatuko dira.

3. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioari baimena ematen zaio autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei presaka transferitzeko zuzkidura hori oso-oso, haiek finantza-konpromisoa hartu zain egon gabe eta hitzarmenetan ezartzen diren baldintzak bete zain egon gabe. Nafarroako Foru Komunitateari dagokion laguntza beraren kontzertuaren esparruan negoziatuko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiona, beraren kupoaren barruan.

Azken xedapenetako hamargarrena. *2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana garatzeko eta aldatzeko gaitzea.*

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren titularrari ahalmena ematen zaio 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana arautzen duen martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuak xedatzen duena garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Halaber, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren titularrari ahalmena ematen zaio behar diren xedapen guztiak emateko 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana arautzen duen martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuan xedatzen dena partzialki aldatzeko, baldin eta plan hori betetzeko eta COVID-19aren ondorio ekonomiko eta sozialak minimizatzen laguntzeko egiten zaizkion aldaketak egiteko Sustapen Ministerioa zenak autonomia-erkidegoekin eta Ceuta eta Melilla hiriekin hartutako konpromisoak errespetatzen badira.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Erregelamenduz garatzea eta betearaztea.*

Gobernuari eta ministerio-departamentu guztietako titularrei ahalmena ematen zaie errege lege-dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko, bakoitzak bere eskumen-eremuaren barruan.

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Indarraldia.*

1. Oro har, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurriek indarrean iraungo dute alarma-egoeraren deklarazioaren indarraldia amaitu ondoren hilabete pasatu arte. Aurrekoa gorabehera, iraunaldi jakina duten errege lege-dekretu honetako neurriak iraunaldi horri lotuko zaizkio.

2. Nolanahi ere, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurrien indarraldia errege lege-dekretu bidez luzatu ahal izango du Gobernuak, egoera aztertu ondoren.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, honako salbuespen honekin: 37. artikulua, Jokoa arautzen duen

maiatzaren 27ko 13/2011 Legean arautzen diren joko-jardueretako bat egiten duten entitateen merkataritza-komunikazioak murrizteko neurriei buruzkoa, errege lege-dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik bi egun igarotakoan jarriko da indarrean.

Madrilen, 2020ko martxoaren 31n.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

I. ERANSKINA

SARS-CoV-2 koronabirusak (COVID-19) autonomia-erkidegoen aurrekontuetan daukan eraginari buruzko galde-sorta

IMPACTO PRESUPUESTARIO DERIVADO DEL CORONAVIRUS SARS-CoV-2 (COVID-19)

(CCAA) ; Ejercicio: _____ ; Período: _____

(Ente)

Indicadores Acumulados desde el 1 de enero, al cierre del mes

Nº casos confirmados

Nº casos confirmados todavía en seguimiento

Nº casos confirmados recuperados

Nº casos confirmados fallecidos

Nº días de estancia hospitalaria en UCI de casos confirmados

Nº días de estancia hospitalaria en unidades distintas de UCI de casos confirmados

(miles de euros, depuradas transferencias internas)

	Obligaciones reconocidas Estimadas	Gastos estimados en cuentas no presupuestarias de acreedores por obligaciones pendientes de aplicar a presupuesto		Otros ajustes a devengo estimados	Total Gasto devengado estimado	Observaciones / Relación de medidas adoptadas
		Abonos en el ejercicio	Aplicaciones en el ejercicio			
I.- Sanitario						
I.1.- Gasto de personal sanitario					0,00	
I.2.- Gastos de atención hospitalaria					0,00	
I.3.- Gasto farmacéutico hospitalario	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	
-Medicamentos genéricos					0,00	
-Medicamentos biosimilares					0,00	
-Resto de medicamentos					0,00	
I.4.- Gasto en productos farmacéuticos y sanitarios por recetas médicas u orden de dispensación	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	
-Productos sanitarios					0,00	
-Medicamentos	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	
-Genéricos					0,00	
-Biosimilares					0,00	
-Resto de medicamentos						
I.5.- Gasto en productos sanitarios sin receta médica u orden de dispensación					0,00	
I.6.- Gasto en conciertos de asistencia sanitaria con entidades no incluidas en AA.PP.					0,00	
I.7.- Transferencias corrientes a otras AA.PP.						
I.8.- Otros gastos corrientes					0,00	
I.9.- Inversiones					0,00	
I.10.- Transferencias de capital a otras AA.PP.						
I.11.- Otros gastos de capital					0,00	
I.12.- TOTAL GASTO SANITARIO	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	
II.- Sociosanitario						
II.1.- Gastos de carácter sociosanitario de gestión directa no recogidos en el apartado I.a.					0,00	
II.2.- Gastos de carácter sociosanitario de gestión indirecta o concertada no recogidos en el apartado I.a.					0,00	
II.3.- TOTAL GASTO SOCIOSANITARIO	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	

[illegible][illegible][illegible][illegible]

II. ERANSKINA COVID-19aren kudeaketak eragindako gastuen formularioa

A) ONDORIOAK FUNZIONAMENDU-GASTUETAN, INBERTSIO-GASTUETAN ETA TRANSFERENTZIA-GASTUETAN

Zerbatekoak miliko €-etan

Programa/Programa-taldea Deskribapena	Gastu-kapitulua Deskribapena	ERREFERENTZIAKO UNITATE FISIKOAK	UNITATEEN KOP.	COVID-19aren ondoriozko neurrien aplikazioarekin zuzenean lotutako gastuak					Guztira gastua COVID-19aren ondoriozko neurrien gabeko programen taldean	Ezarritako neurrien zerrenda eskematikoa, programa-talde eta kapitulu bakoitzean duten eragina xehatuta
				Onartutako obligazioak	Obligazioengatik hartzekodunen gastuak, aurrekontuz kanpoko kontuetan ageri direnak eta aurrekontuan aplikatu gabe daudenak		Zenbatetsitak o beste sortzapen- doikuntza batzuk	Zenbatetsitako sortzapen- gastua, guztira		
					Ekitaldiko abonuak	Ekitaldiko aplikazioak				
132. Segurtasuna eta ordena publikoa	Langile-gastuak: 1. kap.	COVID-19aren ondorioz plantillan sartutako pertsonen kopurua / gehitutako aparteko orduen kopurua								
	Gastua ondasunetan eta zerbitzuetan: 2. kap.	COVID-19aren ondorioz erositako material gehigarriaren unitateak (kop.) / egindako zerbitzu-kontratu gehiarriak (kop.)								
	Inbertsio-gastua: 6. kap.									
	Transferentzia arrunt gastua: 4. kap.									
	Kapital-transferentzien gastua: 7. kap.									
134: Hiri- mugikortasuna	Langile-gastuak: 1. kap.	COVID-19aren ondorioz plantillan sartutako pertsonak (kop.) / gehitutako aparteko orduak (kop.)								
	Gastua ondasunetan eta zerbitzuetan: 2. kap.	COVID-19aren ondorioz erositako material gehigarriaren unitateak (kop.) / egindako zerbitzu-kontratu gehiarriak (kop.)								
	Inbertsio-gastua: 6. kap.									
	Transferentzia arrunt gastua: 4. kap.									
	Kapital-transferentzien gastua: 7. kap.									
135: Babes zibila	Langile-gastuak: 1. kap.	COVID-19aren ondorioz plantillan sartutako pertsonen kopurua / gehitutako aparteko orduen kopurua								
	Gastua ondasunetan eta zerbitzuetan: 2. kap.	COVID-19aren ondorioz erositako material gehigarriaren unitateak (kop.) / egindako zerbitzu-kontratu gehiarriak (kop.)								
	Inbertsio-gastua: 6. kap.									
	Transferentzia arrunt gastua: 4. kap.									
	Kapital-transferentzien gastua: 7. kap.									
162: Hondakinak biltzea, ezabatzea eta tratatzea	Langile-gastuak: 1. kap.	COVID-19aren ondorioz plantillan sartutako pertsonen kopurua / gehitutako aparteko orduen kopurua								

[illegible]

Programa/Programa-taldea Deskribapena	Gastu-kapitulua Deskribapena	ERREFERENTZIAKO UNITATE FISIKOAK	UNITATEEN KOP.	COVID-19aren ondoriozko neurrien aplikazioarekin zuzenean lotutako gastuak					Guztirako gastua COVID-19aren ondoriozko neurririk gabeko programen taldean	Ezarritako neurrien zerrenda eskematikoa, programa-talde eta kapitulu bakoitzean duten eragina xehatuta
				Onartutako obligazioak	Obligazioengatik hartzekodunen gastuak, aurrekontuz kanpoko kontuetan ageri direnak eta aurrekontuan aplikatu gabe daudenak		Zenbatesitak o beste sortzapen- dokuntza batzuk	Zenbatesitako sortzapen- gastua, guztira		
					Ekitaldiko abonua	Ekitaldiko aplikazioak				
311: Herri- osasungarritasun- en babesa		Erositako material gehigarriaren unitateak (kop.)								
		COVID-19aren ondorioz egindako zerbitzu-kontratu gehigarriak (kop.)								
	Inbertsio-gastua: 6. kap.									
	Transferentzia arruntten gastua: 4. kap.									
	Kapital-transferentzien gastua: 7. kap.									
	Langile-gastuak: 1. kap.	COVID-19aren ondorioz plantillan sartutako pertsonak (kop.) / gehitutako aparteko orduak (kop.)								
	Gastua ondasunetan eta zerbitzuetan: 2. kap.	COVID-19aren ondorioz erositako material gehigarriaren unitateak (kop.) / egindako zerbitzu-kontratu gehigarriak (kop.)								
	Inbertsio-gastua: 6. kap.									
	Transferentzia arruntten gastua: 4. kap.									
	Kapital-transferentzien gastua: 7. kap.									
312: Ospitaleak, laguntza- zerbitzuak eta osasun-zentroak	Langile-gastuak: 1. kap.	COVID-19aren ondorioz plantillan sartutako pertsonak (kop.) / gehitutako aparteko orduak (kop.)								
	Gastua ondasunetan eta zerbitzuetan: 2. kap.	COVID-19aren ondorioz erositako material gehigarriaren unitateak (kop.) / egindako zerbitzu-kontratu gehigarriak (kop.)								
	Inbertsio-gastua: 6. kap.									
	Transferentzia arruntten gastua: 4. kap.									
	Kapital-transferentzien gastua: 7. kap.									
320: Hezikuntzako Administrazio Orokorra	Langile-gastuak: 1. kap.	COVID-19aren ondorioz plantillan sartutako pertsonak (kop.) / gehitutako aparteko orduak (kop.)								
	Gastua ondasunetan eta zerbitzuetan: 2. kap.	COVID-19aren ondorioz erositako material gehigarriaren unitateak (kop.) / egindako zerbitzu-kontratu gehigarriak (kop.)								
	Inbertsio-gastua: 6. kap.									
	Transferentzia arruntten gastua: 4. kap.									
	Kapital-transferentzien gastua: 7. kap.									

Programa/Program a-taldea Deskribapena	Gastu-kapitulu Deskribapena	ERREFERENTZIAKO UNITATE FISIKOAK	UNITATEEN KOP.	COVID-19aren ondoriozko neurrien aplikazioarekin zuzenean lotutako gastuak					Guztiraiko gastua COVID-19aren ondoriozko neurririk gabeko programen taldean	Ezarritako neurrien zerrenda eskematikoa, programa-talde eta kapitulu bakoitzean duten eragina xehatuta
				Onartutako obligazioak	Obligazioengatiko hartzekodunen gastuak, aurrekontuz kanpoko kontuetan ageri direnak eta aurrekontuan aplikatu gabe daudenak		Zenbatetsitak o beste sortzapen- doikuntza batzuk	Zenbatetsitako sortzapen- gastua, guttira		
					Ekitaldiko abonua	Ekitaldiko aplikazioak				
	Transferentzia arrunt gastua: 4. kap.									
	Kapital-transferentzien gastua: 7. kap.									
	Langile-gastuak: 1. kap.	COVID-19aren ondorioz plantillan sartutako pertsonak (kop.) / gehitutako aparteko orduak (kop.)								
323: Haur- hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxeen funtzionamendua.	Gastua ondasunetan eta zerbitzuetan: 2. kap.	COVID-19aren ondorioz erositako material gehigarriaren unitateak (kop.) / egindako zerbitzu-kontratu gehiagarriak (kop.)								
	Inbertsio-gastua: 6. kap.									
	Transferentzia arrunt gastua: 4. kap.									
	Kapital-transferentzien gastua: 7. kap.									
9. gastu-arloa: Jarduketa orokorrak	Gastu arruntak: 2. kap.	COVID-19aren ondorioz telelana errazteko erositako material gehiagarriaren unitateak (kop.)								
	Inbertsio-gastuak: 6. kap.	COVID-19aren ondorioz telelana errazteko erositako Informatika- ekipoak edo unitateak (kop.)								

B) ERAGINA ZERGEN DIRU-SARRERETAN

Diru-sarreraren aurrekontu- kontzeptua	COVID-19aren ondoriozko neurrien aplikazioarekin zuzenean lotutako diru-sarreraren murrizketa					Ezarritako neurrien zerrenda eskematikoa, kontzeptu bakoitzean duten eragina xehatuta
	Likidatutako eskubideak	Eskubide- murrizketa jarduera gutxitzeagatik	Eskubide- murrizketa eskumeneko neurrien ondorioz	Likidatutako eskubideak, zenbatesiak, gutxira		

[illegible]

III. ERANSKINA Honako hauei buruzko informazioa: martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua-ren AEFILOren 6. xed. gehigarriaren eta TOALTBren 16. xed. gehigarriaren aplikazioa, eta TEentzako 300 m €-ko guztirako kopuruaren banakako mugak

Programen araberako sailkapena	Saillapen ekonomikoa			Baimenduta ko gastua	Konprometituta ko gastua	Onartutako obligazioak
	Gastuaren arloa	Gastu-politika	Programa-taldea	Kapitulua	Artikulua	Kontzeptua
A) Martxoaren 17ko 8/2020 ELDaren 1.2 artikuluko prestazioak						
a) Etxeko zerbitzu hurbilekoak indartzea (etxeko zerbitzu laguntza modalitate guztiak barne), batez ere adinekoen, desgaituen edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintza bermatzeko asmoarekin, jangelak, eguneko zentroak, zentro okupazionalak eta antzeko beste zerbitzu batzuk itxi izana konpentsatzeko.						
b) Etxetik telelanean aritzeko gailuak gehitzea eta sendotzea						
c) Behar denean, etxean ematea errehabilitazio-zerbitzua, terapia okupazionala, higiene-zerbitzuak eta antzekoak						
d) Etxerik gabeko pertsonen arretarako baliabideak sendotzea pertsonal eta bitarteko egokiekin, pertsona horien babesa bermatzeko						
e) Gizarte-zerbitzuen zentroetako eta egoitza-zentroetako plantillak sendotzea, ordezkapenak edo zerbitzu berriak egin behar badira edo plantillaren gainkarga dela eta.						
f) Prebentzio-baliabideak eskuratzea (NBE)						
g) Familien diru-sarrerak bermatzeko partiden zuzkidura handitzea, oinarriko beharrezkoak –presakoak zein gizarteratzeak– estaliak dituztela ziurtatzeko						
h) Zerbitzu eta baliabide egokiekin sendotzea zaintzaileentzako atsedeen-zerbitzuak eta, diru-sarrera eskasak edukita, lan egin behar duten edo presako edota justifikatutako arrazoiengatik etxetik irten behar diren familientzako kontzillazio-neurriak.						
i) Krisi honen ondorioz egoera baxerenean dauden pertsonen arretarako presaz ezarri beharreko ezinbesteko beste neurri batzuk (ondo justifikatu behar dira)						
ELDaren 1.2 artikuluko prestazioen zenbatekoa, guztira						
B) Egindako inbertsioak						
C) Kapital-transferentziak						
ELDaren 1.2 artikuluko prestazioen, inbertsio-gastuen eta kapital-transferentzien zenbatekoa, guztira						

ELD honetan ezartzen denaren arabera aplikatu beharreko banakako muga
Superabit-gerakina AEFILOren 6. xedapen gehigarriaren 2.c) apartatuaren arabera

IV. ERANSKINA - [Eskaera-formularioa]

ESKAERA-EREDUA: GIZARTE-BONUA ABEEE BATEN ERAGINPEAN
DAUDEN BESTEREN KONTURAKO LANGILEENTZAT EDOTA COVID-19AREN
ONDORIOZ JARDUERA MURRIZTU ZAIEN LANGILE AUTONOMOENTZAT

Erreferentziako
enpresa
merkaturatzailearen
datuak

Eremu honetan erreferentziako
enpresa merkaturatzaileak eskaeraren
sarrera-erregistroa erantsi behar du

HORNIDURAREN TITULARRAREN DATUAK

Izen-abizenak:

IFZ edo AIZ:

Hornidura-puntuaren helbidea:

Helbide elektronikoa, jakinarazpenak jasotzeko:

Udalerria:

Posta-kodea:

Probintzia:

Harremanetarako telefonoak: / / /

Bestela, posta-helbidea, jakinarazpenak jasotzeko:

Hornidura-puntuaren kode unibertsala - HPKU (datu hori fakturan ageri da;
bestela, hornitzaileari eskatu ahal zaio):

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko
abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatzen duena betetzeko,
adierazten dizugu ematen dituzun datu guztiak isilpekoak izango direla. Biltzen
diren datuak martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak eta gizarte-
bonuari buruzko gainerako arautegi aplikagarriak arautzen duten gizarte-bonua
aplikatzeko erabiliko dira.

Gainera, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian inskribatutako honako fitxategi
hauetan gorde eta landuko dira datuak: ...(fitxategien izenak)....; fitxategien
titularra honako hau da: ...(fitxategien arduradunaren izena).....

Halaber, ...(fitxategien arduradunaren izena)....(e)k konpromisoa hartzen du
biltzen diren datu pertsonalak isilpean lantzeko eta hirugarrenei ez jakinarazteko
ez lagatzeko.

Indarrean dagoen arautegia betez, bermatzen da landuko diren datu pertsonalek behar duten segurtasun-maila izateko behar diren neurri teknikoak eta antolakuntza-neurriak ezarri direla.

Gainera, jakinarazten dizugu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak balia ditzakezula honako helbide elektroniko honen bidez: ...(enpresak horretarako jarritako helbide elektronikoa).... NANaren kopia erantsi behar da.

ESKAERA:

Adierazitako hornidura-puntuaren kode unibertsaleko hornidurari gizarte-bonua aplikatzea.

ESKATZAILEAK ADIERAZTEN DU:

- Eskatzen den gizarte-bonua titularraren ohiko etxebizitzaren hornidurari aplikatuko zaio.
- Titularra pertsona fisikoa da.
- Titularrak kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioari (KTBP) heldu dio edo, bestela, onartzen du erreferentziako enpresarekin kontratua sinatzea KTBPri helduta¹.

Markatu, bidezkoa bada:

- ☐ Familia-unitate² bateko kidea da; hona unitateko kideak (kide guztien izenak eta IFZ edo AIZ, nahitaezkoa izanez gero):

¹ Gizarte-bonua aplikatzeko, ezinbestekoa da hornidura-kontratua edukitzea erreferentziako enpresa merkaturatzailearekin KTBPri helduta. KTBP 216/2014 Errege Dekretuak arautzen du (martxoaren 28koa, energia elektrikoaren kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioak kalkulatzeko metodologia eta energia elektrikoaren kontratatze araubide juridikoa ezartzen dituena).

² Hornidura elektrikoaren fakturan gizarte-bonua aplikatzeko ez beste ezertarako, familia-unitateak dira 35/2006 Legeak (azaroaren 28koa, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga arautzen duena eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzen dituena) xedatzen duenaren arabera erabakitakoak honako modalitate hauetako batean:

1. Legez banandu gabeko ezkontideak eta honako hauek (egonez gero):

- a) Adingabeko seme-alabak, gurasoen adostasunarekin beren kabuz bizi direnak izan ezik.
- b) Adin nagusiko seme-alabak, baldin eta judizialki ezgaituta badaude eta guraso-ahal luzatuaren edo birgaituaren pean badaude.

2. Ezkontideak legez bananduta egonez gero edo bikoteko kideen artean ezkontza-loturarik egon ezean, aitak edo amak eta batarekin zein bestearekin bizi diren seme-alaba guztiek (1. arauan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztenek, hain zuzen) osatutakoa. Inor ezin da izan bi familia-unitatetako kidea aldi berean.

(Eremu honetan familia-unitateko kideen izenak eta IFZ edo AIZ idatzi behar dira).

Markatu, bidezkoa bada:

- 1) Hornidura-puntuaren titularra, edo familia-unitateko beste kideren bat, besteren konturako langilea da eta lan-arloko agintaritzak baimendutako enplegu-erregulazioko espediente batean dago COVID-19ak jardueran eragindako galeren ondorioz.
- 2) Hornidura-puntuaren titularra, edo familia-unitateko beste kideren bat, besteren konturako langilea edo langile autonomoa da eta prestazioa jaso dezake lanbide-jarduera erabat eteteagatik edo gizarte-bonua eskatu aurreko hilean fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murrizteagatik aurreko sei hilekoko batez besteko fakturazioaren aldean, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak ezartzen duenarekin bat etorritik.

HONAKO AGIRI HAUEK AURKEZTEN DITU BALDINTZAK BETETZEN

DITUELA FROGATZEKO:

- Hornidura-puntuaren titularraren IFZ edo AIZren kopia; gainera, familia-unitate bateko kidea bada, IFZ edo AIZ nahitaez eduki behar duten unitateko kideen dokumentu horien kopiak.
- Hornidura-puntuaren titularraren edo familia-unitateko kide guztien erroldatze-ziurtagiria (indarrean egon behar du), banakakoa edo baterakoa.
- Familia-unitaterik badago, familia-liburua.
- Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak 28. artikulua 1. apartatuaren a) letran arautzen duen kasuan, horniduraren titularrari edo ukitutako familia-unitateko kideari dagozkion agiri hauek:
 - EEEaren erabakia.

- Lan-arloko agintaritzak EEEdari buruz emandako ebazpena.
 - Behar den kasuetan, besteren konturako langilearen eta EEEda aplikatzen duen enpresaren arteko harremana frogatzen duen agiria.
- Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak 28. artikulua 1. apartatuaren b) letran arautzen duen kasuan, langile autonomoak bere izaera frogatu behar du, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Hain zuzen ere, langile autonomoak jarduera utzi badu, hori frogatzeko, interesdunak jarduera utzi izanari buruz egindako adierazpenean oinarriturik Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo, bestela, autonomia-erkidegoko organo eskudunak egindako ziurtagiria aurkeztu behar da.

(Eremu honetan, titularraren eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak 28. artikulua 1. apartatuaren a) edo b) letretan arautzen diren kasuetako batean dauden familia-unitateko kideen izena, IFZ edo AIZ eta sinadura idatzi behar dira).

Baldin eta azaldutako inguruabarrak martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak 28. artikulua 3. apartatua ezartzen duen sei hileko aldia igaro baino lehen aldatzen badira, kontsumitzaileak erreferentziako enpresa merkaturatzaileari jakinarazi beharko dio. Nolanahi ere, kontsumitzaileak gizarte-bonua eska dezake, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuak arautzen duenaren arabera.

.....(e)n, 20....(e)ko(a)ren(e)(a)n

Horniduraren titularraren sinadura, eta, behar den kasuetan, familia-unitateko kideena ere bai.